



IBAZABAL 15 KEZKAZ A MARTZEL



AITA MARTZEL



AITA MARTZEL

Bolbar (Iruzubietan) jaio zan, 1930'ko abuztuaren 18'an.

Pasiotarren artean profesia egin eban 1947'an.

Abadegintza artu eban Donostin 1954'an.

Bertsolarien leenengo txapelketetan epaimaiko izan zan 57'tik 61'ra.

Euskaltzaindiko urgazletzat onartu eban 1961'an.

Euba'ko nagusi egon zan 1969'tik 71'ra.

Gotzain-Ordezkeri (Bikario) aukeratu izan dabe iru biderrez: 1973-76 eta 80'an.

Ogei ta bost azken urteotan euskaldun geienok A. Martzel oso ezagun dogu.

30708

KEZKAZ

A. MARTZEL

KEZKAZ

BILBAO 1981

PASIOTARRAK

EUBA (Telé. 673 04 86)

Depósito legal: BI-383-81

NIRE AMARI:

*Zuri eskeintzen deusut
"KEZKAZ" nire lana,
euskera irakatsi
zeneustan ama.
Euskadik ta Eleizak
biok apur bana
osotu dabe nigan
asi zenduana.
Nik gaur dakidana
or doa zeugana,
bertsotan esana,
amatxo laztana.
Zeuk dana ulertzea
da nai dodana;
zeuk dakizun euskeran
diñotzut dana.*

ITZAURREA

Gudu aurretik zan. J. Aitzol'ek, gure eder-arrobiri buruz ainbat gauza jorratu ebazanak, ederto piztu zituan eusko olerkariak, "Yakintza" bere aldizkari dotoreaz batez be. Berak sustatuta, egia esan, lenagotiko bertso-ederkera itxi ta bide barri billa ebiltzan orduko olerkaririk geienak: Lizardi, Lauaxeta, Jautarkol, Gastelu, Zaitegi... Bide zarrak erdi laga ta barriak nai. Iruli danez, baiña, geiegitxo aldenduz joiazan azatz zarretik eta bera asizan kontuz ibilteko esaka. Zarraren guna, antxiñako bertsolarien kutsua etzala itxi bear aldarrikatzen.

Oleri errikoia igartuz doala-ta, miñez dago Aitzol. Onela erakusten dausku min orren zauria: "Zuaitz zar ori eusko-edertasunaren gordailu izanda. Idazle eta olerkari apainduak erakutsi ez digutena erriko kanta zarrak irakasten digute eusko goaren edertiari buruz jakin dezakeguna". Eta orduko olerkari ta idazleai onu bat damotse samur: "Lore-kanta zaar oien lausaro auxe —diño— miaztu zazute. Antziñako bertsolarien esakun, irudi eta asmoak ausnartu itzazute. Orrela zuen irudimena aberastu eta olermena eusko kutsuz igurtzitzea lortuko dezute" (*Idem*, 355 orr.).

Iñork jaso al ditu Aitzol'en zentzunezko burubideak. Ezezkoan nago. Antzeko zerbait iñoiz bat edo-batek, baiña eusko gogoa dagian irudi-oldoz-

kun taiukera ortan barrendu eta ak esan bidez bere lanak moldetu, bai ete? Miiñez esan oi doguz gauzatxo asko, "antxiñako bertsolari gisan ondu bear ditut ene lanak" eta bai; baiña gero, panparroikeri-laiñotik jastean, zer? Eztau iñortxok be itxi nai izan barri-zaleen jokaera.

Nainoz izan oi dira, alan be, gai guztietan izan be, salbuespen eta besterik-ezekoak. Orrelaxe dogu, beste batzuen artean, Aita Martzel be. Esku artean dogun bertso idazti txanbelin ontan, osoan ezpada be, edu ortan agertzen jaku: antxiñako bertsolarien erara, esakun sakon zale, zorrotz, euskera jaso ta errikoian, euskal bertsoaren guna non dagoen dakiala. Irakur, laster baten. bere sorpenak, ezin obe-to taiutuak.

Sarri entzuna ta esana da gu, euskaldunok, eder-zale izan gareala —eta gaur ez ete?—; aibat eder-lan ditugu or-emen sakabanaturik, bai eskuz egitiñiko gauzetan eta bai geure asmamen indarraz sortutakoetan. Bertso-saillan be olermenez ez dau eusko arimak lan txikia egin. Makiniatxo bat bertso eder bada gure liburu ta aldizkarietan! Olerkari izan jaku euskalduna; jatorriz ei yator-ku olerkari izatea. Izkuntza bera be ba leiteke, beste erri batzuetakoa baiña egokiago izatea, bertso ta olerkirako. Atzizki izkuntza dogulako, bear bada.

Eder-jario daukagu Euskalerrria, dala itxasalde, dala legorra. Markiñarra dogu Aita Martzel, Iruzu-bieta inguruan jaioa, toki olerkitsua iñundikan be. Eta norbait erne dan lekuak asko esan nai! Aita Martzel, beraz, leku zoragarri ortan jaio, azi ta ezia izanik, naitaez eder-zale, bertsolari...

Ba-dau ortik eder-gairik ingurumari; baita kemenen be barnean, adimenak, biotz-suz goiargituta, eder bikaiña sortzeko. Edertasuna, barriz, zein barrukoa ta zein kanpokoa, bertsoan adierazo oi dozu geien bat. Orixe da, ain zuzen be, A. Mar-

tzel'ek egin dauskuna, gizonki benetan: bere barru olerki eriozkoa bertso txukunez jantzi: bizitasun apartekoa dabe aapaldiak, irudi ederrez eta ames-eredu errimez apainduta urrenez datozeanak. Oso-osorik ezpada be, esan dogun bertsolari legea ain zeatz zaindu ez arren be, euskal kutsua agertzen jake aren lanai lau alderdietatik.

Apur bat luzatzen ba'gara be, azter daigun zer-bait Aita pasiotar argiaren kopia-lana. Azter-ala, barriz, argi ikusiko dogu bertsolari sotil onen idaz-tankera, estiloa. Egikera bat. Flaubert'ek iñoanez, ezta besterik gauzak *ikusteko* era berarizko bat bai-ño; arentzat, alan be, ikuste ortan sartzen ziran sentikortasuna, irudimena ta sentipena edo biotzikara. Egikera bat dago or naiz-ta nik azaltzen jakin ez, olako ar-emon bizi bat gizonaren eta munduaren artean; gizona agertzen jatanean, idazlea agertzen alako ar-emonaren sorle bezela, ez gizonak sustatzen dauan ar-emonen dalako, or bizitasunaren garra adierazten dalako baiño. Bizitasunezko bizi ori da guk norbaitek osoturiko idaz-lanean somatu ta ikusi bear doguna.

Gairik asko jaso ta kanta dau A. Martzel'ek; munduaren aurrean bizi izanik, oni begira bizirik, izan dituan experientzien mamia ez dira besterik aurrean daukazuzan lan olerkitsuok. Eliz-gizona da A. Martzel, eta eliz-gizon batek egokitasun geiago ditu, askoz geiago, munduarekin ar-emon bizi ta sarkorragoa eukiteko. Urteetan, Bizkaia'n batez be, erriz ibilli da mixiolari, ikastegian eta autortegian millaka orduak igarorik. Ez dogu au bide makala gizasemea barrenetik ezagutzeko. Eta entzun, ikusi ta ikasiaren jakituriz taiutuak dagoz A. Martzel'en olerkiak, gure baserri-jentearen gatz eta piper-pikorez gantzutuak, ain zuzen be. Ez, ez uste eioak egiten diardudanik.

Esan dot. Gai ixuria darabil. Jainkoa kantatzen dau, erria, gizona, mendiak; Gabon abestiak dakaz,

erriko jaiak, ardoaren gorralpenak, eliztarrak garizumaz arinak garbitzen, Jon XXIII'garren Aita Santua, euskal zalapartak, asaben izkuntza nai dau euskaldunen ezpanetan, sukaldeko ipuin-esaleak ezin ditu albora itxi...

* * *

Bertsolariak ba ba-dabe euren zaindaria, zapatarriak, jostunak, txoperrak eta besteak lez. "Besteak beste —diño—, bertsolariak be ba dabe euren arteko bat: bertsolari ta santu. BALENDIN BERRIO-TXOA". Urriñeko errialdeetan mixiolari ta gotzain ibllita be, amari euskeraz eta bertsotan idatzi oi eutson. Zeozergaitik emon eutson, emendik alde egiterakoan, kontseju au :

"Noranai, seme, joan zaitez, baiña euskaldun izatekotan.
Euskeraz berba, otoi ta abestu,
euskeraz amesak lotan...
Garbi ta errez idazten eban
euskeraz eta bertsotan".

Garizuman beintzat, sermoi guztietan bertso zorrotzak, esakun labur lez, botateko oitura dau A. Martzel'ek. Egi galantak sarri askotan! Ba-dira "gero gerokoak" esanik, arpegia beste aldera biurtzen dabena. Baiña azken orduan...

"Jaiak, soiñu, dantza ta panparroikeriak,
itxuturik gabiltza
kristaurik erdiak.
Arriskutik igesi,
nolatsu erbiak;
bestela azken orduan
a zer komeriak!".

Kruxev'ek bein bere morroi batzuk bialdu ziotuan, goiak zear, Jainkoaren billa; ez eben arren lorratzik aurkitu. Eta A. Martzel'ek adar-joten :

Jaungoiko-billa ibilli dira
gure Titov ta Gagarin,
baiña ez jake iñon agertu,
autortu deuskue arin.
Alperrik Kruxev, kazari zearrak
bide danak ondo jakin,
zer arrapauko dau arraztoa
galdu daben txakurrakin?".

Giza-bizia laburra! Konturatzeke doaz egunak eta urteak. Olerkariak zortziko txikitari kantatzen dausku gure egunen bizkortasuna.

"Urteak joan eta
urteak etorri,
ez dago dantzarako
Mari gona gorri".

Aiene ta oiene
au bizimodua!
Urteak ba duaz eta
neu bere ba nua...".

Euskera bait da eusko gogo, ezin gengike berau laga.

"Beste errien antzera
guk be ba dogu izkera :
Euskalerrian euskera
leen, orain eta aurrera".

"Naiz izan iru edo lau
geurea dogu beti au;
Ez da euskaldun ez kristau
euskera ukatzen badau".

Azken amabi-amar urteotan amaika istillu ta zalaparta ikusiak gaituzu. Ezta bai, bai ta ez; baiña "eztabaidako auzia, badaezpadako gauzia". Eleiz etxe, eskola, lantegi, komentu... —diño A. Martzel'ek—, danean eta danetan burruka ta eztabaida".

"Norbera beti da maixo,
danak buru-makur, kaixo!
Kontra dagonaren gaixo,
jo t'apurtu, ze arraixo!".

"Gaur dana da: Alkar maite,
baiña kontuz ibilli zaitel!
Milla promesa ta koipe
eurena jaritxi arte...".

Onetxek dituzu A. Martzel'en bertso bizkor,
mamintsu, errikoiak.

Aita Onaindia
Larrea, 1981-1-21

JAINKO - BIDEZ

«EUSKALDUN ETA FEDEDUN GARA GU»

“Euskaldun ete fededun gara gu”. Biok batera ta osorik? Bananduta ez obeto? Ori leenago bai, baiña gaur! Gaur be gu orixe gara. Ez diñot euskaldun danok izan bear dogunik; euskaldun izatea lurretik jatorku, fededun izatea goitik, geienbat. Ala zer? Euskaldun izateaz arrotu eta fededun izateaz lotsatu? Atakotzat dagoanak agertu daiala dan bestean, bardin errian eta erbestean, bata bez gorde ate-ostean.

Baiña ez dago leengo eran fededun izaterik, inguruko giroak eraginda, erlijiozko lege ta oitura batzuk beteaz. Lepoan kaiku bat jantzita euskera bako kaiku asko dabil baztarretan; bardin fede-ara-zoetan be. An-or-emen “eleiz-talde txikiak” sortu ta sendotzen doaz, eguneroko etxe ta erri-bizitzan oiñarrituta, Nazaret'eko Jesus bizirik aurkitzen diarduenak, alkarteko berotasun ta bizitasunean. Irakurri bein da birritan eta zeuregandu astiro astiro onako au: “Ez gagoz bakarrik...”. Ori danori egi ala guzur? Ara, zeure parrokian edo inguruan izango da orretariko taldetxoren bat; zoaz ta ikusi... eta bertaratu zaitetz.

(Doiñua:)

“Lepoan artu ta segi aurrera”

La-la-ra

la-la-ra, la-la, la-la-ra

EUSKALDUN ETA FEDEDUN GARA GU.

EUSKALDUN ETA FEDEDUN GARA GU.

Galduta genbiltzen itxas-ontzian
olatuaren artean burruka,
alkarte-erdian zutitu jakun
Jesus Jauna biziro ojuka:
«Mutillak, zuekin batera nago».
Andik geiago,
lagun daukagu
auxe sifñistu t'autortzen dogula:
EUSKALDUN ETA FEDEDUN GARA GU.


La-la-ra...
EZ GAGOZ BAKARRIK
EZ GAZTE, EZ ZARRIK,
AIXKIDE
SENIDE
GARA EMEN.
ZER DOGUN IKASI
TA ZER IRABAZI:
SENITARTEAN ANAI IZATEN.
GUK BADOGU FEDE,
MAITASUNA LEGE;
BIZI BARRI BATEN JAUN TA JABE.
ANAIK GARA, EZ IÑOREN MORROI,
AU KRISTAUAREN ASKATASUNAI
EKIN TA JARRAI, JARITXIKO DOGU
GURE ERRIAREN ALKARTASUNA.

Gabaz bart bidean aurkitu dogu
pozez bete gaituan LAGUNA,
berbiztu DANAK erakutsi deusku
eriotzan dagon osasuna.
Au da au daukagun poz-indarral
Gogo bakarra
auxe daukagu:
Ekin jo ta su, auxe lortu arte:
EUSKALDUN ETA FEDEDUN GARA GU.
La-la-ra... EZ GAGOZ BAKARRIK...

Itsurik gengoan artean, illun
ezin gauzen ederra ikusi;
bein baten taldean alkatu eta
billa ta deika jardun Jesusi.
Arexek argira eroan gaitu,
ta guk jarraitu,
dana ukatu;
oraintxe dakusgu zein eder dan au:
EUSKALDUN ETA FEDEDUN GARA GU.
La-la-ra... EZ GAGOZ BAKARRIK...

Gizon bat ondora etorri eta
«Jagi zaitetz» agindu euskuna,
zutitu ta pozez sumatu gendun
gogo-gorputzen askatasuna.
Goraka daukagu kantuz biotza,
ez gara lotsa,
t'ezin ukatu
Kristori esker, dogun nortasuna:
EUSKALDUN ETA FEDEDUN GARA GU.

La-la-ra...
EZ GAGOZ BAKARRIK
EZ GAZTE EZ ZARRIK...



NUN JAIKO BILLAI

(Doiñua: 1)

Bertso batzuek jartzera nator
 aal ditudanik onenak,
 danoi biotzez ezarri nairik
 poztasunezko kemenak.
 Arrotzen gaitu, ta ez lotsatzen
 dogun kristau-sifñismenak,
 Kristogan daukoz bere sustralak
 gaur gure itxaropenak;
 alkarren alde egin Berari
 eskaririk beroenak.

Jainko txikia, gizon aundia,
 au bai dala mirarial
 Gauza txikian dagon aundia:
 gizonen serbitzaria...
 Lagun eiguzu egin egiten,
 sobra dago izlaria!
 Maitasunezko burrukan beti
 Zeu zaitugu gidaria,
 on egitea izan dedilla
 billatzen dogun saria.

Zure elburu beti izan zan:
 «Aitaren borondatea»,
 Aita biotzez goraldtu eta
 gizonei on egitea.
 Ondo dakigu etxe askotan
 dago norbaiten faltea;
 betoz etxera, beingoz itxirik
 espetxe ta erbestea,
 zure Jaiotzan izan dagigun
 danok zorion beteal

Zure inguruan batzen gaituzu
 Jesus Ume jaio-barri,
 urtero kantuz jartzen dituzu
 guztion biotz-etzarri.
 Gaixo ta pobre, bakar ta mindun...
 geuk on egiñaz alkarri,
 barriro bere jaio zarala
 askok daiela igarri;
 etorri zatoz, baiña ama-ordez,
 bear dozu nok ekarri!!!



IKASI ONDO SUFRITZEN

amar miñutuan

Atzo, gaur eta biar,
beti neke-miña;
ume, gazte ta zaarrak
illeta bardifia.
Leen, orain eta gero
betiko dotriña:
Neke-miña geugandik
aldendu eziñal

Nok ete dau errua,
Jaungoikoak Berak?
Batzutan ifiok, eta
bestetan norberak.
Oker egin ezkeru
munduko aukerak,
ortik datoz miñezko
milla gora berak.

Asmo txarrez etorri,
naizta berez sortu,
eraz artu ezkeru
onik asko lortu...
Jaunaren «deia» dozu
ez biotzez gortu;
olakoan, amaika
oi dira bixkortu.

Dana da neke-miña...
ez dago Jainkorik?
Bai, biak ortxe dagoz
alkarren ondorik.
Obe dozu fedean
iruntzi osorik:
Zelan leiteken izan
nigaz olakorik?

Jaunak ez eban sortu
gure neke-miña,
Jesusek lez onartzen
egin alegiña.
Izan gura badozu
askatzaille fiña,
bide bakarra dala
eukizu jakiña.

Zigorak ta zauriak
iseka ta txistu...
nor ta zenbat zarean
zuk ortxe egiztu.
Alai ta sendo iraun,
maitasunez biztu:
«Tomas» askok zugan be
bàietz gaur siñistu!!!

Zenbat maitatzen dozun
nai badozu jakin,
ainbat sufritzen dozu,
neurria da bardin...
Maitatzean sufridu,
beti ez da atsegin...
sufritzean maitatu,
egizu aalegin!

Bizi-penitentzia
—ba dago naikoa—
gizona onduteko
da sekulakoa!
Baifia kontuz ibilli:
ez mindu urkoa;
on-egifiaz bentzidu
zeure kontrakoa!!!

Nai badozu, aixkide
egiz zoriona,
jakin egizu ondo
au zeugan dagona.
Neke-miñen aurrean
zaindu gogo ona;
jokatu bildur barik,
ori da gizona!

Ikusiak ikusi,
au ezin ukatu;
eta bizitzan zear
sarri gogoratu:
Au dala «gau txar baten
penazko ostatu»...
ez emon leiken baifio
geiago eskatu!!!

DAMU DOT, JAUNAI

(Doiñua: 10)

*Bai, gure arteko batasuna urratu da, zati batera-
ko. Kristo dala ta eztala, eleiza bai ta ez, tarratada
makalak egin doguz geure artean! Leenagoko egi
biribil, ziur ta "santuak" gaur "egi-edo" biurtu dira.
Egi-arloan eta moral-sailllean sekulako triskantza ta
saltsa maltsa! "Engañau egin gaitue"! Erlijio-gauze-
tan askatasuna dagoala-ta, oitura ta lege danak ausi
dira. "Jaungoikoa ta Lege Zaarra"? Jaungoikoa "go-
regi" bear bada; orregaitik baztartuta obeto, eta
norbere erako ta neurriko zertxobait asmau ta kito.
"Lege zaarra"? Ain zaarra ze...! Aztarrenik be ez
da geratu eta alkarren lepoan buztarri barriak ezarri
nai, ta ezin. Zer da au?*

«Damu dot, Jauna» kantu-soiñuan
nator gaurkoan bertsoan,
gure Erriko fede-bizitza
artzen dodala gogotan.
Gizonen alde maitasun baten
bein il zifiana Golgotan,
gu Euskaldunok maite bagozuz
ez, ez gaizuz itxi lotan!

Ainbat gizaldiz, etxe ta kanpo
danok gifian fededunak,
baifia Zuk ondo dakizu, Jauna
gaur zer garan Euskaldunak.
Zeu zarala-ta, urratu dira
leengo gure batasunak,
noiz arte, Jauna, iraun bear dau
gure arteko illunak?

«Ni Jainko barik, libre bizi naz»
gure artian entzuna,
ondoren ardo, droga ta jolas
bete nai zure utsuna.
Egizu, Jauna, gorde daigula
kristiñauaren zentzuna,
iñundik baiño naiago dogu
Zugandik askatasuna.

Zeru, inpernu eta Jainkoa
dana ei dogu kontua,
Zugan sifisten dauan gizona
a zer gixajo tontual
Begira, Jauna, Babel Torreko
kulturaun gizontua,
danok ondatu baiño leenago
uxatu Zeuk afrontual

«Alkar maitatu», «Garbiak izan»
«Aita, parkatu», ta abar,
dotriña onek erriarentzat
gauza onik ez ei dakar.
Zure legeak baztartu dira
eta jarri beste amar,
ta emen gabiz seme-alabok
jan bear dogula alkar.

Euskaldun eta fededun jakun
gure osozko izena,
orain bakoitzak egin bear dau
deritxon aukeramena.
Jauna, Zeu artu edo ukatu
ai, zelango ondorenal
Argitu gaizuz buru ta biotz,
geitu gure sifismena.

Eleiz ta etxe, erri ta mendi
zenbat fede-ezaugarri!
Euskalerria Jainko-erria
zala zeifiek ez igarri?
Eleizak utsik, biotzak otzik
nor da gaur Zure egarri?
Nun zagoz, Jauna? Nora joan zara?
Ez al gara zure Erri?

Aspaldioko aize gogorrak
astindu ditu tantaiak,
alkarren aurka jarri gaitula
fede bateko anaiak.
Ezin maitatu Jainko, ez gizon;
gogortu jakuz erraiak...
Noiz ospatuko doguz barriro
alkartasunezko jaiak?

Gure Erriko Zugatz-gaiñean
zure Gurutza goiburua,
«Jaungoikoa ta Lege Zarra» da
gure bide ta elburu.
Gure artean, a zer naastea,
zenbat maixu ta liburu!
Barriro be Zeuk alkartu gaizuz
zeure maiaren inguru.

Aita Jainkoa, erruki zaitte
seme-alaboi begira,
seme galduok deika gatortzuz
zeure etxeko atarira.
Gure arteko laifio illunak
geure pekatuak dira,
urratu eizuz t'agertu zaitze
zeurea dozun Erriral

JAINKORIK BA AAL DAGO?

(Doiñua: 1)

UMEAREN ZENTZUNA
ETXEAN ENTZUNA;
ETXE TA KALE, AU DA NAASTEA
IKUSTEN DOGUNA!

Leengo batean gabaz
amaren ondoan,
leku obeagorik
ez dago munduan.
Esaidazu gaur, ama
Jainkorik dagoan...
Amak baietz erantzun
aal eban moduan.

Ikastolara nabil
euskera ikasten,
bañia Jainkorik eta
ez dabe irakasten.
Kontuz ibilli, ume
amak esan eusten,
ardi-narruz otsoak
asi dira naasten.

Jainkorik ez eta bai
neuk sarri entzuna,
mezara noalako
zelango jarduna!
Seme, artu gogoan
gaur diñotzuguna:
Izan beti euskaldun
eta fededuna.

BELENGO IKASTOLAN

(Doiñua: 6)

*Gogorkeri-giro barria agertu jaku. Amorruzko
leenengo txinpartak ikaratu gaitue, odol-txipriztiñak
Gabon-aldiko edurtza zuria gorritzau dabe. Aukera
egokia, fededunok, Jesus Umetxoaren aurrean gure
bizitza ta ingurua argitu ta gozatzeko. Baiña ain sa-
kon sartzeko gogo ta girorik bai? Nok nor eta zer-
gaitik jakinguria geienbat. Alan be, Jesus etorri da-
tor, barrero be jaio egiten da zintzoaren bizitzan,
naizta gero ta ate geiagotan ezetza jaso ta auzora
bialdu. Gizona "bizi barrira" jaio edo eriotz-zulora
bota, ainbestetan Jainkoa jaio eta ilten da. Biziak il
ez, illak biztutera dator; txikiak ta txiroak askatu
ta aberastearren. Bera txiki ta txiro egin... Nai da-
benarentzat eskola ederra; Euki be danok ez dau-
kogu eskola au ikasteko buru tta biotzik.*

Abenduaren ogeitabosta
danon gogoko eguna,
alkarri pozez opa daiogun
bakea ta osasuna.
Jesus gugana dator
jokatu daiGUN jator,
autor daiGUN maitasuna.
Gure aldetik egin daiogun
arrera gozo, biguna.

Au da giroa gaurko munduan
danok izan gura bardin,
txikia gora, aundia bera
onez ezpada, armakin.
Ume txiki eginda,
ezer egin ezinda;
nor dan gura dozu jakin?
Gizon egin dan Jainko Semea
negar ta barre geurekin.

Zenbat titulu, ainbat tutulu
gizonok zenbat dakigun!
Zirti ta zarta, txarto edo ondo
baiña guztiok jakitun.
Lasto-gaiñian bapo
Jainkoa mutu dago,
noizian bein «domistikun»;
or zelan gure jakituriak
ankaz gora jaurtzen ditun.

Oiñez ibiltzen ikasi bear
dana dakian Jainkoak,
ezer ez daki, ezer ezin dau
Belen'go Jesus Aurtxoak.
Eta guk dakiguna...
eta guk daikeguna!
Gu gara izatekoak!
Txiki egina, aundi izaten
ikasi daigun, jauntxoak.

Zoriontsuak izatekotan
diru asko bear dala,
baiña Jainkoa agertu jaku
txiro antzean apala.
Gabon dogu-ta, bonbon,
ez daukanari emon
ta izan biotz-zabala.
Ontasun bako ondasun askok
ondoren txarra daukala.

Jainkoa gizon, aundia txiki
eta txiro aberatsa,
bide ortatik jokaturzea
benetan da bide latza.
Jainkoaren bideak
ez dira, ba, gureak;
au ikastea bai gatxal
Belen'go Ikastola barrian
ikasten jarri, apatxa!

Jo ta apurtu, erre ta austu
onian edo txarran,
aspaldi baten, au dogu lege
gaur gure mundu barrian.
Bigun, samur ta goxo
dogu Belen'go Txotxo,
lolo estalpe zaarrian.
Gizon guztiok askatu nairik
maitasun baten garrian.

Eliz ta mundu, betor iraultza,
ez dago beste biderik,
gogorkeria ta gorrotoa
askok ez dauke besterik.
Zer jazo dan Belen'en
aztertu daigun leenen,
Nun da iraultza oberik?
Maitasunezko iraultza barik
ez da sortuko bakerik.

Irratiz eta telebiziñoz
sekulako barriketa,
norbera gora, besteak beera
au etenbako illeta!
Belen'go aingeruak
darabilen kantaketa:
«Gora Jainkoa, bake gizonoi,
Jesus jaio jatze-ta».

Neguko gaba, otz ta illuna
 baiña izena dau GABON,
 danok argitu ta berotzeko
 Jainkoa egin da gizon.
 Uxatu illun-otzak
 eta gora biotzak,
 bizi barria itxaron!
 Salbatzaillea etorri da-ta
 anaiok, milla zorion!

KRISTAU SENITARTEA

19

The musical score is written on five staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a common time signature (C). The melody is marked with various notes and rests. Chord symbols are placed above the notes: RE, LA7, RE, LA7, RE, SOL, LA7, RE, LA7, RE, SOL, RE, LA7, RE. The score ends with a double bar line and a repeat sign.

**GU GARA KRISTAU-TALDEA
 KRISTOREN SENITARTEA.
 AU ZER DAN ONDO JAKIN EZKERO,
 AUXE BAI DALA SUERTEA!**

Gu ez gara jakitunak,
 ez eta be dirudunak;
 gure indar ta jakituria
 Kristok emoten ditunak.

Gauz aundi ta txiki bardin
 bakoitzak aal duna egin;
 beste saririk ez da billatzen:
 Jaunaren gogo t'atsegin.

Alkartzen gara astero,
 ta jartzen gara ein bero...
 Eliz ta mundu aldatzen dira
 norbera aldatu ezkerol

Batzuk baztarrak garbitzen,
besteak gaixo serbitzen;
oneik kontuak, areik kantuak,
ez da ifior sobra gelditzen.

Ifior ez gagoz gu bakar,
artzen dogulako alkar.
Danen gaiñetik, anaiak gara,
sifiñismenak auxe dakar.


Auxe da gogo larria:
danok nai Eleiz barria...
Orrexen billa gabiltz aspaldi,
bai ekintza pozgarria!

Gu egunero gabiltza
entzuten Jaunaren Itza;
Gorputz-Odolez indartzen gaitu
orra bizitzako giltza!

Emen ez dago esirik,
ez eta aundi-txikirik;
misterio au zergaitik ete?
Kristo daukagu bizirik!

Urri dira merituak,
baiña eurrez sarituak;
Gu argitzen ta indartzen gaitu
Jesusen Espirituak!

Entzun arreba ta anai,
andra ta gizonak be bai:
Zergaitik danok ez gara batzen?
JAUNAK BESTERIK EZ DAU NAI!!!



ILLETA-KANPAIAK

(Doiñua: 6)

«Mundu barrian gizon barria»
esakera biribilla,
gizona beti ibilliko da
gizon barriaren billa.
Asmauala izan nai,
gauza asko euki be bai,
orretan dogu mutilla!
Gaurko gizona illeta joten
dirudi dagola illa.

Au da mundua, dana galdu da...
auxe da gaurko berbeta,
ume ta gazte, nausiak bardin
garratasunez beteta.
Ez dago zeregiñik,
zertako aalegiñik?
Dana da alperrik eta...
Au da gizonak, bizi dirala,
egiten daben illeta.

Jolas ta droga, jan ta edanak
gizonaren atsegiña,
emonak emon, au gizonaren
bete ta ase eziañal.
Milla aurrerapenak,
gure itxaropenak...
eta ezin kendu miñal
Ekin ta ekin, ez ete da au
alperriko aalegiña?

Norbera ona dala jakiañik,
eta besteak errudun,
guztiok ori uste ezkeru,
alkar garbitzera, pin-pun.
Besteai jo ta tiro,
norberagaz astiro;
zer jokera sartu jakun.
Itxura onak egin bai, baiña
beti betozkoak astun.

Gaurko giroa agiri dago
edonungo batzarretan,
dana da txarra, dana alperrik
bardin gazte ta zaarretan.

Birao ta zarata,
zelango zalaparta!
amorruzko sugarretan.
Dana leen baiño txarrago izteko
amabitik amarretan.

Ezker-eskuma ta erdipurdi,
gaur dana da politika;
«ortik ei dabiz, au ei diño»
zelango erretolika...
Tupamaro ta kinki,
asmauala ipinki,
mundu osoa zatika;
Batzuk illeta, besteak maiñak
danak alkarri arrika.

Neguan bero ta udan otz,
Jainkoak be zer ganora!
Dana da aize ta lur-ikara,
dana dabil ankaz gora.
Jainkoa be leen ona,
gaur zapaltzen gizona...
ta zenbat olako lora...!
Otoitzen ordez, gaurko illetan
olakoxeak gogora.

Illeta-maiñak, negar-soiñuak...
nor il da gure artean?
«zorion» barik, alargun dago
gizona bakardadean.
«Zorion» goian bego,
ez da ez emen beko;
euki daigun jakiañean:
Ikusiko aal dogu «Zorion»
betiko zorionean!!!


GAUR GABON GABA

*Alai, argi, bero! Eta au danau Gabon Gabaz?
Olakorik! Baiña ez gero intxaursaltsaz ta paittar
beroz. "Jesus dator gugana". Eta au urtero! Gau ba-
tekoak ez, urte beteko zorionak opa deuskuz Jain-
ko-Gizonak!*

Au da egun alai!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Poztu zaitez anaia!
Gaur Gabon Gaba!
Jesus dator gugana,
goazen gu Beragana.
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur dogu Gabon Gaba!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur Gabon Gaba!

Gaba da, baiña argi!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Dana dago ozkarbi,
Gaur Gabon Gaba!
Negu da, baiña bero,
Jesus jaio ezkeru.
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur dogu Gabon Gaba!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur dogu Gabon Gaba!

Jainkoa geu lez gizon!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gutzat ai zer zorion!
Gaur Gabon Gaba!
Eta gu, barriz, jainko!
Ez aal da zori naiko?
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur dogu Gabon Gaba!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur Gabon Gaba!



ETXEKO IKASTOLAN

(Doiñua: 20)

Ni jaio nintzanean,
alan gura Jaunak,
Errosario-ordua
zala diño amak.
Agur Marika baten
egozala danak,
eskutan artu nindun
nire aita zanak.

Negu ta uda beti
amaren altzoan,
Agur Mari-soiñura
lokartuten nintzan.
Aingeruak burura
etorten jatazan,
soiñu aren neurrira
egitera dantzan.

Danok ikasi gendun
berbetan baiño leen,
Agur Maria buruz
osorik esaten.
Arrezkero gurean
egundo ta baten
Agur Mari-katea
iñoiz be ez da eten.

Iñoiz ikusi dogu
gabaz gurasoa,
oe-gaiflean larri
artu ezifilik loa.
«Umeak, gaur ez dogu
egin gabekoa!»
Jagi ta esan daigun
Errosarioa.

Eriotz-egunean
sei Errosario
esanda lokartu zan
guretzat betiko.
—Aita, naikoa dozu,
ez zaitezan ito!
—Ekin aurrera, seme,
onek ez nau ilgo!

«Entzun seme-alabok,
eta zintzo bete,
aitaren iltamuko
azken borondate:
Errosarioa esan
gabero jai ta aste;
beteten badozue,
agur laster arte!!!».

BILLA TA BILLA

(Doiñua: 30)

*Egia... bidea...! Nok daki egi osoa? Nok egin
dau bide dana? Ibilli ta ibilli, billa ta billa. Baiña
ez nora-ezean, gure artean izan ditugun andra-gizon
aundiak gidari doguzala, batez be Narazet'eko Jesus.
Lorerik lore erlea, aiderik aide txoria, biderik bide
gizona... Norantz? Zeren billa? Zerk eraginda? Ba-
rruko gose-egarriak, guri kristau-siñismenak. Jain-
ko Bera gudan gordeta barrutik bultzaka. "Jauna,
nun zagoz ZU?"*

Billa ta billa dabil
aizea mendian,
billa ta billa nabil
munduko bidean:
Zer da egi? Nun da bide?
Jauna, nun zagoz Zu?
Billa ta billa nozu,
Jauna, nun zagoz Zu?

Billa ta billa dakust
laiñoa zeruan,
billa ta billa daukat
zentzuna buruan:
Zer da egi? Nun da bide?
Jauna, nun zagoz Zu?
Billa ta billa nabil
Jauna, nun zagoz Zu?

Billa ta billa nabil
erlea zalian,
billa ta billa nabil
beti zerbait naian:
Zer da egi? Nun da bide?
Jauna, nun zagoz Zu?
Billa ta billa nabil
Jauna, nun zagoz Zu?

Billa ta billa dantzut
txoria basoan,
billa ta billa jabilt
biotza kolkoan:
Zer da egi? Nun da bide?
Jauna, nun zagoz Zu?
Billa ta billa noa
Jauna, nun zagoz Zu?

Billa ta billa dabiltz
gaua ta eguna,
billa ta billa gabiltz
zu ta ni, laguna:
Zer da egi? Nun da bide?
Jauna, nun zagoz Zu?
Billa ta billa gabiltz
Jauna, nun zagoz Zu?

Billa ta billa dabil
tximeleta landan,
billa ta billa nabil
emen, or eta an:
Zer da egi? Nun da bide?
Jauna, nun zagoz Zu?
Billa ta billa nabil
Jauna, nun zagoz Zu?

Billa ta billa dabil
arraia uretan,
billa ta billa nabil
neu be amesetan:
Zer da egi? Nun da bide?
Jauna, nun zagoz Zu?
Billa ta billa nabil
Jauna, nun zagoz Zu?

Billa ta billa doa
ura ibai-bete.
billa ta billa noa
Zeuganatu arte:
Zer da egi? Nun da bide?
Jauna, nun zagoz Zu?
Billa ta billa nabil
Jauna, nun zagoz Zu?

EUSKAL BIBLIA

(Doiñua: 11)

"In diebus illis". Gogoan dozu aintxiñako ebanjelioaren asiera? Bitartean, pulpitoan eragoian beste batek itz ta bits. Eta Jaunaren Berbea nora edo zer? Lekutako kontu epelal Erri-jendeak irakurtea be galazota eukan ta! Eta Jaunaren Berba orixe izan gure Eleizaren eta kristau-siñismenaren oiñarria... Tira, azken baten be, bagoaz Bibliaz jabetuten. Ona emen Bizkaiko kristiñauok begi ta gogo beteko EUSKAL BIBLIA Kerexeta abadeak euskeratuta, edozein euskaldunek ulertzeko eran. Gabonetan edo edozein egun aundiren baten alkarri opatzeko erregalurik egokiena. Ez gero erakustokian ikusgarrizko pitxi lez eukiteko, atalka atalka irakurri ta eguneroko bizi-tzan bizi biurtzeko baiño.

Oi Euskaldunak, au entzun,
gaurtik zagoze jakitun:
Euskal arloan pitxi eder bat
ona nun agertu jakun:
Kerexetaren Euskal Biblia,
ia zelan artzen dogun.

Euskera Amaren erraiak
agertzen dira ernaiak,
aspaldi baten bada frutua,
milla eratako gaiak;
ona emen gaur EUSKAL BIBLIA
eskeintzen deusku Bizkaiaik.

Jainkoaren Liburua
bide garbi segurua;
arek zuzentzen deusku biotza
eta argitzen burua;
bizitzan zintzo jardun ondoren
nundik nora dan zerua.

Fedearen oiñarria
Jaunaren Itzak jarria.
Gaurko bolaran milla arrisku,
galtzeko une larria;
laguntzaillerik onena dozu:
EUSKAL BIBLIA barria.

Biblia geure berbetan,
pozgarria da benetan!
Arrera ona egin daiogun,
onartu euskal etxetan;
geuretzat dana geuk artu ezik,
ez da sartuko bestetan.

Euskal Bibliak diñona
gizonarentzat da ona:
Zelan Jainkoaz egin bear dan
maitezko artu-emona,
eta alkarren lagun izanik
zelan lortu zoriona.

Ez gero euskal etxerik
EUSKAL BIBLIA gabarik!
Euskaldun eta fededun danak
ez dauka beste biderik:
Bere etxean EUSKAL BIBLIA,
ez dago gauza oberik!!!



JAUNGOIKORIK EZI

(Doiñua 3)

Jaungoiko-billa ibilli dira
gure Titov ta Gagarin,
baiña ez jake iñon agertu,
autortu deuskue arin.
Alperrik Kruxev, kazari zaarrak
bide danak ondo jakin,
zer arrapauko dau, arraztoa
galdu daben txakurrakin?


Asmau ba dabe, asmauta dago
espunit edo kankarro,
zerbaiten billa, jira ta bira
or dabil gizona arro.
Jaungoikoaren billa asteko
a zer mamu kokomarro...
orretarako geiago dira
txepetx edo biregarro!

Esaten asi ezkeru, esan
eurak lez geuk be edozer,
olan jarraitzen badogu danok
illargian gara laster.
Baztarren bat or joten badogu
orduana nora edo zer?
Jainkoa barik, ikusko doguz
illunetan milla izer!

Ikusten danez, Jaungoiko-billa
asi jakuz gaur gizonak,
baiña daukezan asmo ta lanak
ez dira danak ain onak.
Ori zelan dan ondo diñosku
gure esaera sakonak:
Kristoren billa doazen asko
datoz artuta «kristonak»!

Jaungoikoaren billa joateko
leendik dakigu bidea,
danen gaiñetik bearrezkoa
dogu kristiñau-fedea.
Alperrik dozu espunit baten
sartuta urrin joatea,
barrua utsik dozun artean
oker zabiltz, aixkidea!

Ainbeste neke ta astrapala,
zetan zoaz urrutira?
Jaungoiko-billa bazabiltz, sartu
or zeure biotz-erdira.
Orretarako betaurrekoak
marka ona bear dira:
biotz-garbi ta apalak izan
eta fedezko dizdira.



BELENGO MUNDU BARRIA

(Doiñua: 7)

Gabon Gaba dogu ta
 aupa kristiñauak!
 Ankaz gora dabiltz gaur
 aideko munduak.
 Trukau dabez lekuak
 mundu ta zeruak,
 alkarraz trikitian
 gizon ta aingeruak.

«Bonba Atomika» bat gaur
 jausi da Belenen,
 danok dakigu ortik
 zer etorri leiken.
 Gizonak askatu ta
 kate danak eten;
 Olan jaio zan Jesus
 neguko gau baten.

«Satelite» barri bat
 or dabil aidian,
 eta gizonak estu
 beraren atzian.
 Belenen gelditu da
 txabola-gaiñian,
 geuri erakusteko
 Jesus non jaio dan.

«Turroi» bat jausi da gaur
 zerutik lurrera,
 aingeru danak datoz
 gosez Belenera.
 Aldarean daukogu
 axe Jesus Bera,
 etorri, kristau danok
 artu ta jatera!

«Loteri» ederrena
 or daukozu salgai,
 Belengo estalpean
 merke eta noiznai.
 Ori zer dan bazenki,
 artuko zeunke, bail
 Arin ibilli zaitez,
 bestelan dago jai!!!

«Irrati» barri bat nok
erosi nai leuke?
Belenen sortu da bat
onena ta merke.
Jesusen berbeari
adi egon zaito,
eta zeruko barri
ondo jakin zeinke.

«Iretargi»-gaiñera
igo nai badozu,
ixkillara onena
Belenen daukozu:
Maria da ixkillara,
iretargi Yosü;
amagana joanda
paa bat emoiozu!

MAITE ZAITUGU, JESUS!

(Doñua: 12)

Gaur dana da: "Nik maite zaitut". Berbaz beintzat! Orma gaiñetan eta zugatz-gerrietan amaika zirraborro agertzen jaku, "biotzez" beterik... Eta gu, kristiñauok, Jesus Onari onenbeste esateko, lotsatu edo. Esan bearrik be ez dagola, diñoe. Jum, bai biotzean ugari ba lego! Orduan bai ez legokela esan ta agindu bearrik. Lapiko irakiña laster lurrunetan, gaiñezka egin eta plast! gaiñeko txapela be kanpora. Leenago orrelako sermoi, abesti ta bertsorik ba zan. Eta gaur?

Gurutzaren oiñetan
nago gaur negarrez,
Jesusen maitasuna
azaldu bearrez.
Egurrari josita
iru untza zakarrez,
berrerosi nai gaitu
oiñazen indarrez:
urkamendian dago
geuri deadarrez.

Zerutik jatsi jakun
Jesus merkatari,
tratu bat egitera
beeko gizonari:
Gure obenen orde
truk grazi ugari,
gu santu biurtuta
Bera pekatari...
gu berbiztutearren
Bera il zan opari!

Mundua egiteko
naiko zan berba bat:
eskuak zabaldua
esan eban «fiat».
Baifia zerurik ez zan
gure arimentzat,
Jainkoa il ezpalitz
pekatu-ordaintzat;
anaioak, mesede au
artu daigun aintzat!

Kalbario-mendian
daukogu eskola,
gure Jesus gurutzan
zintzilik dagola.
Zabal dauko biotza
maitasun-kaiola;
bertatik dariola
burburka odola:
arimak garbitzeko
a zer uriola!

Berrerosiak gara
ez urrezko diruz,
ezpabere Jesusen
odolaren puruz.
Milla deabru gaizto
gau t'egun jabilkuz
nondik zelan galduko
arimak pekatuz.
Asko balio dau ta
zaindu daigun kontuz!

Maite gaitu Jesusek
ezin geiagoan,
begiratu bestelan
non zelan dagoan:
gurutzan zintzilika
odol-txirrioan...
Jesus maite ez dabenak
aai daben giñoan,
biotza barik, dauko
arri bat kolkoan!

Ez deusku Jesus onak
ezer be ukatu,
odol-tantatxorik be
ez jako geratu.
Onenbeste jakinda
nok egin pekatu?
Nok emon ez Jesusi
Berak zer eskatu?
Jesus ukatu baiño
leenago urkatu!

Geuri deika daukogu
Jesusen gurutza,
deika bere zigorrak
arantza ta untza.
Zauri-agoetatik
deika bai gorputza,
deika bere aienak
deika eriotza:
maite maite daigula
Jesusen Biotza!!!

12

GABON-ABESTIA

(Doña: 12)

Etzerik etxe gatoz
 auzoko gaztiak,
 kanta kantari pozik
 Gabon-abestiak.
 Kendu daiguzan negar
 ta kontu tristiak,
 eta poztu zaitze
 etxeko guztiak;
 entzun Belen aldeko
 barri albistiak.

Belenen jaio da Jesus
 gizonen pozgarri
 Jaungoikoa gizondu
 a ze miragarri!
 Jainkoa ta gizona
 lotuaz alkarri:
 askatzera jatorku
 kate ta lokarri,
 eriotza kenduta
 bizia ezarri.


Gizonaren bizi
 bizi astuna,
 neke ta grifa txarrez
 zapaltzen gaituna.
 Laguntzera jatorku
 Jesus gure Jauna,
 Bera da gure indar
 eta osasuna,
 emon nai deusku bizi
 ta askatasuna.

Ai, Belengo Jainkoa
 umetxo egifa,
 danetan izan nairik
 gizonaz bardiña!
 Ai, anaitasunaren
 izenaren fifa!
 Ez litzake guretzat
 izango ezifa,
 Belengo Ikastolan
 eziko bagifa!

Jainkoak maite gaitu
 amarretik amar,
 orra Jesus Belenen
 billosik ta dardar.
 Maitasun, konfiantza,
 alkartasun ta abar...
 Gaurko gizon aundiak
 buruz dakigu lar,
 Jaunak diño: Biotzez
 maitatzeko alkar.

Aintza Jaungoikoari
 gizonari bake,
 Belengõ aingeruak
 dabiltza jõ ta ke.
 Zabaldu alkarreri
 biotz eta ate,
 ez ukatu iñori
 aal dan borondate;
 zorionsu gaitezen
 bardin zaar ta gaztel

Aterik ate gatoz
 artu eta emon,
 Jesusen izenian
 guztioi Zorion!
 Ba dakizue nonai
 zenbat txiro dagon;
 Eurentzat batzen dogu
 gauza edo txanpon;
 eurak eta guztiok
 izan daigun GABON!!!!



MENDIETAKO GURUTZAK

(Doiñua 3)

Begira zutik mendi-gaifietan
 fede-ikurrin argiak,
 gure Erriaren ezaugarritzat
 danen begitan jarriak.
 Jakin dagigun gero jaiokak
 edo onuntz etorriak,
 bere siñismen ta oiturak
 ditula gure Erriak.

Eleiz aundi bat dala dirudi
euskaldun erri osoak,
mendietako gurutzak dira
itxuraz kalbarioak.
Gurutza utsak dira burdiñez,
guk izan bear kristoak;
fedearrez bizi ezkerok,
ze egi pozgarrizkoak!

Ortxe zagoze mendi-gaiñetan
gure biotzen pozgarri,
eguneroko neke-lanetan
bake ta indar-iturri.
Gau illunetan dizdizka argi
ta ekaltzetan euskarri;
gure guraso onak zaitue
or zorionean jarri!

Anai-arrebok, zutik daukoguz
gure fedearriñak,
aintxiñia baten fedez jarrita
gure guraso ain fiñak.
Euren fede ta oiturak gorde,
kendu oker ta zikiñak,
bestelan laster doguz barrero
gurutzen orde zorgiñak!

Otoitzka gagoz zuen aurrean,
mendietako gurutzak!
Zuen zerutar indarrez sutu
gu euskaldunon biotzak.
Oztu ez gaizan etorri jakun
fedearrezko izotzak;
danok indartu gaizala zugar
il Zanaren eriotzak!

BETIKO EGIAK

(Doiñua: 3)

*Bai, betikoak! Era batera edo bestera esanda,
baiña barruko mamia beti egia. Leenago beti ola-
koak erabiltzen genduzala? Ba leiteke; orain gitxiagi
edo bapez. Esateko lotsa edo entzuteko otza! Dana
dala, bildurrez bada be, alkar ilteak edo lapurretak
kentzen edo gitxitzen baziran, zorioneko "betiko
egiak"! Millaka bertso-papel zabaldu nebazan Biz-
kaiko errietan, mixiño-egunak zirala ta, eta baita
gogotsu abestu be gizonak eleizan eta etxean. Ez
daigula aaztu: "Betiko egiak, egiak betiko".*

«Aitaren» bat eginda nator
Gaur bertso barri-kantura;
Zeruko Aita, emoidazu Zeuk
Argi pixka bat burura.
Galduta gabiltz, anai maitiak,
Pekaturatik pekatuta.
ez daigun aaztu zetarako bein
Etorri gifan mundura.

Ezerezetik atera gaitu
Zeruko Aita Jainkuak,
Geurerik ezer ez dogu, bape,
Izan ezik pekatuak...
Guztiok gara, gorputz ta arima,
Jaunaren errenteruek;
Kontu zorrotza ordainduko dau
Inpernuetan gaiztuak!

Mundura sortu garean danok
Ordutik betiko gara,
Alper-alperrik burua bota
Ernegauta errekara...
Gorputz ustela lurpera doa,
Baifia arimak egara!
Gura ta gurez, txarto edo ondo,
Baifia danok goaz ara.

Urre gorria ederra bada,
Ederrago da arimia,
Amaika santuk emonda dauke
Arimen alde bizia!
Jesus Jainkoak gurutze baten
Ixuri odol guztia...
Zoro ez danak kontuz gorde bei
Ain gauza maitagarria.

Diru ta moda, ori da lege
Gaur bizi garan munduan;
Itxura onak egin ezkeroz,
Ez da besterik goguan!
Gorputzak eder, arimak ilda,
Arrokeria buruan...
Bakerik izan ete leiteke
Lotsarik ez dan lekuan?

Oillo bat galtzen danean estu
Ibiliten gara gauegun;
Pekatuz galdu arren Jainkoa,
Ez da izaten ezagun...
Alkarren leian pekatugifien
Edonoz eta edonun!
Damu gaitezán, bestela laster
A zer zigorra jatorkun!!!

Batzuk jaioten, besteak ilten,
Orra munduko kontua,
Guk uste baifio urrago dauko
Kumiak kanposantua.
Ardau ta koipe, arimen kaltez
Gizendu gorputz gaiztua;
Basa ta buztin biurtuko da
Arren janari goxua!

Utsik etorri gifian mundura,
Eta utsik urten bear;
Orra zetara datozan gure
Munduko neke ta bear...
Grazia baifio besterik ezin
Eroan geinke an zear;
Gaurtik arima aberastu daigun,
Belu izango da biar!

Bidean dator bakotxarentzat
Eriotz-ordu illuna,
Non, noz ta zelan ifok ez daki,
Au burukomin astuna!
«Gabaz lapurra lez elduko da»,
Jesusek esan deuskuna.
Ori jakinda, ona ez banaz,
Zetarako dot zentzuna?


Bonba Atomika txarrena dozu
Pekatua biotzean,
Amaika galdu ditu betiko
Bera daukela iltzean...
Inpernu sakon, kartzela illun,
Negar txillio bizian!
Pekatu zer dan ikasiko dau
An Luzipperren menpean!!!

Kontuz ibilli gaitazan emen,
Bestela gero negarra.
Urte gitxiko atsegin-ordez,
Betiko erre bearra...
«Errez betiko salbau neinteken,
Eta au nire zoritxarral»
Ori izango da inpernuetan
Mingarriena dan arra.

Bide-gurutz bat da eriotza,
Izenez «bidebieta»,
Danon aukeran bide bi dagoz:
Ezker eta eskumeta.
Itzartu zaitez, anai maitia,
Okerretik zoaz etal
Jausten bazara, ez da egundo
Jasoko ango kisketa!!!

Jesus Jainkoak emongo deusku
Merezi dogun epaia,
Inpernutarrak negar garrasi,
Santuak kantu alaia.
Azken agura alkarri eginda,
Bakotxak bere bidia!
Santuak goian, gaiztuak bean,
Orra munduko amaia!!!

Buruak gora jaso daiguzan,
Begira zeru urdiña,
Neure anaiak, geuretzat dauko
Jainkoak ori egina.
Su ta gar baten, an sartu dira
Milla martiri, birjina...
Jagi ta bixkor merezi daigun
Bakotxak koroï bardina!!!



«ANDRA MARI-ERRIA»

(Doiñua: 7)

Gaurko kantura dakart
bertsogai barria,
zu zara, Andra Maria
Ama maitagarria.
Esan bear guztia
itz baten jarria:
«Euskalerria edo
Andra Mari-erria».

Arantzazu Gipuzkun,
Begoña Bizkaian,
Estibalitz Araban,
Lurdes Lapurdian.
Uxue Naparroan,
Zaindari-antzian;
Andra Maria-Erria
auxe da egitan!

Udiarraga, Aiala,
Arrietan Yainko;
Andikona, Ergiña,
ez aaztu Angosto;
Ondarru ta Orduñan
bi Antiguako;
Bertsoan tokirik ez
zuretzat Ezkio...

Guadalupe, Arrate,
Larraitz ta Dorleta;
Izaskun ta Itziar,
Arritokieta;
Ibarbe, Ulibarri,
Urrategi eta...
auxe da benetako
«Andra Mariketa»!

Andra Mari-eleizak
or-emen ugari,
erri aundi ta txiki
danetan zaindari.
Zelaian ta mendian
dizdizka gidari,
gure Erriko AMA
zara Andra Mari.

Baseleiz txiki, txuri
ikus urrutikan,
begiak dirudie
mendi-gaillurretan.
Erriaren begiak
ditugu benetan,
gora begiratzeko
sifismen-argitan.

O Euskalerrria, jo
zure goi-bizira,
orra nondik jatortzun
eguzki-dizdira.
Andra Maria antxe
daukozu begira,
bizi nai badozu, jo
indar-iturriral

GARIZUMA TA «MIXIÑOAK»

(Doiñua: 29)

Garizuma, "mixiñoak", bizitza aldatzeak, alkar-izketa sakon ta baketsuak... Orretarako ez dago astirik gaur! Ortik ez dator irabazirik! Aurreragokorik bada, mutill Datorren urtean asti geitxoago izango dot bear bada. Atxaki-matxakiz, tranpa askotxo dakiz...

Leengoa ta gaurkoa alkar-burrukan, egoera barri baten sartu gara, nai ta ndiez. Etxe, auzo, erri batekoak gaur ez dira bat gauzarik sakonenetan, eta gero ta gitxiago. Gurasoak Eleizeak, agintariak, legeak, tradiziñoak... galdu dabe leen euken batasunerako indarra. Baiña txarrena, norbera norbere barruan be zatituta egotea eta bateratzeko astirik artu ezin! Mixiño edo okaziño bearko dogu, gizon izateko, sikiran!

- Aixkide nora zoaz bidean berantza?
- Mixiñoak dira-ta banoa arantza.
- Arazo orreitan gaur ez da zetan kantza.
- Zuk be artu aal dozu jentillaren antza?

- Eleiza-kontu orreik alperreko lana.
- Gogoa zelakoa alakoa jana...
- Alkar maite ezkeror txé dago dana.
- «Ezkeror» difiostazu ai, ene laztana!

- Naiko da ona izan ta zintzo jokatu.
- Ori gutzat gatx dala ezin lei ukatu.
- Ta egin ezin bada zetan arduratu?
- Egin aal izateko goi-indarrak artu.

- Orretarako, lagun ez daukat astirik.
- Ai, gogozko lekuan ez dago sasirik.
- Baiña gauza orreitan ez da irabazirik.
- Jan-edanak bakarrik aal dauka grazirik?

- Naiko lanik daukat nik ogia irabazten.
- Ogi utsez gizona ez da ondo azten.
- Zetan asiko gara orain gauzak naasten?
- Edo naastuak zelan zuzendu ikasten.

—Leengo gure dotriñak
kontuak ei dira.
—Guztiontzat obeto
ai, olan ba lira...
—Abadiak eurak be
zenbat jira-biral
—Onerako, ez egon
iñori begira.

—Ez dago ori modan
gaur Euskalerrian.
—Aspaldiz modan gabiz
bide okerrian.
—Gaurko aurrerapena
dago tallerrian.
—Olan burdindu gara,
gizondu bearrian.

—Joan ziran betiko
Meza ta Mixiño.
—Fededun zintzorik be
badago oindiño.
—Leengora biurtzeko
maixu askok diño.
—Orduan, gizon barik
gaitezán tximiño.

—Jainkoa ona dala
danok diñoguna.
—Beraz, on izatea
gure erantzuna.
—Ondo dakigu Berak
parkatzen deuskuna.
—Ta pekatuan jarrai?
Ori bai aztunal

—Biar ezpada etzi
joatekotan nago.
—Ta beti joatekotan,
untzia or dago.
—Benetan gura neuke
il baño leenago.
—Orduan, biar baño
gaur da ziurrago.

—Amaitu daigun gaurkoz
onez eta bakez.
—Asmo txarrez, aixkide
ez dot esan bapez.
—Esana artu deutsut
neuk be borondatez.
—Agur, ba, gero arte
ta etorri zaitez.

—Aurten joatea, lagun
nirentzat eziña.
—Beste gauza askotan lez
egin aalegiña.
—Zergaitik gaurko zure
ezten ta ekiña?
—Entzu nondó: «Eziña,
ekiñaz egiña».

GABON, MIXIOLARIAKI

(Doiñua: 11)

Artu-emon, ori da zoriona, orixe da gizona. Artuak emona zor, eta emonak zer? Zor jakuzan danak emen artu ezker be, gero zer? Orixe dala dirudi mixiolarien jokabidea. Badira ortik zear makiña bat euskaldun seme-alaba erein ta erein, batzakoaren zain egon barik. Batu be egiten ei dabe. Jakiña, arrain orreik arrapatzeko sarea zabal ta sakon bota bear dok; mutill "Gordeaz galdu, galduaz gorde"... joko au ikasteko Jaungoikoak argi!

Agur anai euskaldunak,
mixiolari lagunak!
Zorionezko anaiartean
ospatu Gabon egunak!
Zuek eta gu poztu gaizala
Belenen jaio jakunak.

Eroan eta ekarri,
artu-emonaz alkarri;
orixe dogu mixiolarien
eginkizun goragarri.
Euskalerriko mixio-lanak
danontzat dira ongarri.

Batetik aurrerapena
ta bestetik siñismena,
Euskal Erriak eskeintzen dauan
bere fruturik onena.
Baifia ete da askoz geiago
ortikan artzen dabena?

Sosegu eta patxara,
ezergaitik bez ikara...
Mixiotako jende umillak
bizitzen daki erara;
ikasi daigun au Euskaldunok,
onen bearrean gara!

Euskaldunon Mixioa
eta ebanjelioa:
or eta emen esan bearra
gizonaren balioa...
Ez dakigula ifioiz be sortu
euskaldun dan «indioa»!

Asko euki, geiago nai,
bide ortatik dago jai!
«Gordeaz galdu, galduaz gorde»
Jesusen itzari jarrai;
artu ta emon, au da legea
danok izateko anai.

Agur Mixiolariak,
zuek bai jokalaria!
Artu euskaldunon ZORIONAK
gozo, bero, ugariak...
Eta onetsi gaizala danok
Begoñako andra Mariak!!!

EUKI ALA IZAN?

(Doiñua: 22)

*Zetan ete dago gizonaren neurria: izatean ala eukitean? Kulturalan eta bizimoduan izan doguzan maillak igon izan bagenduz gizatasunean, a zelako tantaiak gaur gure artean! Euskalerrian kontsumo-
indarrak iruntzi dau espiritu-bizitza. Ikusiak ikusi, askoren kezka: txarto ta guzti be, ez ete gengoan leen obeto, gizatasuna ta kristautasuna gogotan artuta, jakiña? Zer deritxazu: "Ainbeste gauza bear ete dogu gizon izateko? Plaza ederra gaurko mundua, bakotxak bere abildadiak agertzeko! Larregi ezpada, ze balore jarten dogu gaur gorengo maillan? Zein gizon da gaur aundi gure artean? Daurkan eta dakian gizona ala GIZON DANA?*

Urte zaar bat azkenetan,
ain zaarra dago benetan!
Baia ez goaz, zaarra dala ta
astera txantxetan.
Naiz pozik ta naiz mifetan,
lotan naiz arifieketan...
tiktak-otsean sartuko gara
gu Gabon Zaarretan.

Bateko edo besteko
gauza asko egiteko;
arrapastaka gabiltza danok
jantzi ta jateko.
Esku bete ogerleko,
eta geiago baneuko...
Ainbeste gauza bear ete da
gizon izateko?

Erri ta Eleiz-arduraz,
biak gaur barriztu guraz:
ekin ta ekin, azkenean zer?
diñogu tristuraz.
Ez aal ditugu menturaz
ormak egiten auts-uraz?
Gogo zintzoa aalegifiagaz
naiko da, itxuraz.

Oi Belengo ikastola
ez daigun aaztu ifiola;
alako maixu gitxi dago gaur
ta ixillik dagola.
Zenlangoa dan arbola
frutua be ala-ola;
fintzen bagara, orduan bai au
pozezko kaiola!

25

The image shows a musical score for a piece titled 'URTE SANTUKO GURUTZ-BIDEA'. The score is written on ten staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a common time signature (C). The music consists of a single melodic line with various note values, including quarter, eighth, and sixteenth notes, and rests. The piece concludes with a double bar line.

URTE SANTUKO GURUTZ-BIDEA

URTE SANTUA DOGU
 AURTENGO URTEA, (bir)
 eta egin berra:
 adiskidetzea.
 Danok gura doguna
 poza ta bakea,
 baiña ibilli bear
 ain bide luzea...
 Bake-bidea beti
 da gurutz-bidea. (bir)

Pilatok agindua:
 «Jesus gurutzera»,
 Jesusek onartzen dau
 betiko antzera.
 Erri-salbatzailleak
 berbaz asko gera,
 baiña gurutz-bidean
 geienak atzera...
 Besteak salbatzeko
 ii bear norberal

Gurutza beti dago
 bat edo bestea,
 bera zelan artzen dan
 or dago untzea.
 Maitez besarkatzen dau
 Jesusek berea,
 guri erakutsiaz
 gorako bidea,
 Gurutz-bidea dogu
 bide-gurutzea.

Aalguztiduna jaku
 geuganañño jatsi,
 olan gurutzak aal dau
 lurrera eratzi.
 Ezifiaren aurrean
 Jaunak irakatsi:
 Makalean dagola
 Jainkoaren grazi.
 Zintzo iraun ezkerro,
 baietz irabazil

Gogoan artu Jesus
eta bere Ama,
gizartearen alde
zer neke ta lana!
Kritika ez da naiko
ez berba labana,
erria salbatzen da
egiaz aal dana...
Gizonagaitik ez da
zetan itxi Jauna.

Or dator Zirineo
lanetik etxera,
eta beartzen dabe
Jesus laguntzera.
Gure gizontasuna
neurtzeko aukera:
gurutzedun bategaz
artzen dan jokera...
Ustegabeko ori
dogu Jesus Bera!

Gurutz-bidean gora
nekez eta miñez,
gizon-antzik ez dauka
arpegi zikiñez.
Nok iraindu ba dago
ta lagun fiñik ez,
asko pozten diranak
ifloren samiñez...
Beronikak jartzen dau
Jesus atsegiñez.

Jesus iltzera doaz
bere erritarrak,
milla mesede ordez
milla esker txarrak.
Aixkideak banandu,
apurtu batzarrak;
orra nora doazen
gaur gure indarrak!
Aixkidetu gaitzean
leengo lagun zaarrak!

Zotiña ta illeta
badatoz bakarrik,
gizon minduarentzat
oi dira alperrik.
Jesusen esakerak
ba dauka zusterrik:
«Ekintzarik ezpada
ez egin negarrik»!
Jokatzeko orduan
ez dago paparrik!

Ibilli ta ibilli
beratzigarrena,
Jesus zeatz lur jota
gizon ederrena.
Ordun errez artzen da
biderik txarrena,
obe da aztertzea
Jesusen barrena:
Lerrenak egiaz bat,
Aitari arrena.

Iñor jantzitearren
norbera billostu,
salbatzaille izateak
bizitza mingoztu...
Ez, Jesusi ez deutso
iñork ezer ostu,
Berak emon egin dau
ta gu bizi-poztu;
guk alkar maitatzeko
bidea damosku.

Untza, maillu, ezpata,
negar ta odola,
bizia maitasunez
borbor dariola...
«Jainkoak seme badau,
lagundu daiola»,
Jesusek: «Aita, parka,
ez galdu iñola»!
Biolentzi-zaleok,
or dogu eskolal

Gurutzan dindilizka
Jainko Seme bakar,
zeru-lurrari zelan
ez eragin dardar?!
Zintzotasunak auxe
geienetan dakar:
Indarrean gaiztoak
irabazi bear...
Olakorik jazo da
makiña bat bidar!

Gurutzetik jatsita
Amaren besotan,
urtu leio bateri
biotza malkotan.
Agertu izan jaku
Ama au askotan,
bakeak egin nairik
millaka golgotan;
Adiskidetu gaizuz
Ama, oraingotan!

Jesus lurpera dabe,
amaitu da dana;
jakin nairik gabiltza
non dan Jesus zana.
Ez da alperrik izan
aren neke lana,
Berari esker dogu
zeru eder bana,
**BETIKO BERBITZU DA
JESUS GURE JAUNAI!**

EREIN ETA EREIN

(Doiñua: 22)

Aratualdi ederrak emon genduzan sasoi baten ortik zear. Gogoan dozue? Azi edo aza, baiña erein bai, kontxo! Zer geratu dan? Ori bakoitzaren kontu. Or dira eleizpetan, bide-gurutzetan eta eleiz-barruetan Pasiotarren ainbeste "mixiño-gurutzak". Bertso oneik irakurri edo abesterakoan, egun areik gogora daiguzala biok, orduko asmo ta giroak barriztuaz.

Ba dator udabarria,
betor ondo etorria!
Biotz-gogotan sortu t'erne da
bizitza barria.
Beti gora egarria,
au bai dala pozgarria!
Oraindik gaur be Jaungoiko-zale
da Euskalerria.

Igorre, Euba ta Pikan,
bardin Mungi ta Gatikan;
leengo oituraz, fede sendoa
dago oraindikan.
Nabarniz eta Gabikan,
Ereñon eta Muxikan,
kristau zintzoak dirala, ez da
zetan esanikan.

Bedia, Gizaburua,
Billaro, Berriatua,
Errigoiti eta Murueta
gernikaldekua.
Zeberio-ingurua,
Erletxe biotzekua;
orra esanda Pasiotarren
mixiño-lekua.

Laukiniz, Garai, Gollibar,
Elorrio ta Zaldibar:
ez dira utsak izan zuentzat
gure ainbat didar.
Batzutan pozez irribar,
negarrez amaika bidar...
Bedeinkatuta geratu dira
etxe, erri t'abar.

Anai-arreba euskaldun,
entzun zer lege daukagun:
guraso zaarren antzera izan
«euskaldun fededun».
Izan bake ta osasun,
adiskide ta ezagun;
bide onetik jarraitu beti,
Jaungoikoa lagun!

Agur zaar eta gaztiak,
agur umetxo maitiak!
Osasun bakez gorde zaizela
Jesus ta Mariak.
Esker bero ugariak
eta betiko sariak
opa deutsuez biotz biotzez
MIXIOLARIAKI!

GURUTZ-BIDEA

(Doiñua: 12)

Gurutzea, neke-lorra, bizi-eziña, laneza, alkar-zapalketak... Gitxitu bearrean, ugaritu, Zirineo bat agertzen daneko, amar milla borrerol Gurutzerari ori! Nor? Tribunalak nunai; errudunak, erreskadak... "Zer deritxazue"? —Gurutzerari, kartzelari ori!" Bizi zor dau". "Erbestera ori!" "Kendu daukazan danak orri!". Zer, lagun, olan da ala Belgika? Kontu oneik zer zerikusi dauken Jesusen Gurutz-bideagaz? Ori zeuk ikusi: Jesusen lekuan ipiñi egizu alako edo olako lagun urkoa eta aregaz zer, orixe Jesus Beragaz.

Emen nator, o Jesus,
Zurekin batera,
Kalbario bidea
gogoz egitera.
Beti gora begira
Zerorren antzera,
jausi-jagika nator
baiña beti aurrera;
Kalbarioan gora
zeruko atera.

Ene Jesus, ori da
Gurutze astuna,
nire pekatu-ordez
Zuk artu dozuna!
Betozenaigabe, neke
ta samintasuna;
negarrez boaz nire
gaba ta eguna,
baiña-ta bego nigan
zure maitasuna!

Gogo bero dago,
aragia argal,
lurrera jausten zara,
orren zagoz makal.
Burua jaso arren,
aragiak zapal;
bere bildurrez nabil
gau ta egun dalda!
arren, zaindu naizula
eske nago apa!

Gurutzepean zoaz
ia lertu bearrez,
eta orra nun Ama
jatortzun negarrez.
Ama negarrez eta
Zu, Jesus, tatarrez...
Banator laguntzera
«Damu dot» didarrez,
zuen negar-bidea
neu naz zoritxarrez!

Simon Zirineo ori,
nora oa igesi?
Jesus'ek laguntzerik
ez al jok merezi?
Nire indar apurrak,
ene Jesus, eutsi!
Neu bear ba ninduzu
biar edo etzi,
zeurea nozu, Jauna,
Zu nire Nagusi!

Nekez ta lorrez zoaz
jausi ta jagika,
batzuk biraoka ta
besteak arrika.
Nire auzo, errian
olako amaika...
Zergaitik Zutzaz bildur,
lotsaz ta tatika?
Gaurtik Zuretzaz, Jesus,
neu naz Beronika.

Barriro jausi zara,
o Jesus laztanal
au da gorroto deutsun
munduaren lana.
«Munduarekin kontuz»
da zure esana,
Benetan da guzurti,
naastu ta labana,
zaindu naizula, arren,
nator gaur Zuganal

Gurutz-bide erdian
auxe entzun bear:
«Jerusalengo alabak
egizue negar,
pekatuak niretzat
eriotza dakar...».
Sarritan il zaitugu
lagun edo bakar,
gaur Zuri parkeskatzen
artzen dogu alkar.

Orra lurra jo dozu
au da irugarren,
kontu, sarri jausteak
zer frutu dakarren.
Gero ta errezago,
au bai dala txarren.
Barriro ez nadilla
jausi, Jesus, arren;
itxaropen onekin
jagi naz pozarren!

Ikus, Jesus maitea,
goi ta be billotsa,
ainbesteren aurrean,
ai zelako lotsa!
Eta egarri bazara, aor
ozplia mingotsa...
Olakoa izan jatzu
maiz nire biotza;
Arren, erruki gutzaz,
Jaungoiko Bildotsa!

Egun oni begira
beti zengozan zai,
orra luze jarrita
Gurutza zure mai.
Gure pekatu-ordez
Zu zara opa-gai;
Ordua etorrita
esan zenduan: BAI!
Esku-oiñak josita,
miñez diñozu: AIIII!

Agur Jesus laztana,
 Gurutzean zintzil,
 zure aurrean nago
 auspez eta ixil.
 Lapurraren antzera
 emen naukazu umil;
 Barrero pekatuan
 jausteko banenbil,
 arren, eskatzen deusut
 leenago bertan !!!

Doloretako Ama,
 nai zaitut agurtu,
 eta zure ondoan
 damu-miñez urtu.
 Orra nik Jesus zelan
 deusudan biurtu...
 Zigor, arantz ta untzez
 goitik beera apurtu;
 ai, ene Ama ona,
 ez ni umezurtu!!!

Ilda sartu zaitue
 gorpu artzuloan,
 Jesus, Zuk maite nozu
 ezin geiagoan.
 Entzun Zuri begira
 batek zer diñoan:
 Jesus maite ez dabenak
 aal daben giñoan,
 biotza barik dauka
 arri bat kolkoan !!!



GORA KRISTO ERREGE!

(Doiñua: 15)

Etorri jakun Jesus Jainkoa
 zerutik gure ondora,
 mundu guztia bere zain eukan
 nok daki zeinbat denpora!
 Batzuk beeraka artu eben ta
 besteak txaloka gora;
 Errege barri au ezin jarri
 gu bakoitzaren gogora;
 Neuretzat ondo badator, betor
 bestela, ospa kanpora!

Orra non egin jakun Belenen
 gure Jainkoa mutiko,
 bere aurrean millaka daukoz
 anka bat az belauniko,
 eta besteaz jo ta ke dagoz
 lagun urkoari ostiko.
 Itxura baten, danok dituzu
 erromatar katoliko,
 Jesus onekin kokomarroka
 alperrik abil, lapiko!

Batzuk diñoe Jesus Jaun ori
dala errege urria,
sal-erosiko gauzai lez jarri
deutse dirutan neurria.
Jesusen lagun egiten da gaur
aberats jaun biurria,
eta zergaitik Jesusen aurka
dago ezeuki murria?
Zeinbat aixkide izango leuken
baleuka diru-iturria!

Beste batzuek gurago dabe
Kristo errege ezpatia,
Gora Kristo Erregel esanda
anaiak ilten joatia.
Bere bitartez ta atxakian
eurak artzeko zatia...
Norbera ondo dala, besteak
izan daiela kaltia;
Kristo Errege dan bitartian,
neu naz bere alkatia...

Gaurko munduko askorentzat da
Jesus errege kopia,
alan dala ta, ezarten deutse
eurak nai daben modia.
Berba labanez, emon nai deutse
aundikiei lez koipia,
eurena egin aal izateko
badabe naiko kopia;
ez uste gero Jesus au danik
ain errege arlotia!

Baiña gizonik geienentzat da
Jesus errege bastua,
askoren ustez bardin deutsona
garia zeinda lastua.
Gorputzen onez dana gitxi da,
ba dago naiko kastua;
urtean beingo lana da sarri
geure arimagazkua,
Jesus Errege onen neurria
ez da gero gomazkua!!!

Ez da egundo mundura sortu
Jesus lako erregerik,
bere indarra daukonik ez da
izan ifortxo besterik.
Goiz edo belu, bere eskutik
ez dago iges egiterik;
Zintzoarentzat zerua dauko
zoriontasunez beterik,
eta inpernua gaiztoarentzat
bake zorion gaberik.

Belengo Jesus onen jaiotza
ospatzen gagoz urtero,
eta errege dala dakigu
umetatik arrezkero.
Etxe askotan atontzen jako
kumatxoa bero bero,
eta gaixo ta gosekillentzat:
alde emendik azkar, gero...
Orrein Errege, Kristo barik da
an beeko Pedro Botero!

GARIZUMA-ALDIAN

(Doiñua: 31)

Garizuma zer danik bai? Garizuman ez ezik, gauza onak edonoiz egin bear ei dira. Egi galanta orixel! Baiña guk gizonok, munduko aizetan arana gabiltzan txoriok, ez ete doguz bear aldiune batzuk, txarrak ondu ta onak obetuteko? Bere buru-biotzetatik onen erantzunik ez daukonari ez ekin al-perririk! Ez Garizuma eta ez Abendu, bakoitzak milla atxaki-talentu...

Garizuma aldirako
gai diran bertsoak,
prestau gura neukez gaur
danon protxuzkoak.
Arimaz, konturatu,
gabe urte osoak...
ez da federik, edo
gu garan zoroak!

Amaikak ba diñoe:
«Gero gerokoak»,
nonbait oneik ez ditu
bildurtzen kredoak.
Eurak dira gizonak,
besteok oilloak,
merezia emongo
deutse Jaungoikoak!

Jaiak, soifñu, dantza ta
panparroikeriak,
itxuturik gabiltza
kristaurik erdiak.
Arriskutik igesi,
nolatsu erbiak;
bestela azken orduan
a zer komeriak!

Barrearen ordeaz gaur
jatort negar-gura,
ia galdua dogu
leen geunkon itxura.
Bide onak itxita
zek deusku ardura?
Beranduegi baiño leen
gatozan kontural!

Nagusi jarri jaku
egitzat guzurra,
Jainkoa dagonik be
gaur ez da ziurra.
Zeatz galduta dogu
pekatu-bildurra;
berandu barik dogu
gaifñean zigorra.

Gurutzan zintzilik il
ziñan Jesus Orri,
parkeske nagokizu
damuz lotsa-gorri.
Zorion ustel-billa
ibilli naz korri...
Zelan ez naz leenago
kontura etorri?

Oi, Gurutzeko Jesus
eiguzu grazia,
orain eroan daigun
bizitza garbia.
Noizbaiten lortutzeko
betiko saria.
bitarteko zaitugu
Zu, Andra Maria!



BEGOÑAKO AMA BIZKAIKO ZAINDARI

Ondo etorri, anai-arrebok
geure Amaren ondora,
geure Etxera etorri gara
or aldapan beetik gora.
Irribarrezka daukogu Ama
gure zain ainbat denpora,
bere Semeaz danok batera
jasoaz bere altzora,
besarkatu ta berotzen gaitu
biotz-gaiñean gustora.

Irurogeita amabost urte
au koroatu ebela,
orduho gure asaba areik
ez euken fede motela!
Gaurko Bizkaiko seme-alabok
galdu aal dogu txapela?
Goratu daigun Ama Birjiña,
biztu siñismen epela,
egun oneitan zintzo jokatzen
aalegindu gaitzela.

Gaur Begoñara gatortuz, Ama
zabaldu eizu altzua,
zure aurrean argitzen jaku
begietako lausua.
Zure Semeaz batera artu
Bizkaiko sendi osua;
agur aginda, artu beingoan
maitasun berroz mosua;
zure besotan danok bat gara,
au senitarte gozua!

Begoñako Ama, Bizkaiko Ama,
seme-alabon pozgarri,
askotariko seme-alaben
maitasunezko lokarri:
Emen alkartzen garan guztiok
esku emonaz alkarri,
Ama batenak garala danok
auxe daigun ezaugarri:
bakez ta pozez zaindu daigula
Bizkaiko Eleiz ta Erri!

Bedeinkatu Zeuk, Ama maitea
gure Gotzain ta abade,
gure Bizkaian zure ordezko
eurak izan bear dabe.
Bardin gazteak ta gurasoak
eta erriko alkate,
izan gaitezcan zure antzera
Jaunaren morroi mirabe,
Bera bakarrrik izan dakigun
guztion Aita ta Jabe.

Gaixoak senda, minduak goza,
danok, Ama, bedeinkatu!
Buruak argi, biotzak garbi,
gaitzak gugandik uxatu...
Okerkerizko morroitzapean
dagozan danak askatu,
gorrotoa ta garraztasunak
zure laguntzaz gozatu;
zure ondoan aal daigun danok
zoria eskuratu!

Begoña goiko gaillur santuan
geratzen zara begira,
ez dogu iñoiz aaztuko, Ama
zure begien dizdira.
Zeuk bialduta goaz gaur pozik
gure sendi ta errira,
zure albistak zabaldu nairik
zure zure dan Bizkaira;
zuzendu gaizuz bide onetik
betiko pozezko kaira.

O Begoñako Ama maitea,
gure Ama ta Zaindari!
Gaur ba goaz ta, bedeinka gaizuz
emon laguntza ugari.
Bizi-bidean lagun zakiguz
illunpeetan gidari.
Ama zara ta, bidera urten
billaka dabilzanari,
agur biotzez ta laster arte
Begoñako Andra Mari!!!

GEROKO ITXAROPENEZ

(Doiñua: 17)


Gogoan artu, txirrist ori txorrost izaten dala sarri. Orduan eta txarrago; orduan eta aalegin geiago, "paso ta paso" egin bearrean, "jaso ta jaso" egiteko. Itxaropenez, sarri itsumustuka, baiña ibilli ta jokatu. "Frutuak or gelditzen dira". Mundura jatsi ZANAK batuko dau gure ta bere frutua egunen baten. "Geroko gero" ori be badagola-ta...

Uste barik aurrera
goaz abenduan,
ori ondo dakigu
esango genduan.
Badakizu zer dodan
gaur pentsamentuan?
Bizitza badoala
txirrist momentuan.

Agur, joan danari
ta goazen barrira,
bizi gaitzen, lagun
aurrera begira.
Gu joan arren, frutuak
or gelditzen dira,
an ta emen zer poza
ain onak baliral!

Ume, gazte ta nausi
sendo, gaixo... bardin;
egia egi da ta
zer datorren jakin:
Jainko Aitak betiko
gaituala egin,
orren itxaropenez
azkenearte ekin!

Maitasunez jatsi da
Jainkoa mundura,
guri laguntzea da
dakarren ardura.
Emen bizi gaitezen
bere agindura,
gero alkar gaitezen
zorion-lekura.



AGUR, AITA PATXI

(Doiñua: 20)

Bertso barri batzuek
gure neukez jarri,
zeruko Aita ona
egidazu argi.
«Aita Patxi il jaku»
esanaz alkarri,
pena aundiagorik
ez da artu sarri.

Arrietako Libo'n
jaio ta azia,
beragaz izan eban
Jaunaren grazia.
Pasiotarren legez
ondo ikasia,
oraindik ez da galdu
santu-errazia.

Irurogeita lau urte
kumatik obira,
bitartian emon dau
milla jira-bira.
Ekiñaren ekiñiez
ez dago begira,
jentiak diñozanak
guzurak ez dira.

Atsedean barik ekin
bide gogorrian,
zer ete eukan arek
biotz-motorrian.
Zeruan sartzen bada
neke-zigorrian,
Aita Patxi an dago
goiko tontorrian.

Gauza biren artian
beti gogorrena,
maitasunez eginda
zer aukeramena.
Errezena ez ei da
geienbat onena,
ori da jokatzea
kristau-siñismena.

Begiak lurrean ta
biotza zeruan,
Jaungoikoa besterik
ez eukan buruan.
Auxe zabaltzen eban
bere inguruan,
guztiak indartuaz
siñismen beruan.

Aita Patxiren grifa
«Errosarioa»,
nunbait ondo ekian
bere balioa.
Dana zan otoi-tza ta
bedeinkazioa,
alper askoren orde-z
erremedioa...

Beti ebillen Patxi
pekatari-billa,
beragaz autortuak
zenbat, zenbat milla!
Ez zan ez jakituna,
bai gizon umilla,
bere jakituria
Jesus Gurutz-illa.

Gaixo minduak ziran
bere urko lagun,
euren billa ebillen
beti gau ta egun.
Ortxe galdu ebazan
bizi ta osasun,
berbaz barik egitez
maixua nun dogun.

Gerratian gizon bat
ei zan il bearra,
«agur andra, umetxo...»
ai, aren negarra!
«Neu nago orren orde-z»
Patxiren dearra;
otoitz egin ondoren:
«Jo neure paparra»!

Anai-arteko gudan
Patxi zan kapillau,
ordun egindakoak
dardar ipinten dau.
Euskaldun anaiekaz
zer negar, alarau...
bere lagun ziranak
ez dabe aaztuten aul

Jainkozale izan zan
euskaldun gaiñera,
biok bene-benetan
ta biok batera.
Bat edo beste bein be
ez eban aukera;
onezkero zeruan
ba dakie euskera!

Jokatu dozu, Patxi
joko ederrenian,
zenbat on egin dozun
zeure aberrian!
Ez aal zendun ereingo
leku okerrian,
frutu emongo al dau
gaur Euskalerrian!

Ekidalean ekin
aal dan dana bota,
aste bete baiño leen
il-zorian jota.
Zure jokabidea
agiri dago-ta:
Jo ta su ibillita
ondoren Golgota.

Atzamarra jasota
bidertzian eske,
norbaitek eroango
arin eta merke.
Gaur zuri eske gagoz
txoper eta beste:
Orruntz eroan gaizuz,
aal dozu ainbestel

Zoriona gaur zuri
gure Erriko pitxi!
Zeugaz poztuten gara
ta ez gero gitxi...
Naiko egin dozu ta
ortik ondo bizi!
Agur ta laster arte
GURE AITA PATXI!!!

YON OGEITAIRUGARRENA IL DAI

(Doñua: 36)

Il bai gero? Ainbestegarren urtera be, nonai agertzen da oraindik bere irudi irribarretsua; noiz-nai jatorkuz agotara ta gogotara bere erakutsi sakonak eta esaera zorrotzak. Mundu beteko gizonak Ez, olako gizonak ez dira ilten, ain da indartsua ondoren izten daben bizi-endarra. Izkutuko baserri xoxtor baten jaio ta Erromako Aita Santu izatera eldu zana. Euki be, baserriko marka eukan bere bizitzan: bizitza patxadaz artzen eban, egualdiari igarten apartekoa zan, umore-saltsa ta ateraldi zorrotzak txitean-pitean bere ezpanetan... Izan be, baserriak emondako fruturik ederrenetarikoal

«Aita Santua il da Erroman»
jendiak diño negarrez,
aspaldi ontan mundu osoa
jantzi da baltz ta abarrez.
Txiki ta aundi, goiko ta beeko
danok gagoz zoritxarrez,
Aita il da ta, gaur umezurtzok
zotinka urtu-bearrez.

Italiako baserri baten
jaioa zan ta azia,
amar anai ta arrebetatik
bera izan zan nagusia.
Baserriko lan ta neke-lorra
aita-amak erakutsia;
berak ifionez, txiro izatia
ez da gauza itxusia.

Juan Bautista zan bere aita ta
ama, Mariana Mazola,
umetatikan emon eutsoen
bide oneko eskola.
Bere frututik ezagutzen da
zelangoa dan arbola,
Aita Santu au emon ebana
ez zan txarra izan ifiola!

Laster asi zan mundurik mundu
bake-aingeru antzian,
gaur Bulgarian, biar Grezian,
ta geroago Prantzian.
Txaloka artu eben guztiak
Italiako Benetzian;
nonai sartzen zan beso-zabalik
aita on bat lez bere etxian.

Pio amabigarrena il zan,
a zan santu ta abilla!
Ustekabearen are ordezko
dator Roncali umilla.
Laster mundua izabazten dau
ez zan geldu ta ixilla;
pozaren pozez danak diño:
«Ondo etorri dedilla!».

Bake-zale ta alaia izan zan
Yon Ogeitairugarrena,
«Zabal ateak, egin bideak»
orixe izan zan bere tema.
«Ez illetarik, gora buruak»
arek euki dau kemena!
Bera izan da, Jaunak emonda,
erregafurik onena!

Preso ta gaixo artian beti
aurkitzen zan bere saltzan,
negarrez bizi ziran guztien
aingerua bera izan zan.
Munduko bizi ta bakearen
usoa bera ez al zan?
Orrexegaitik emon eutsoen
bakezko medalla «Balzan».

Larogei urte gaiñean, baiña
biotz-barruanugarra,
gorputzez zaarra, biotzez gazte,
buru argi ta azkarra.
Pillatutako autsen azpian
bizirik eukan txingarra:
ustekabeen dapa! asten dau
Batikanoko Batzarra.

Gogo beroa eukan barruan
baiña makalik gorputza,
eriotz gogor luzea izan da,
arentzat a zer gurutza!
Mundu gutiak otoi egin dau
ez zan izango ke utsa,
Aita il da ta utsik etxea
ta negarrez umezurtza!

Olako gizon onen bizia
gure eskuan balego,
betiko bizi bearko leuke
baiña Jaunak daki obeto...
Gorputza emen daukogu, baiña
arimiak milla ego;
eskerrik asko Aita Onari
ta goiko zeruan bego!

BALENDIN BERRIOTXOA

—bertsolarien zaindari—

(Dolñua: 3)

Nok ez dauko zeruan santu-santaren bat zaindaritzat? Zapatari, jostun, kinkaillero, txoper, eskeko... danok gara ari bateko. Beti atxakiren bat bear, jolas egin eta jateko.

Besteak beste, bertsolariak be ba dabe euren arteko bat: bertsolari ta santu. BALENDIN BERRIOTXOA. Bestsolariak balio ta indarrrik asko dauke erriaren aurrean, bai txarrerako eta bai onerako. Balendin Berriotxoak lagun dagioela, gure Erria argitzen, alkartzen ta alaitzen.

Laster eldu zan gure Balendin
gizon aundi izatera,
praille jakintsu, mixiolari
eta gotzain jaun, gaiñera.
Baiña ez eban galdu egundo
leendik eukan izakera:
santuago ta maiteago zan
Balendifentzat euskera.

Bere amatxok erakutsia
arturik eukan gogotan:
Noranai, seme, joan zaitez, baiña
euskaldun izatekotan.
Euskeraz berba, otoi ta abestu,
euskeraz amesak lotan...
Garbi ta errez idazten eban
euskeraz eta bertsoetan.

Buru-biotzez euskaldun danak
maitasun bi bear ditu:
Jaungoikoa ta Euskal Erria,
ez gero oker aditu.
Elorrioko Balendin onen
erakutsira begitu:
Ez zan izango santu osoa
biak maite ez balitu.

Guztiok dogu geure «santua»,
sakristau ta zapatari,
bertsolariak be ba dabe bai
nok entzun euren eskari.
Orra Balendin Berriotxo
bertsolarien Zaindari,
euren agotik iraun dagian
Euskal Erriak kantari.

Sarri askotan bertsolariak
estu dabilta, gaixoak,
puntu ta tema ezin eratuz
nai baizen goxo bertsoak.
Besterik ezta, argitzen ditu
ardau-xurruta goxoak,
gaurtik ba dabe zeñiek lagundu:
Balendin Berriotxoak!

Leendik daukozu irabazita
Balendin zuk, zeru goia,
noiz etorriko ete da zuri
santu deitzeko sasoa?
Bertsolariak dauke orretan
euren aparteko doia:
ondo laguntzen badautsezue
laster daukozu koroia.

Aaztuta geunken euskaldun danok
jatorriz giñala anai,
biztuaz dator anaitasun au
eskerrak bertsolariak.
Zazpirak baten besarkatzeko
ia ordua dogu bai...
Berriotxo lagun dogula,
danok ekin eta jarrai!

Aspaldi ontan bertsolariak
egiten dabe aalegin,
berbaz ta kantuz erririk erri
euskera galdu ez dedin.
Millaka dira neke ta traba
ta ezin biderik egin...
Bertsolariak Goi-Zaindaritzat
artzen zaitue, BALENDINI!

DOMUSANTU

(Doiñua: 29)

Ona emen betiko egi bat: Inortxo be ez gagozala emen betiko. Eriotza ta bere ostekoa... ori da danok astintzen gaitun ostikoa. Andik ez dator erantzunik. Sifñismenez onartzen dogu Kristo Berbiztuaren oiua, Barri Ona: "Illak bizi dira"! Eta zuk, zer uste? Or konpon!? Ateotzat dagozanak be, zentzundun diranez, ezin dabe bertan beera itxi azur au. Gogorra dala ta, itxi? Orixe bai dala gogorra!

—Arratsaldeon, Txomin zu be gaur emendik?
—Domusantu dala-ta urten dot etxetik.
—Baifia au alperrik da, ezpada federik!
—Emen oitura da ta ez dago izterik.

—Nor daukozu ba emen lurpean, aixkide?
—emen ditut guraso ta ainbat senide.
—Len ba ziran, ta gaur ez; utsa dozu maite?
—Eurakaz aaztuta ni zelan bizi naite?

—Norentzat dakartzuz orrenbeste lora?
—Ai, neure gurasoak jatortaz gogora.
—Ez diñozu ba dana joan dala zulora?
—Zelan nik aaztu neikez ainbeste denpora?

—Ez diran gauzak zagoz Ekarten burura?
—Zerbait garalakoan, bakarrik itxura!
—Ai, sifñismen bakoen illun ta tristura!
—Ta zeu zergaitik zatoz gaur kanposantura?

—Bazenki zer dan, lagun gure sifñismena!
—Sifñismena bai baiña, bardifia azkena.
—Emen azkena, baiña an dator onena!
—Au danau sifñisteko nok leuken almena!

—Arimarik ezpada, zeri negar egin!?
—Olan gure biotzak artzen dau atsegin.
—Dana galdtu ez daizun, egizu aalegin!
—Aalegifiak bai, Txanton baiña zeri ekin?

—Jainkoak egin gaitu
arima ta gorputz.
—Eriotzak ez gaitu
danok egiten auts?
—Lurra dana lurpera,
ta arima aruntz.
—Argia amatau da
ta zeri egin putz!?

—Arima bat daukogu
usteltzen ez dana.
—Au nik ezin sifistu,
au da nire lanal
—Egin daigun biotzez
biok otoitz bana.
—Nai neuke euki, lagun
zure fede dana.

—Aixkide, asi zara
egia ikusten.
—Apurtxo bat asi naz
gaur kontuan jausten
—Gu betikoak gara,
ez da dana austen...
—Ez dakizu zelango
poza emon dausten!

—Illak bizi dira ta
poztu zaitez, lagun!
—Euren alde alkarraz
otoitz egin daigun.
—Esan fede-argitan
zer agertu jatzun.
—Ez dakit zelan esan,
baifia naz FEDEDUNI!

eta
EUSKALDUN edo FEDEDUN
ala

(Doiñua: 14)

*Eta, edo, ala... Zeuk zeuretzat irurotatik zein?
Leen ez, gaur berton. Irurak txandaka? Bata bez?
Irurak batera ezin, beintzat! Zurrunbilloaren erdian
norberak be jakin ez nun aurkitzen dan edo no-
rantza doan. Au da batzarraren batzarral! Eragin
eta erabili, astindu ta bardindu... Zer gara gu? Nor
gara gu? Leendik datorkiguzan lorratzak be ezin
galdu; barririk egiten ezpadogu be, guriak egin dau.
"Nortasuna", auxe da azken aldi onetako leloa, itz-
ardatza: Zer da euskaldun izatea? Zertan dago
egiazko kristautasuna? Eta izatea bera zer da? Ola-
korik!*

Bertso barriak jartzera noa
Jainkoa, eidazu lagun!
Nere Euskaldun anai maitiak,
danontzako da ta, entzun.
Orain artean bat izan dira
«euskaldun eta fededun»,
aspaldi ontan askok nai dabe
fedea itxita, euskaldun.

Bizkaian dogu gure Begoiña,
eta Gipuzkun Loiola,
or Arantzazu, an Estibalitz
eta emen Urkiola.
Ortxe gorde da orain arteko
gure fede ta odola,
ezetz diñonak, esan gura dau
zeozek uts egin deutsola.

Gora Euskera! Bera Jainkoa!
euskaldun askok au diño;
barrabazkeri aundiagorik
ez dogu entzun oindiño.
Euskal Erriak ego bi daukoz
Euskera ta Erlejiño;
zelan txoriak egaz egin lei
bata kendu ezketiño?!

Leengo bideak zaarrak dira ta
itsuan goaz barrira,
barrikeriak ekarri gaitu
leen giñanetik erdira.
Gaurko oitura, jolas, bideei
jarri ezkeru begira,
errazoiz esan leike gugaitik:
«Oneik nortzuk ete dira»?


Kendu daiogun gure Erriari
eleizaz daukon guztia,
oitura, soifru, kantu ta dana
eleiz-arnasaz betia...
Milla gizon ta milla liburu,
au, ori, a ta bestia,
Au danau barik, zer gauza utsa
Euskadiren edestia!

Orain arte guk maite izan dogu
biotzez Ama Birjiña,
gaurtik aurrera maite bearko
Anboto goiko sorgiña!
Gizon aunditzat geunken leenago
persona zintzo ta fiña,
gaur barrabas ta lapurrak nausi;
ez geu zintzoak bagiña!

Aize gogorak astindu ditu
Euskal Erriko tantaiaak,
igeska doaz euren gaiñetik
millaka txori alaiak.
Jainkoa lagun, eutsi onari,
sendotu fedesustraiak!
Edo bestela gure Aritza
lurrera dator, anaiak!

Lotsagarri da gauza oneitzaz
gaur egitea zabal itz,
obe or konkon? Obe ixildu?
Obe au guzur utsa balitz!!!
Esan Begoiña, oi Arantzazu,
ekin Lurdes, Estibalitz:
Oj Euskaldunok, egi egitan
bide onetik ez gabiltz!

G I Z A - B I D E Z



ARGI-BILLA

(Doiñua: 26)

Aixkide batzuk alkartu gifian
aurtengo udazkenian,
astetxo bete igaro nairik
Gorbeia mendi-gaiñian.
Gure Nikola itsua an zan
ta Peli aldamenian,
Arrezkero nik amaika bider
diñot neure barrenian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Eder pozgarri da eguzkia
Gorbeian egun sentian,
zugaitz ta txori, ardi ta pizti
bada ederrik mendian:..
Itsuak dauka ikusi-naia
bere barru sakonian!
Peli laguna ondoan dauka
esanala esanian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Amaika bider egon izan da
Nikola Gorbei aldan,
leengo ederrik gaur ez ikusten
bere begien aurrian.
Berbaz ta kantuz or dauka Peli
etenbako jardunian;
orra argia nundik sortzen dan
bien alkartasunian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Gaillur ta troka, arkaitz ta lupetz
milla arrisku bidian,
baifia Nikola ibilli dabil
mendian zear Gorbeian.
Esku-makilla batian eta
Peli laguna bestian.
Zer pentsamentu etorri jatan
mirari au ikustian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Gorbeian zer argirik-eza
beingoan datorrean,
zelango poza lagun zintzo bat
laifio lodien erdian!
Bizitzan zear argi-illunak
gitxien uste danian,
orduak daki batek zer dan au
norberetik jakifian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Gizon itsua gauza utsa da
baso mendi zabalian,
ara ta ona dabil gaixoa,
galduta nora-ezian.
Mendian eta bizitzan bardin
gertatzen dan bakoitzian,
zer zoriona esan aal badau
itsuak bakardadian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Nikola-Peli, au bikotea
alkar-anaitasunian!
Itsua argi, zantzo ta irritzi
beti alaitasunian.
Biotz zabalik Peli laguna
inguratzen jakonian,
bizi-poza ta argi betea
sortzen jakoz illunian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Aldamiñapen gora ta gora
gaillurrera azkenian,
itsu ta guzti laster gengoan
Gorbeiko gurutz-oiñian.
Danon Amari mosu bero bat
emonaz siñismenian,
otoitz biurtu genduan auxe
federik beroenian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Zenbat naaste ta bide galdu dan
aspaldion gizartian!
Burruka asko, erruki gitxi
poza iñoren kaltian...
Aal dan neurrian, alkar-laguntzen
guztiok asi gaitian,
esaera au egi izan dedin
leenbaileen gure artian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Gabon aurreko abendua da
aurtengoz bete betian.
«Argiaren» zain gagoz guztiok
fede-itxaropenian.
Jaunaren billa dabillen batek
gogoz ta iraupenian.
Belen-aldeko izar argitan
esango dau biotzian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Munduko Argi dan Jesus Jauna
jaio zan Belen aldian,
Aren argia artu genduan
guk guztiok aspaldian.
Illunaldia sartu bajaku
guregan ustekabian,
alkarrekin jo daigula billa
egi au goza artian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

Gabon jaietan milla zorion
Jainkoaren izenian,
batez be zuoi, Nikola-Peli
«Argiaren Egunian».
Bere argiak argi gaizala
bide garbi zuzenian,
egunen baten esan aal daigun
betiko zorionian:
«Lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian».

GAURKO PARISEO BARRIAK

(Doiñua: 6)

"Mundu barri baten sartu gara"! Bai gero? Bai, bai! Kristobal Kolonek be ez juañ ain barririk aurkituko... Bai, baiña, mundu barrian txori zaarrak... gizonak betiko jokarak. Bada diferentzi bat, orraitño. Leen txartzat egoana orain ontzat botaten da, eta dana polito baten konponduta. Txarren txarrena auxe: Danak joko bardiñean asten badira, zer? Santuak eta faltsuak txandaka agiri dirala. Baiña bai gaur be badira santuak, martiriak, birjiñak (oneik exkax!). Leengo santuak eratsi dagozan lekutik eta barriak ipiñi. Baiña danentzat lekurik ez: ez aldarretan eta ez kale-ertzetako ormetan. Aldarak eta kaleak or geratzen dira, euretako santu-martiriak aldatzen dira txandaka. Denpora gitxirako santuak; egualdia aldatu arte. Baiña ori bai, onak eta txarrak "ondo bananduta dagoz: zuriak eta gorriak ezkerrean. Eta baltzak nun? Eta erdiko nabarrak zer? Nabarrak ez baltz, ez zuri; Euskadi be ez ei dira-tal

- Gizona beti aalegindu da dan baiño ohea agertzen, itxura onak egin ondoren badaki bereak zertzen. Aurrez berbaz itano, atzez erpaz jitano... ez da erreza igertzen! Olako santuz erreza dok, bai zerua plen-plen betetzen.

Leen, gaur ta biar beti da bardin gizona ez da aldatu, norbera beti dago santutzat besteak beti pekatu. Norberarekin kontu, ta besteak konpondu; ez gero ifiori parkatu... Norbere gatxak ondo gorde ta ifiorenak arakatu.


Batzuk onak ta besteak txarrak alderdi bitan mundua, batak bestea zeatz juzgatzen orretan bada modua. Ona geure aldetik eta txarra bestetik, orra betiko kontua: joko au ondo ez dakiana a zer gixajo tontual

Pariseo ta publikanoak ez dira beti bardiñak, atzoko onak gaur txarrak dira gaur garbi leengo zikifiak... Leen Jainko ta bateo, gaur oba da ateo; aldatu jakuz dotriñak! Leengora bizi diranak dozuz atzeratu ezjakifiak.

Publikanoak biotz-biotzez
diñoe: «Ni pekatari»,
Pariseoak garbi dira-ta
jartzen dira salatari.
Gaur baal da pekatu-rik
ta olako konturik?
Entzun Pariseoari:
«Egongo ez da ba pekatua?
Begira auzokoari...

Gaur Pariseo barriak dagoz
errez arritzen diranak,
besteak oker dabizalako
zelango jardun esanak!
Kritika ta protestak
kontzientziko kezkek,
au da justizia, jaunak!
Santutasun au aztertuteko
Jainkoak daukazan lanak...

Arrokeriak bazter itxita
izan gaitez an apalak,
ez daigun aaztu sarri askotan
danok garean makalak.
Jainkoaren aurrean
aztertu bakarrean,
onetan izan leialak;
ordu an danok izango gara
alkarraz biotz zabalak.



AU DA KARIDADIAI

(Doiñua: 6)


Munduan onak diran artian
beste batzuk dabiltz listo,
banakak nasai bizi daitezen
ito bear Txilibristo.
Nerea neretzako
irea biontzako,
zenbat olako zorritzot!
Judasek baiño leenago baietz
askok saldu Jesukristot!

Iñoren gauzak norberagantzen
 ba da gaur abildadia,
 ortik erdiak edo emonda
 orra zer borondatia...
 Beti daukoz lapurrak
 limosnatzat azurrak,
 auxe da karidadia:
 iñoren danak artuta gero
 limosnaz emon erdiak!

Mundu onetan beti izan dira
 onelako gora-beerak,
 ezin esan lei onak diranik
 gaur daukoguzan jokarak.
 «Bakoitzari berea
 au da zuzenbidea»,
 diño leengo esakerak.
 Egiak argi esanda dagoz,
 kontuak artu norberak.

Katolikuak izan arren be
 nasai daukee barrua,
 alan edo olan bete dabe bai
 sakela edo narrua.
 Besteak neke ta lan,
 norberak onenak jan;
 ta beti iñok errua...
 Au olan dala, ez da paltako
 iñoiz zotin ta marrua.

Ortxe daukozu garbi esana
 gaurko munduan zer dagon:
 norbera ondo dan bitartian
 besteai: kaixo, egunon!
 Neu nabillela bonbon
 beste danak or konpon...
 entzun Jesusek zer difion:
 Lazaro ilten dagon atean
 narru-betean Epulon!



ITXAROPENAREN ITXAROPENEZ

(Doiñua: 2)

Ze barri dabil munduan?
 bakoitza bere munduan,
 danetik gure ortuan...
 Zer ikusia ta zer egiña
 bada aurtengo abenduan!
 Lora barriak neguan,
 au zer ete zan nenguan;
 ames ein neban lenguan...

Atzoko amesak ames,
 gaur geienak dira aldrebes;
 ederragoak nai geunkez.
 Gaur daukaguna, auxe daukagu,
 eta besterik ezer ez.
 Ames egiten da erreze,
 ta frutuak datoz nekez;
 gauzia olan da berez...

Badogu demokrazia
baifia zelango klasial
Dana dalako gauzia...
Gure Jainkoak emon daiskula
gaur bear dogun grazia:
artu otoitz-arnasia,
erein ta erein azia;
onduko da errazia.

Istoriaren burpilla
beti jiraka dabilla,
bein zarataz, bein ixilla.
Bere barruan guztiok goaz,
ez da ez leku trankilla!
Ez asi atxaki-billa,
badā zeregiñik milla;
ori dok ori mutilla!

Buru, biotz eta tutu,
gu gara atzoko frutu;
au zetan gorde ixkutu?
Nor dan errudun, nor dagon oker,
zergaitik alperrik sutu?
Alperrikoak apurtu,
ta lur barriak atxurtu;
ez egon geldi ta mutu!

Gure Eleiz ta Errian,
oraingo une Iarrian,
ainbat dabiltz bearrian.
Gazte ta nausi, alkar artuta
ez gero ifior bakarrian!
Atzo, atzoko zaarrian,
eta gaur, gaurko barrian;
aurreraka indarrian.

Igesi doaz txoriak
eta zimeldu loriak,
otzitu leku goriak...
Dana dala be, ez dau azkenik
kristauaren umoriak;
baltz, zuri, gorri, oriak,
aldizka datoz zoriak;
olan difio istoriak.

Ereiten dana batu nai,
erein ez dana bere bai;
onak artzeko, prest noiznai.
Ikutzen eta gozatzen ez dan
mundu barri baten jarrai...
Ortxe izan bear anai,
gerora begira alai;
noizbait izango da ezta!

Etenbako neke lorra,
ta beti gaiflean zorra;
ori bai dala gogorra!
Asko eginda, aundiagoa
egiten bai da alorra.
Kristoren bidea, orra:
ezin artu ifioiz oporra,
noiz ospatuko «montxorra».

Al danian al dantxoa,
bardin sendo ta gaixoa;
balain bazara txintxoa.
Lanean jãrdun bear dogula
naiz izan ez lan goxoa.
Zabal biotz ta besoa,
ez da naiko errezoa;
au da danon arazoa.

Danok gara arduradun,
edo-ta, bardin errudun;
ekintzan alkarren lagun.
Atxaki illetaz, ez gero esan:
«Au egin izan ba gendun...».
Bearrezko da jakitun,
ta bearrezko dirudun;
baiña bearren: nok jardun!

Jaunaka gora begira,
edo puzka jirabira...
Biak baten obe dira!
Otoitz eta lan diarduenak
nekez yatzuz erretira...
itxaropenez dizdira;
olako asko balira!
Atxaki danak azpira,

Ez da betiko molderik,
ez danerako golderik;
euki au ondo gorderik.
Gaurko munduan ez dago beintzat
geldo geldi egoterik...
Orain ez dago biderik,
dagona sasiz beterik;
sortuko al dogu besterik!

Egia, askatasuna,
bakea, zuzentasuna...
bete bearreko utsunal
Guztiok gabiltz orrexen billa
baiña bai bide astunal
Gaur zuk ni bear nozuna,
ta biar nik zu, laguna;
au jakin bear doguna.

Laster gara Gabonetan,
gu geienok bonbonetan;
ez nabil gero brometan.
Baiña betiko Gabonik ez da
oraingoz mundu onetan;
gogo ona dagonetan,
bizi leiteke benetan;
egizko zorionetan.

Ustez ifioizko txarrena,
oraindik ez da azkena,
edo falta da onena...
Zintzo jokatu nai dabenak gaur
bear dau itxaropena.
Ikasi bide zuzena:
zeuk egin al dozun dena,
eska Jaunari kemenal

Gaur nor ez da jokalaria?
Baietz esan laguntzari,
ezetz gogorkeriarri.
Danen gairietik benetan eutsi
bein emondako itzari.
Jarri danen serbitzari,
ori bai da agintari;
balego olako ugari!

Egunak joan ta etorri,
laster dogu Urte barri;
milla Zorion alkarri!
Anaitasuna ta bizi-poza
eroan eta ekarri.
Beti onaren egarri,
Kristogan dogu iturri;
Agur lagun maitagarri!



BIDEKO NEKE LORRAK

(Doiñua: 34)

Neure anai maiteok,
ez ifioiz be aaztu,
guk negar egitea
ez dala pekatu.
Pekatarari gara ta
negarra zor dogu,
negar bako santurik
ez da ezagutu;
negar barik zeruan
ezin leike sartu.

Negarrez jaio gara
ta negarrez bizi,
negar baten ilteko
biar edo etzi.
Alperrik asten gara
negarren igesi,
negar ondo egiten
obe da ikasi,
negar malkoz zerua
aal bada irabazil

Munduak emoten dau
zeregin naikua,
begietatik sarri
dariot malkua.
Orixe da benetan
ur bedeinkatua,
«Aitaren» egin leike
bustiaz eskua;
orrexek garbitzen dau
zeatz pekatua.


Gurutza ta negarra
betiko bikoitza,
biak jaioten dira
noiz jaio bakoitza.
Bizitza guztirako
badogu morroitzal
Gero izango dogu
betiko koroitza,
badakigu ba, Jauna
ez dala zikoitza.

Larrosa usaintsuak
dira arantzadunak,
arantzarik ez dauko
sasiko asunak...
Olantxe dira Jaunak
maitatzen ditunak:
Zeruratu baiño leen
gurutza astunak;
ez dira zeruratuko
alper ta lizunak.

Gizonaren biotza
 ain da lur gogorra,
 negar-uria barik
 berez da legorra.
 Errez lokatuten da
 ona edo orra,
 gañean ez badauko
 gurutza- zigorra;
 kaku barik intxaurra
 ez da emonkorra...

Geure kuman erne zan
 gurutza landara,
 eta geugaz aazten da
 urteen erara.
 Lerrenak egin arren
 ezin lei atara;
 aldian darabilgu
 leku danetara,
 zeruan ez da izango
 aratzen bagara.

Ikasi daigun danok
 zelan dan zerua,
 sarrerako txartela
 ain dala karua,
 batentzat ez da naiko
 munduko dirua.
 Obe da biotzeko
 negar zizpürua;
 Emen eta an zerua?
 Ez da segurua!!!



GORA BELENDIZI

(Doñua: 32)

A, a, a,
 Balendizko ibarra
 Bizkaian da bakarra,
 lur guztian ezpada.
 A, a, , Belendizko...

E, e, e,
 Belendizen nai neuke
 bizi eriotz-arte,
 gero zeruaz truke
 E, e, e, Belendizen...

I, i, i,
 Ez dozu galdu gitxi
 ezpa dozu ikusi
 non garean gu bizi
 I, i, i, Ez dozu...

O, o, o,
Ai, gure mendi, baso
etxe, zelai ta solo
olangorik ez dago!
O, o, o, Ai gure...

U, u, u,
Belendiz maite dogu
guztion bizileku,
onen urrengo zeru.
U, u, u, Belendiz...

A, a, a,
Gure jokabidea
da Jesusen legea
osorik betetzea
A, a, a, Gure jokabidea...

E, e, e,
Guraso zaarrak maite
euren oiturak gorde,
beti gu euren alde!
E, e, e, Guraso...

I, i, i,
Auxe dogu ikasi
ta etxean ikusi
ez geunke gura itxi.
I, i, i, Auxe dogu...

O, o, o,
Mendian San Lorentzo
errian San Pelayo
daukoguz geu zaintzeko
O, o, o, Mendian...

U, u, u,
Beti danok kristiñau
bete daigun asmo au
Jaunak gurako al dau!
U, u, u, Beti...

A, a, a,
Belendiztarrak gara
iñon bardiñik bada
datorrela plazara!
A, a, a, Belendiztarrak...

E, e, e,
Emengo gizon gazte
jarri ezkerote tente
goiko pagoak beste
E, e, e, Emengo...

I, i, i,
Dontzella azal zuri
andra kolore gorri
askok deusku inbidi
I, i, i, Dontzella...

O, o, o,
Mutil mardul morrosko
jan dogu naiko arto
nor guri irabazteko?
O, o, o, Mutil...

U, u, u,
Nok gura dau apostu
gu lako jentemodu
ezetz ifion aurkitu!
U, u, u, nok gura...


A, a, a,
Danok euskaldun gara
dagoana tripara
eta gero dantzara!
A, a, a, Danok...

E, e, e,
Ardo botella bete
okelerre ta naaste
ez dau egiten kalte
E, e, e, Ardau...

I, i, i,
Aupa txitxiburduntzi
artu-ala iruntzi,
eta biar gorantzi!
I, i, i, Aupa...

O, o, o,
Gu bizi gaituk ondo
dirua be badago
ta geiago balego...
O, o, o, Gu bizi...

U, u, u,
Au dok au bizimodu,
eta zeuk nai badozu
Belendizen daukozu!
U, u, u, Au dok au...



ARDOAREN LAU INDARRAK

(Doiñua: 28)

Fede kontuan larri
dabil gure Praisku,
ardoak jarten deutsoz
milla bat arrisku.
Jaunak sortu dabenik
ezin dau sifistu,
biziak ilten ditu
ta illak berbiztu

Orra zelan dan entzun
Praisku'ren eskola:
Ardoa deabruak
jarrita dagola.
Lau piztien odolen
indarra daukola:
Loro, tximiño, otso
ta txarri-odola

Loritoen odolez
erne zan ta kito,
asko edan arren be
ifior ez da ito...
Orra tabernan zeinbat
kantari lorito,
prantzez egiten dabe,
latin be polito!


Ai, tximiño-odolak
ze indar dakarren,
orrek indartu eban
ardoa bigarren.
Asko dira etxean
gixajo ta erren
baña tabernan dantzan
erren egon arren...

Irugarren odola
emon dau otsoak,
orrek atera deutsoz
matsari moltsoak.
Ardoaz otso dira
bigun ta mantsoak,
orrek berotzen ditu
agura t'atsoak.

Txarri-odoletik dau
laugarren indarra,
botika beroa dok
ai, ardo naparra...
Laster prakak galduta
zabalik paparra
lau ankan loka dabiltz
tirri eta tarra.

Ardoaren kontua
ez aaztu, Periko,
pizti gaiztua da-ta
aldendu betiko,
Ez da komunistarik
ezta katoliko,
ardo asko edanda
ez danik jausiko.

Ardoagan batuta
orra lau piztiak,
nornai ondatzen dabe
bat edo bestiak
Buru zentzunak galdu
ta naastau estiak,
ardoak sarri ditu
ondoren tristiak.



MOROKIL-EZKONTZA

(Doiñua: 31)

Bertso barri batzutan
 nai neuke kantatu,
 Euskaldun erri baten
 zer jakun gertatu
 Neuri esan deustena
 or garbi kontatu,
 entzuna diñot eta
 mesedez parkatu.

Mari Petra or dabil
 sekulako dama,
 ia artzen asita
 neska zaarren fama.
 Egun batian Patxi
 etxera darama,
 ezautu daizan bere
 aita eta ama.

«Gurian ez dok jaten
 morokillik eta»
 bere etxea jasoten
 a zer barriketa!
 Urrera diranian
 afa Mari Petra!
 morokil usain bat bai...
 gaiñera erreta.

Etxera joanda Petrak
 artu dau galdara,
 ta kolpean sartu dau
 txalaren askara.
 An dira paitar, goxo,
 samau ta kikara;
 ta Patxi'ri diñotso:
 «Olan bizi gara».

Paitar ta goxo gauzak
 artzen dagozala,
 kortatik orroaka
 asten jake txala.
 Morokilletan erre
 jako sur-azala,
 Aita San Antoniok
 ai, gorde daiala!

Laster batu dira an
 etxeko ta auzo,
 garbi jakin gurarik
 zer ete dan jazo.
 Lotsaz gorritu dira
 Petra ta guraso,
 bitartian barrezka
 Patxi Ixkillaso.

«Eskerrik asko, txala,
 jarri nok saltoka,
 bestelan joko neban
 tranpaz beko troka
 Galdara tronpetakin
 ekin soñu-joka:
 Guzurrak daukozala
 anka biak loka».

«Ai, neure Mari Petra
 guzurti abilla,
 munduan ba dituzu
 antzekoak milla.
 Zeu olangoa eta
 gañiez morokilla,
 gaurtik asi zeintekez
 beste baten billa».

12

The musical score consists of ten staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a time signature of 12/8. The music is written in a single melodic line. The notation includes various note values such as quarter, eighth, and sixteenth notes, along with rests and bar lines. The piece concludes with a double bar line.

SENIDE... ZEIN BIDE...?

(Doñua: 12)

SENARRA naz, aixkide
 bein eta azkenengoz,
 ez, jakin izan baneu
 oinbeste leenagoz.
 Atzo aske giñanok
 gaur lotuta gagoz;
 pozik bizi garala
 esan arren agoz,
 laster giñake libre
 ai, giltzak balegoz!

EMAZTE izatea
askoren amesa,
baiña niretzat, beintzat
bide aldrebesea.
Ni eskuratu arte
amaika promesa...
Leen sarri entzun neban:
«Ai, neure markesa»!
Leen ni lakorik ez zan,
ta gaur naz bapeza.

AITA deika daukodaz
sei seme-alaba,
eurakaitik sortu jat
makifia bat traba.
Or nabil neke lorrez
egun eta gaba,
inguratu bearrez
arto edo baba;
astoak ezitzeko
auxen da albarda!

AMA! Zein aundia dan
amaren izena!
Baiña gaur jakizue
larri gabizena.
Etorria mea ta
joana gizena,
asterdia baiño leen
urtzen da kinzena;
zelan egin neike nik
bizitza zuzena?

SEME ta beti seme
ta olan betiko?
Uste aal dabe beti
nazala mutiko?
Ez dot nai, ba dot gura;
zaarra jo t'ostiko!
Nik neuk dakit zer egin
edo zer jantziko;
uste baiño geiago
da, gero, Periko!

ALABA! Ez da olan,
ni naz Joxpifixil
Beti narabiltzue
txitxi eta pitxi...
Ai, zer diran anaiak
ta ni beti gitxi;
Ama, gaurtik mesedez
bakean niri itxi,
zuk baiño obeto dakit
eta zagoz ixil

AITITA egifia naz
igarrita nago,
urteak gora eta
ni barriz beerago.
Danen morroi nago gaur
nagusi leenago;
neure testamentua
eginda geiago,
ifnok ez nau bear ni,
untzea or dago!

AMAMA zaarra nago
aspaldi batian,
gero ta baztarrago
urteak joatian.
Amama deitzen deuste
txitian-pitian,
illobak garbitzera
azkar joan naitian;
beste bat geiago naz
illoben artian.

OSABA-izekoak
alkarren antzeko,
beti zerbait emoten
ifioiz bez artzeko.
Zer artzekorik bada
eun senitarteko...
eta ezer ezpada
osaba ez izeko;
sarri geuk izan bear
etxean eskeko.

LOBA, illoba eta
billoba garanak,
malte doguz osaba
ta izeko laztanak.
Daukena kendu arte
zer ondo esanak!
Geró geure artian
sortzen dira lanak:
Geu konpondu ezinik
galtzen doguz danak.

ERRANA nazala-ta
beti neu naz txarra,
ez da obeagoa
gure atso zaarra.
Ez dakit nok daukogun
kentzeko bizarra;
baiña beti alkarri
agindu bearra,
misto barik sortzen da
gurean sugarra.

AMAGIÑARREBA naz
dana esan daigun,
aspaldi baten nago
bakar ta alargun
Semea ezkondata
or errana lagun:
kanpotik etorrira
zer sorgin daukogun,
inpernu bat ba dala
ortik da ezagun.

LENGUSU, koñatu ta
beste amar milla,
dirua izan ezker
batzen gara pilla.
Txintxin-usaifnik bada,
danok bere billa;
alakorik ezpada
senitarte illa...
Gaur arte olan da-ta
ala izan dedilla.

AMALAU bertso barri
 alkarren ondoren,
 danontzat jarri ditut
 aal danik ondoen.
 Gogoan artu eta
 ikasi leenbaileen;
 Gaurkoz naikoa da ta
 amaitzen dot emen:
 Per omnia secula
 seculorum, Amen!!!



PIZTI-ONDAKIÑAK

(Dolña: 22)

Aintxiña baten Jainkuak
 egin zituan munduak,
 eta guztiak agertu ziran
 bere gogokuak.
 Baiña gu garan kaikuak!
 Asetzen oso gaiztuak.
 Luzaro bizi gurata, gagoz
 gizonok galduak.

Astoa sortu zanian,
ez egoan gogo onian;
ogeita amar urte bizi bear,
gau t'egun lanian...
Bedar sikua janian,
eta ura edanian;
olango amar urte be naiko
ditut lur gaifian.

Txakurrak be ez eukan pozik
atera eban zaunkotsik...
Ogeita amar urte bizitzeko
ez eukan biotzik.
Uda ta negu ortozik,
lan asko ta beti gosik...
Jauna, ogei urte kendu, edo
berton itxi illotzik!

Irugarren tximiñua,
umien demoniñua;
ogei urte bizi bear eta
ak negar-soiñua!
Beti brinko ta kiñua,
danak berari tiñua;
Onela bizi? amar urte be
lar dala diñua.

Gizona dator laugarren,
koroï bat or non dakarren;
beste guztien errege dala
erakustearren.
Baïña laister il bearren,
ogeita amar urte barren...
«Piztien sobrak artuko neukez
Jauna, nik pozarren»!

Orra gizona samifiez,
munduan bizi ezifiez!
Bere bizia luzatu naiez
pizti-ondakifiez.
Gizon da, zentzun-adifiez
eta ez azur-mamifiez;
ogeita amar urtetik aurrera
zer garan jakin ez...

Ogeitamartik aurrera,
berrogeitamar aldera,
asto-lan naiko etortzen jaku
bizkarren gaifiera.
Andik ogei bat urtera,
txakur gaixuen antzera;
azkenian, tximiño eginda
umien antzera...

Orra bertotan ipuiña,
Aita Martzelek egifña;
Azal-azurrak itxita, artu
bere egi-mamiña.
Danok bizi gura, baiña
obeto alan bagifña!
Olan beintzat, ez gendun izango
«pizti-ondakiña».

EZIÑA EKIÑAZ EGIÑA

(Doiñua: 18)

Egin be egiten da gaur lanik, aalegiñik! Ze papel, batzar, kale-jira, ekintza... Eta frutua noizko? Egu-aldi txarra danean, artoa be ez da beingoan elduten. Eroapena ta iraupena danen gaiñetik. "Pena" asko da, baiña ainbeste eroan ta irauteko dana bear.

Aintxiñako "eziña", luzaro "ekiñaz", azkenerako "egiña". Dana ta betiko egiten bada, akabot! Ez aaztu balioko gauzak astiro astiro egiten dirala; oillolokiak ze egotaldi arrautza-gaiñean, txitatxoak noiz jaiokot! Eta gero gerokoak.

Udaldia joan da
orain udazkena,
izerdien frutua
gaiñez dakarrena.
Batu danetik erein,
au da ondorena;
ortxe dauka gizonak
bere itxaropena.

Domu Santu ondoren
Arimen eguna,
zegaz poztu daukagu
barruko illuna.
Semendian lurrera
botaten doguna,
berbirtuko da gero
bizi barriduna.

Mundua aurrera doa
au ez da lengua,
noiz ta zer ikusiko
da pentsamentua.
Mundu barri bat egin
da gaur talentua,
itxaropenez dator
beti Abendua.

Mundu barriaz beti
izango amesa,
beti barriago nai,
azkenbako leza.
Gauzak ikasi, asmau,
bai dala erreza!
Egiteko orduan
dator ezin-eza.

Dana neurtu bearra
dogu gaurko grifa,
ortik, neurtzen ez dana
sifistu eziña...
Aalegindu egiten
al dogun pitifia,
ez aztu au: «Eziña
ekiñaz egiña».

Leen da gaur bardin gara
gitxi gora-bera,
alperrik jarri danok
atzekoz aurrera.
Gauzak euren legetik
ezin leiz atera,
ez da ifior gizondu
goizetik gabera.

Bat edo beste dala,
badabil jarduna,
norberenak aaztuta,
ifior erruduna.
Kontuz, gero, sifisten
or ziar entzuna!
entzunak entzunda be,
ez galdu zentzuna!

Dana dauka munduak
errez ta oparo,
laban, bikain ta goxo
gaur zenbat berbaro...
Olakoai entzuten
ez egon luzaro,
aixkide, sasitik ez
makatsik itxaro!

Ibilli dabil beti
munduko burpilla,
burpillaren barruan
gabiz aintzat milla.
Ez lotuta gelditu,
bizi beti billa;
itxaropenez ekin,
aurera, mutilla!

Munduko bizitzari
ez asko eskatu,
ondoren ez gaitzean
geiegi kezkatu.
Gauzez betetzen dana
laster da naskatu,
morroi jausi baiño leen
oba da askatu.

Ez ezarri bizitzan
muga ta ordurik,
Jaungoiko Aitak dauka
naiko akordurik.
Ez dago arantz-bako
lorezko orturik,
ez lore-bako sasi
ta basamorturik.

Semendiko giroa
orbel ta azia,
egoia ta iparra
txandako aizia.
Orra, ona ta txarra
naasteko gauzia,
onera jokatzeko
daigula grazia.

Gogoz badarozu
«Kristiñau» izena,
ezaugari bat dago:
da itxaropena.
Illeta-maiñak itxi
ta euki kemenena,
orretan agertzen da
gure sifismena.

Belen'en jaio zana
il zan Gurutzean,
gaur berbiztuta dago
Aitaren Etxean.
Itxaropen berbera
dogu biotzean:
Beti biziko gara
Kristo'ren antzean.



URKIOLA... ARNAS-LEKU

(Doiñua: 35)

Anboto-mendi bizkar-gaiñean
dago gure Urkiola,
Euskalerrriak amar gizaldiz
antxe dau bere Jagola.
San Antoniok zintzotasunez
beti laguntzen deutsola,
antxe garbitzen ta barrizten da
Euskaldunaren odola.

Troka-zulotik igesi goaz
Urkiolara askotan,
arnas garbia, bizi barria
nasai artzeko gogotan.
Buru ta biotz zorabiauta
urietako laiñotan,
garbitzen jakuz Urkiolako
eguzki eder gozotan.

Bide aldatza, bide luzea
Urkiolara doana,
or barrenean gelditu beite
nasai bizi nai dauana.
Gorputza sendo, gogo zindo
nai badituzu, laztana,
Urkiolako bidean gora
laster zara Jaunagana.

Burdin-artetik atsedeen-billa
txoritxo lez igesi,
Urkiolako pagadietan
antxe naz barriro bizi.
San Antoniok bakardadean
bai ondo be erakutsi:
gizona bere jabe danean,
orduñ dala nagusi!

Mendira igon, atxean jarri
egon ta egon begira,
bai dala aundi gure Jainkoa
siñismenaren argira.
Gizonen etxe ta gauza danak
ain txiki geratzen dira...
arrokeria kentzeko, zoaz
Urkiolako mendira.


Turuta, txistu, zarata-otsa
dardaraka gau ta eguna,
Urkiolara orduko, barriz
argitzen jata zentzuna.
San Antonion bete ondoren
Jainkozko eginkizuna,
an inguruko bakardadean
jaunak, zer askatasuna!

Asarre-mifiez erreta dagoz
gizon geienon erraiak,
Urkiolara eldu orduko
guztiok gara anaiak.
Eleiz ta mendi, zer bake-lekul
oberik ez dau Bizkaiak;
Anai gaitezen deika daukoguz
Urkiolako kanpaiak.

Urte Santua dala-ta, dago
Urkiolan gaur jarria,
Bizkai-erriko fededunentzat
parkaziñozko iturria.
Urkiolako mama goxoak
asetzen dau egarria,
fede-indarrez joan ezkeru,
artzen da bizi barria.

«Gora Jainkoa zeru-lurretan,
gora bai bere izena!»
Urkiolara joan-etorriak
indartzen dau sifiñsmena.
Urte Santuan barriztu daigun
Jaunagaz artu-emona,
Urkiola da orretarako
dagon biderik onena!

Jaungoikoagaz adiskide ta
gizon guztiekaz lagun,
au egiteko, or Urkiolan
zer leku ona daukogun!
Alkartasuna barriztuteko
leku obeagorik nun?
Urte Santuan Urkiolatik
izan daigula Osasun!!!



AITITAREN URTE BARRIAK

(Doiñua: 21)

Aitita gaixo bat naz,
—gaixoa benetan!—
urte bat ikustean
bere azkenetan.
Urte zaar ta barriak...
ori da amesetan.
Urte Barririk ez da
larogei urtetan.
Iñoiz baiño zaarrago
Urte Barrietan.

Beti nago miñetan
biotz edo buru,
niretzat joan ziran
dantza ta inguru.
Jarri, etzun naiz jagi
ez nago seguru,
zaarra zer dan ikasi
ona, neu liburú:
Urte Barri niretzat
da Domu Santuru.

Nire txori ta lorak
artu dabe igesa,
beste soñurik ez dot
eztul ta inkesa.
Or Ifuzente gabaz
izan dot amesa:
Loteria jausita
nintzala markesa;
zerbait nintzalakoan
auxe da bapezal

Gaur San Esteban dala
biar San Bixente,
gazte dan artian bat
ba dabil dexente.
Natibitate gabaz
dantzan ainbat jente,
Ifuzente egunez
ezin egon tente;
ibilli be ba gabiz
amaika ifuxentel

Larogei urte bete,
beteak balira...
orain dakit geienak
utsik joan dira.
Gaztetan zoro zoro
milla jira-bira,
gaur ezer ezifnean
leenari begira;
zaarrak eroan ezin,
ta Urte Barrira?

Sasoiko nintzanian
ni nintzan mutilla!
Dirua ta jolasa
lagunak eun milla.
Gaur lagunik bajatort
neu lako kaxkilla,
lagunak ta Jainkoa
danak kontu-billa.
Burririk ez daukanak
a zer lasto-pilla!!!

Aurtzaroko urteak
izan ziran labur,
gaztarokoak, barriz
ain goxo ta samur...
Zaartzarokoak ustel
azur eta zimur;
Ona, danak batera
jarri nabe makur.
Nireak egin dau-ta,
ni ba noa, agur!

Urte zaarrak barrizten
 ainbeste denpora,
 ez jat txorta makala
 etorri lepora!
 Naiz emen txarto egon,
 nok nai dau kanpora?
 Bertokotu baiño leen
 joan bear auzora,
 nai-ta be ezin biurtu
 barriro leengora.

«Itsuak be igarri
 noiz dan Urte Barri».
 aurtengoa bekigu
 guztioi pozgarri.
 Ta ospatu daigula
 egun auxe sarri;
 ta bien bitartian
 lagundu alkari,
 bestelan, gaur ta beti
 gu «txarri-belarri».

Belen, en jaio zaran
 O Aurtxo laztanal
 Makuluen gaiñean
 nator gaur Zeugana.
 Urte zaarrez beterik
 aulduta dan-dana,
 auxe da gaur eskatu
 gura deñsudana:
 EMON URTE BARRI BAT
 ZAARTUTEN EZ DANAI!!



MENDI-ZALEAK

(Doiñua: 11)

Emen da udabarria,
 betor ondo etorrial
 Egun sentiko argi biguna
 au egun zoragarria
 Berez sortu jat nere barruan
 mendirako egarria.

Kaletik noa mendira.
 laño ketatik argira.
 Eguzki, aize, zugatz ta pizti
 begi-biotzez begira...
 arkaitz-gaiñeko bakardadean
 barriz jaio naz bizira.

Begiak zabalik nago
bardin belarri ta ago.
Leio-betean bizi barria
gero eta barrurago.
Arnas ta soifü, edertasuna
mendian guraiña dago.

Gora zerua ta lurra
artu gaur nire agurra.
Zelan amaren sabel beroan
noiz jaioko dagon aurra,
alan nago gaur noiz ikusiko
zeruko Aita samurra!

Zeru-lurraren zabala,
nun ete dauka egala?
Bero gozoa dogu benetan
gure Aitaren magala!
Zer poztasuna au jakitean:
bere besotan naukala!!!

Udabarriko pilpilla,
kantuz txoriak eun milla!
Ainbeste gauza entzun-ikusiz
ni arago noa billa;
aizeak dakar an-or-eremendik
Jainkoaren dei ixilla!

Mendiko artu-emona
nirentzat zer zorional
Izadia dan «sakramentuan»
Jainkoaz bat da gizona...
Alkarren alkar izanaz biok
guztia dogu BIONA.

Kalean milla asarre,
ta mendian irribarre!
Alkar-burrukak, estu-larriak
garraztasuna dakarre;
gure mendiak osatu dabe
ainbat gatx ta biotz-erre...

Amaika traba ta kate,
bildur nok egingo kalte.
Bizitzan zear badau gizonak
naiko zoritxar ta naaste!
Neure buruaz jabetu nairik
mendi-gaillurra dot maite.

Izan gaitezcan euskaldun
era batera fededun!
Gure izate au indartzeko
orra zer bide daukagun:
MENDIZALEAK izan gaitezcan
ez aaztu oiña nun degun!!!

TRUK... TRUK... TRUK...

(Doiñua: 24)

Zu bai bizi ondo! Auzoko beiak erroak luze. Egi-egia esanda, eroan eziñeko buztarririk nok? Axe, buztarrarian ondo ezita egon bear, eta Jaunari sarri egin dear. Mutillak, bizitza ez dok errota makala, bertan sartzen dana artagaraua ala arrikoxkorra dan igartekol Jokabiderik onena zein? Egonaz egonaz eta egiñaz egiñaz, bizitzari bere martxa ta buztarrari bere neurria artu bear; norbere alboan dagon barrre-zantzoa ez bakarrik, negar-ulua be sarri entzun bear. Beti besaka edo botaka ibilteak be mesederik ez dakarrela ta... konpromel!

Gizonaren bizitza
azaldu nai neuke,
gurutza ta negarra
izaten da merke.
Baiña guk bape barik
bizi gura geunke,
eta beti gagoz prest
egiteko truke;
«Ni beti nabil gaizki,
zu lez bizi leike».

Jainkoak ikusi dau-
gure jokeria,
eta bein jarri eban
gurutzen feria.
Ferira dakarrela
bakoitzak beria,
eta danen artian
egin aukeria;
«aukeraren maukera»
da esakeria.


Leenengo gurutza da
eun milloi pezeta,
baiña bular-auspoak
gaixoaz erreta.
Orduan ixildu da
batzuen illeta;
ori baiño ohea
leengoa dot eta...
Noan etxera pozik,
ni naizen kaxketal!

Errege-bizitza da
bigarren gurutza,
itsuan bere billa
gizon arroputza...
Beingoan sortu jako
pinpun tiro-otsa.
Bildur ikaratu da
guztien biotza:
obe dok geu lez bizi
janaz zuku otza!

Lurralde aberatsak
 datozen irugarren,
 baiña andre zital bat,
 orixe da txarren!
 Gurutza ori kendu
 Jaungoikoa, arren!
 Obe dok il, orrekin
 ez bizitzearren...
 Noan arin etxera
 leengoaz pozarren!

Azkenerako dago
 kotxe bat «peñota»,
 ilteko arriskuaz
 baztarren bat jota.
 Batek laster artu dau
 ta berea bota.
 Egun bi barru il zan
 azurrak eiota...
 Zertarako burua,
 zerik ez dago ta!?

Auxe dogu gizonok
 betiko karrera:
 kate danak etenda,
 jo ta su larrera.
 Baiña uste baiño leen
 kolpezko barrera;
 Nork nai zorionezko
 etxeko sarrera?
 Gurutzak eraz artu
 ta ekin aurrera!



AMAIKA OLAKOI

(Doiñua: 17)

Azeri bat bizi zan
 Bizkargi mendian;
 okerragorik ez zan
 Bizkaia guztian.
 Batian ardia ta
 oillara bestian,
 beti eukan janari
 naikorik etxian.

Laister aguretu zan
 azeri maltzurra;
 ulea jausi arren,
 a beti lapurra...
 arek eukan kolkoan
 ilteko bildurra!
 Alan ilten bazan, bai
 inpernu ziurra...

Garizuma dala ta
mixiñoak datoz,
azeria be an da
autortzeko asmoz.
Berakatzaz begiak
bete ditu malkoz,
ta Kaputxiño bati
danak esan deutsoz.

Praillea asarretuta,
ango asarrerik!
—Damurik ekarri dok?
Jango dok oillarrik?
—Ez, jauna, ez dot eingo
gaurtik gauza txarrik;
negarez biziko naz
mendian bakarrik».

Esaten dagoala
bere «konfiteor»,
oillar batek joten dau
kukurruku gogor.
—Ene, jauna, difiotso:
ibilli bei bixkor!
—Zer dozu, ba, azeritxo?
—Zera: oillarra or»!

Azeriak azeri,
ta kontuak kontu,
baifia azeri-kontu au
egi utsa dozu.
Milla «azeri buztanmotz»
edonun dituzu:
«damu dot» esan arren,
leengora jo ta su!



ORAINDIK EZ DA AZKENAI


(Doiñua: 6)

Gure artean askotxo dira
denporaren igarleak,
aspaldi baten, beti diñoie:
«Badatoz denporaleak»!
Benetan edo plantan,
beti illeta kantan...
Enei, zelako aleak!
Kaxkallotxo bat ikusi orduko
muridu beteko baleak...

Orbela jausi, azia erein,
orixe da semendia;
orain usteltzen diran aziak
laster lorez emen dia.
Au, ori ta bestia,
dana ez da pestia!
Ez ikaratu jendia.
Ez da zelaia, au da adorez
igo bear dan mendia.

«Sekula santan ez da gertatu
gaur ikusten dan konturik».
baiñan bestetik, ez da iñoiz izan
gaur bezelako mundurik.
Negarrak eta pozak
i, txandaka jatozak...
ez jakin egun ta ordurik.
Ez leen ta ez gaur, ifun ez dago
bedar txar bako orturik.

Gorengo Jauna aalguztiduna
estalpetxo baten dardar,
gogoz ikasi nai dabenentzat
zer irakatsi badakar...
Naiz jo ta su ekin
aalegiñak aalegin,
«Nik ezin dot» esan bear.
Berak egin ta esan ebanez:
Danok artu daigun alkar!



KRISTAU-ALAITASUNA

(Doiñua: 6)

Aspaldi baten gure artean
bada odol ta negarra,
gorrotozko su-garretan dago
Euskalerriko baztarra.
O, anai euskaldunak,
oneik dira egunak!
Izan adore indarra.
Oraintxe dogu Kristo Jaunagan
danok alkartu bearra.

Jakituria, aurrerapena
arrigarrizko teknika,
geienak dira giza-zentzuna
lotaratzeko botika.
Beterik baiña utsik,
barrez baiña ez pozik...
au aldrebesko praktikak!
Alaitasunez bizi izateko
ez da bear Amerika!

Munduak ezin leike asetu
gizonaren egarria,
edanago ta egarriago
au da gaurko gatx larria.
Jesusek daukan ura
edanaz zenbat-gura,
sortzen da bizi barria.
Ikasi daigun nun jaioten dan
alaitasun-iturria.

Gizon guztiok anaiak gara
auxe da gure oiñarri,
anai-arreba lez maitatzea
ez al jaku au pozgarri?
Alkargana zabaldu,
ez gero iñor saldu...
zintzo lagundu alkarri.
Alkar-laguntzan daukagu poza,
galtezen onen egarri.

Eguneroko bizitzan doguz
alaitasunezko tantak,
egualdi ona ta osasuna
ume-jolas, gazte-kantak.
Tantaka da eztiá,
amesa da bestia;
uxa guzurrezko plantak!
Neurriz biziko bagaña, agur
gure arteko demandak!!!

Pobretasunez bizi izan dira
milla martiri, birjiñak,
penitentzian neurribakuak
lanean ezin-bardiñak.
Baiña pozik ta alai
dabiz astegun ta jai,
zer dira euron dotriñak,
Jaunak bakarrik bete leikiguz
gure barruko oziñak...

Gizon lurkoiak ezin ulertu
jokera onen zentzuna,
gauzez ta lurrez ezin dau bete
Jaungoikoaren utsuna.
Jainko-etxe leikena
da gauzen almazena.
Gizon «dana» barik «duna»!
Eukiago ta pobreago da
neurritz jokutzen ez duna.

Gizon guztiok berez daukagu
pekatuaren emoiá,
barrutik ondo garbitu ezik
gizona da berekoia.
Maite daigun Jainkoa
eta bardin urkoa;
bota garraztasun-loia.
Eta Jainkoak emongo deusku
alaitasunaren doia.

Nazaretoko Jesus gizona
axe bai gizon alaiá!
Esker onez ta kantuz biotza
gizon guztien anaia.
Berbaz ta egitetan
bete eban benetan
zeruko Aitaren naia.
Alaitasunez bizi nai dunak
Berari jarraitzen saia!

Jesus Jaunaren jarraitzailea
bizi da itzaropenez,
berbizitu danak betetzen dau ta
Beragandiko almenez.
Santu triste ta larri
da santu barregarri...
lendik esaten dabenez.
Jesus gurekin egon dago ta,
zelan gu bizi aienez?

Zigor, espetxe, oifitza, miñak
olakorik etortzean,
kristau bagara, ez itxi Jauna;
iraun gogor otoitzean.
Ez biotzak gogortu,
sifismena autortu
larrialdj bakoitzean!
Alaitasuna ez dau faltako
olakoak biotzean.

Munduan zear zabaldu daigun
zorionaren azia,
alde onetik erakutsiaz
dana dalako gauzia.
Erein alaitasuna,
ori da osasuna
bizteko gizon jausia.
Olan jokutzen dabenezat da
Jaungoikoaren grazia.

Neke-lorretan fedez jokatu
Jesus Jaunari begira,
Aren bideak fededunentzat
jarraibide onak dira.
Zergaitik itxi Meza?
bai protesta erreza...
ordez egin kale-jira!
Bear-orduan joan bear da
indarraren iturrira!!!

Negar-illetaz eta gorrotoz
zarkuldutako mundua
gaztediak gaur ezin onartu;
ain ikusten dau galdual
Kontra egifiaz dear,
kabi barri bat bear
bakezko bizilekua;
egin daigula mundu barri bat
poz pozik bizitzekual

Alta Jainkoak seme-alabok
pozik ikusi nai gaitu,
bere Semea bialdu euskun
eta gizonok alaitu.
Aalegifiak aalegin
alkar alaitzen ekin,
ez gero ifioiz gogaitu!
Zorionezko zerura arte,
danok ekin ta jaraitu!!!

ITSUA TA ERRENA

(Doiñua: 12)

Zelan izan zan? Txaton eta Peru auzotar ei ziran, kontizu. Peru zurezko etxetxo baten bizi ei zan eta Txaton gatzekoan. Bein baten, Txaton Peruren etxera doa, orioa bear dabela ta, eske. Peruk orioordez, birao ta juramentu, ostikoka botaten dau ondotik. Txaton asarre-bitsetan etxera doa, eta juramentuakaz edo, Peruren etxe-gaiñera sugarra ekarriazo dau. Gure Peruk ozta ozta bizirik urten dau sutatik, baiña abe batek jota anka biak ausi jakoz.

Txantonen pozal Oriorik ezak penatan baiño, Peruren ondoezak pozetan geiago emoten deutso. Aor Peru, goian zerua ta bean lurra. Berez gizon petral, zital, prestueza izanik, berari dagokion ezau-garria aldian dabela: Anka bietatik erren. Erren zuzenik ez ei dago. Egon be, zelan egongo da, ba, erren zuzena?

Peru, errenka errenka ta arrenka arrenka, (premiñan egoan ta) ba doa Txantonen etxera:

—I, Txaton, leenak leengo, mesedetxo bat egin bear deustak.

—Ken akit begien aurretik, Peru!

—Entzuik, Txanton, ik ugari deukok euki be ta, emoidak gatz pixka bat.

—Iri gatza? Leenago uretara botako juat.

—Uretara? Bai, laster joango jazak gatzok uretara edo pikutara! Zeruok, zabaldu ta ixuri zaparrada batzuk etxe onen gaiñera!

Esan ta izan. Agur Txantonek gatzak! Gatza baiño izan ezpalitz, gatxerdi. Txanton ondamenti aretatik urten nairik ebillela, gatz-txipritziñez begi biak erre jakozan eta itsu geratu.

Orduan bai Peruren poz-aldarak! Anka erren ta guzti be, aren ijutiak! Txantonen negar-soiñura dantzaz edo... Iñoren aienak norbere gatzak osatu. Or daukozuz Peru ta Txanton erren ta itsu, biak bietatik, mixeri gorrian.

Baiña eziñak ez ei dauko legerik. Ba doa Peru katamarran Txantonenera eta ba diñotso total-motel:

—I, Txanton, leen alkar ez laguntzearren, alkar ondatu dogun lez, orain zergaitik ez dogu alkar onduten, alkar lagunduaz?

—Ez dok gitxi uste, Peru. Amesetan abil, ala? Onak gagozak gu alkar lagundu ta osatzeko! Ori leen, ori leen...

—Bai, Txanton: Gorrotoak mirariak egiten dituala kalterako? Ba, alar-maitasunak aundiagoak onerako.

—Eik kontu: I, Txanton, itsu ago ta ni erren.

—Bai. Peru, ori bistan jakok, iretzat beintzat.

—Ik ezin dok ikusi ta ni ezin nok ibilli. Ba deritxok, ni ire ankaz ibilliko nok eta ik nire begiekaz ikusiko dok.

—Ori dok eta, Peru! Bururakizun egokia eureal

—Ori baiño geiago oraindiño: Egun bi barru, Urkiolako San Antonioren eguna dok eta bertara joango gaituk, Santuari alkarren alde erregutzero.

Bata baiño bestea pozago, tapa tapa or doa bikotea Urkiolara. Txanton ortozik Peru arrelepo dabela; Peru errosarioa eskuan artuta. Urkiolaratuta gero, etenbako errezu ta ekiña santuaren aurrean. Eta apurka apurka, Jaungoiko santual, itsua ikusten eta errena ibiltzen asten dira. Ikusteko be olakorik! Alkarri lepotik oratuta, arein ijutiak eta irrintziak! Eleiz-aurreko zelaian botatako bertsoak dituzue onako oneik.

Peru

Ona emen lagun bi,
Peru eta Txanton,
danoi ongi etorri,
biotzez egunon!
Gure pasadizuai
danok adi egon,
Urkiolara dogu
lagun biok igon,
orra San Antoniok
gaur zer deuskun emon.

Txanton

Gu biok izan giñan
alkarren auzuak,
batak ezin ikusi
bestien pausuak.
Izan genduzan biok
geure arazuak;
danak galdu euskuzan
euriak ta suak;
eta geratu giñan
ai, arren-itsuak!

Peru

Batak ez eukan surik
besteak ez gatzik,
ez genduan kendu nai
ez alkarren gatzik.
Ez genduan ikusten
norbere akatzik,
eta ez euskun emon
Jaunak bere grazik,
ta ez jaku geratu
guri leengo antzik.

Txanton

Batak enbido eta
besteak ordago,
iñok be galdu nai ez;
untzea or dago.
Azkenean bigundu,
bestelan akabo...
Osasunean baiño
gaxoan batago,
eskarmentua artu
guk baiño leenago!

Peru

Neure anai-arrebok
ez aaztu au, arren,
mundu dana dagola
ikasi bearren.
Au neu baiño obeto
ez ikustearren,
biok ondatu giñan,
auxe dala txarren:
ona, bata itsua,
ta beste au erren.

Txanton

Alkarren ontasanak
artu atsegiñaz,
ez gaitezela poztu
besteen samifiñaz.
Ez dator gauza onik
alkar kaltegiñaz,
alkar lagundu daigun
beti aalegiñaz,
auxe ikasi dogu
Jesusen dotriñaz.

Peru

Ikasi ondo: danok
gaur gure eskola,
munduko zoriona
ementxe dagola:
Ez ixuri gorrotoz
iñoren odola,
ezta txarrik opatu
besteai iñola;
ai, gaurko mundu ontan
dana balitz ola!

Txanton

Alkarrentzat izanik
biotzik bakuak,
ixuri doguz ainbat
negar ta malkuak.
Ementxe egin doguz
otoitz erreguak,
eta sendatu gaitu,
gu giñan gaixuak...
gure San Antonio
Urkiolakuak.

Peru

Itsua ta errena
Txanton eta Peru,
alkar ondatu gendun
ai, zer majaderu!
Leengo deabru biak
gaur gara aingeru,
gaixoak egin gaitu
alkarren bezeru;
ikusita diñogu:
auxe dala zeru!

Txanton


Maitasun-agindu au
artu daigun aintzat,
txit mesedegarria
dalako danontzat.
Neure bizian ez dot
nik aaztuko beintzat;
neure buruan ondo
ikasita daukat:
olan ezin leikela
zoriontsu izan bat!

Peru

Batean dala gatza
bestean orio,
uskeri batzuk gaitik
giñan arerio.
Baña gure biotzak
gaur poza dario;
ta zuri zor deutsugu
O San Antonio!
Ondo bizi, anaiok,
agur ta adio!

Txanton

Entzun dozuez danok
gaurko mirariak,
San Antoniok entzun
deuskuz eskariak.
Berari txaloak ta
esker ugariak,
eta danoi on egin
gaurko bazkariak;
danok zaindu gaizala
gure Zaindaria!



GIZONA BETI GIZON

(Doiñua: 4)

Kantatzera goaz gaur
kopla zaar barriak,
euskaldunentzat dira
kontsolagarriak.

Au dok bizimodua
au modu bizia,
eskuratu baiño leen
galtzen dan gauzia.

Urteak joan eta
urteak etorri,
ez dago dantzarako
Mari gona gorri.

Aiene ta oiene
au bizimodua!
Urteak ba duaz eta
neu bere ba nua...

Atzo nintzan illoba
eta gaur osaba,
etziko aitita naz,
lurpean ezpada.

Baneuko eta ba litz
balitz eta bazan,
alperraren etxean
arratoiak dantzan.

Zaarrak ganbelu eta
gazteak gaztelu,
geienetan gabiltza
prixaz baiña belu.

Oilloak kukurruku
oillarrak karkaxo,
olakorik jazo oi dan
etxearen gaixol

Kolkotik botatzean
plast, altzora jausi,
jokatzen dakiana
orixe da nausi!

Bein baten Erromara
joan zan astoa,
andik etorrita be
beti da leengoa.

Besteari esana
geuk egin bagendu,
onezkero guztiok
egin gífian santu.

Danak ondo dakigu
besteentzat mediku,
baiña norberak egin
bear domestiku.

Aal danean aal dantxo
ene gizontxo,
garizuman barau ta
pazkutan artxo.

Ez daukanak baleuka
ta daukanak dauka,
daukanak mauka mauka
ez daukanak zaunka.

Pozutik urten eta
itxasora jausi,
berez erren danari
bigarreña ausi.

Alkarren parekoak
ni, zu eta bera,
bataz beste or gabiltz
gitxi gora bera.

Bururik ez daukonak
txapel aundia nai,
txapelak buru utsik
ezin bete, jai jai!

Modu barriak eta
mañiak beti leenak,
zer diferentzi dauke
kaxkamotz-melenak?

Asto txiki izan ta
mando aundi bizi,
logurea kentzeko
ez dok mañia gitxi.

Beti dauko azurrak
ifontzat koipea,
baiña neuretzat beti
mamia ohea...

Ez daigula jokatu
batekoz besteko,
jan daigun bizitzeko
ez bizi jateko.

Bat irabazi eta
alako lau galdu,
martxa ortan laster dok
etxea be saldu.

Erren baten lepotik
barre egin baiño leen,
ikusi ia norbera
nolatsu dabillen...

Aizea buruan eta
ibilli munduan,
santuai erregutu
premia-orduan.

Ainbeste ikasita
ezin kendu mifia,
bista ona euki ta
ikusi ezifia!

Astoak astoari
egin bear azka,
bestea «peste» da ta
emoten dau nazka.

Betiko legea da:
«gogorrena alkate»;
besteak zuzentzeko
ba da borondate.

Eleizarako ez da
sarri izaten giro,
baiña plazara noa
astiro astiro.

Mesedeak autsetan,
kalteak arrian;
kontuz ibilli, lagun
olakoan aurrian!

Gizona beti gizon
leen, orain ta beti;
alan bearko da ta,
olan izan bedi!!!



ASTOAK EI DABIZ...

(Doiñua: 36)

Ipuiñak ipuin dira,
au gauza jakiña;
baiña ba dabez euren
azur ta mamiña.
Or doa gaurko nire
zortziko ariña:
Batzuen atsegia,
bestetzuen miña.

Aintxiña baten ez zan
munduan astorik,
eta gizona ezin
bizi asto barik!
Oñez beti ibilteko
ez zan adorerik,
gauzak erabilteko
ez zan kamiorik.

Jainkoa gizonakaz
errukiz beterik,
asto-talde aundi bat
dakartso menditik.
Oi, gizonaren poza!
alako besparik!
kamiorik onena,
gaiñera duarik...


Baiña gizonak gitxi
eta zeinbat asto!
Ez egoan eurentzat
naiko baba, lasto...
«Danok larregi dira
gure Jaun ta Jainko!
Alper danak kenduta,
onak dira naiko».

Jainkoak batu ditu
astoak zelaian,
alper eta beargin
guztiak naastian.
Gero onak eskuman,
alperrak bestian;
eta asten da Jauna
asarre bizian:

«Zuok, asto alperrok
ipiñi zutunik:
belarriak moztuta,
buztana gorderik.
An beean dago erri bat
gizonez beterik;
zoaze euren artera,
anka arin emendik!».

Millaka asto alperrak
zutunik ta tente
gizonen artean dabiz
ordutik gaur arte.
Astoak gizonak
esan ez baleike,
gizonak astotuta,
arima apartel

Ikasi zeñiek daukon
asto baten antza:
ardoaz galdu ditunak
zentzuna ta gantza.
Asto-olgetak dira
makiña bat dantza,
birao loi zantarrak,
or asto-arrantza!



EDURRA! EDURRA!!!

(Doiñua: 22)

Agertu jaku edurra
jantzi dau mendi-gaillurra;
ustekabeko egun-sentian
zuritu dau lurra.
Gabaz datorren lapurra,
alperrik jaso-egurra...
gaillur ta troka betetzen ditu
izanik apurra.

Edurraren izaera
siku ta busti batera,
ezbardiña da bere aurrean
artzen dan joera:
Ume-gazteak kalera
eta zaarrak epelera;
itsuak bere laster igerten
bere etorrera.

Zuria da, baiña baltza
au da edurraren antza;
esku-artean artu orduko
a zer saltsa-maltsa...
Zuria; ta ez da gatza;
bat dalakoan, bestea izan...
au bai dala latza!


Edurra jausi daneko,
guztioak gaitu mendeko;
auxe da, jaunak, biolentzia,
garbi esateko.
Protestak eta antzeko
emen dana da alperreko...
ta errudunik ezin arrapau
kartzelan sartzeko!

Negua edurrez zuri,
dana ederrez dirudi;
baiña beti lez, txiroak zimel
aberatsak guri.
Merkatariak urduri,
eskeinka milla apañduri;
oi, edurpean gordetzen diran
amar-milla zirif!

Atzoko lorak gaur orbel,
edertasun danak zimel;
txoriak aldran igesi doaz
dana dago goibel.
Gu, barriz, eztui ta ozpel,
otz-ikaraz, kikil, motel...
geienetan lez, obearen zain,
danak urten ustel!

Edurra dan bakoitzean
zer ikara biotzean!
Lurrak dirudi dagola ixil
dardar eriotzean.
Baña an lurpe otzean
azi-gorpua usteltzean,
bizi barri bat sortu dedilla
nago otoitzean.

Edurrean misterio,
artu daigula serio:
Eriotza ta bizi barria
ez dira arerio.
Kanposantuan erio,
Belenen Ebanjelio...
Kristau-fedeak, anai maiteak,
zer duan balio!!



AIENE TA OIENE...!

(Doiñua: 8)

Alene ta oiene
betiko illeta,
konformatu eziña
besterik ez da.
Danok nai gendukena
etenbako festa,
zerbait falta orduko
jo ta ke protesta.
Ate edo eta
auxe da naasketa!
Asarrez kopeta,
artu eskopeta
alkar ondatu tiroz
edo kolpeka;
beste asko xaxaka:
Ori dok-etal!

Gaurko gizonik asko
dago pot egia,
zoriontsu izan nai
eta ezia.
Errege zalakoan
edo erregia,
kixkaltzeko zorian
dago errekiña.
Ezin jaso mifia,
errez irakiña;
au, ori bagia...
amets atsegiña.
Beti eskutik iges
aidez sorgiña,
eta ezin iruntzi
egi gordiña!

Eskubideak beti
arturik goguan,
ez da giro izaten
orrein onduan.
Artzekoak daukoguz
sarri akorduan,
eta lepoa jaso
emoterakuan...
Artu au kontuan:
txori bat eskuan
obe da munduan
ez milla zeruan.
Garraxi ta aitzakiak
gorde kolkuan,
eta albait lasterren
sartu jokuan!

ANAI LUISEN ZIDARREZKO EZTEGUAK

(Doiñua: 3)

Zelangoa ete praille-bizitza barrutik? Zera: ez-tegu ta guzti! Baiña ez ezkontzakoak, konpontze-koak, baiño. Beste edomun lez, ondo irabazita gero. Esan daiala, bestelan, Anai Luisek. Berrogeitamar urte aundi, tirri ta tarra, sakua lepoan ta makilla eskuan, baztarrik baztar. Amaika sakukada eder komentural! Eta berak diñonez, sakukada indabak ez bakarrik, kolkokada lagun ta gorantzi be bai. Egi garbia esanda, prailleok Euskalerra guztiko soloeta-ko "artaxori" edo kurloi gara. Anai Luis izan da mirari ori egin dabena, beste batzuen artean. Gaur buruko kapela baltz biribilla zidarrezko koroï biurtu jako eta lepoko sakua, San Pedroren "ondasun-ku-txa". Zeure kutxakoak eta geure sakukoak gaitik, milla esker Luis!

Nok ez daki gaur Euba-aldian
zelango jaia daukogun,
orra gure Luis maiburu dago
ta Probintziala lagun.
Zidarrezko ezteguak ditu
ba da zerbaiten ezagun,
Zorionak ta egunon, Luis
izan bake osasun!

Gaur ospatzen ditu Luisek
zidarrezko ezteguak,
baiña zidarra baiño obeak
dagoz gaurko oillaskuak.
Olako asko egin ezkeru,
ez bakarrik zidarrezkuak;
errez beteko ditu urrezko
eta diamantezkuak...

Ez da errez ondo ikasten
mundu ontan zelan bizi,
orretan maixu ona dogu ta
ondo begiratu Luisi.
Aal dan bearra ondo eginda,
kopla ta planpliña gitxi;
«deskuidoren» bat izan arren be
ortxe dago Aita Patxi.

Zure urteak itxura baten
ez dira izan ain onak,
atseden asko ez dabe artu
zure besoak ta oiñak.
Tratu ohea merezi dozu,
ondo daki au diñonak;
orregaitik, gaur artu guztion
biotzeko zorionak.

Gure Luis onek maitatzen ditu
Jesukristo ta Golgota,
baiña ezin da luzaro egon
zeregin asko daukota.
Bardin dala ta, ate-zulotik
Jesusi mosutxo bat bota...
Olan ezpaltiz, zelan demontre
euki daukogun kokota?

Non eta zelan sakua bete
or dabil gure Luis estu,
millaka saku bete arren be
ba daukozu bai non ustu.
Etxera sartu orduko danak
sakura joakoz prestu;
saku bategaz mantentzen ditu
batera Euba ta Deustu.

Ez dira txarrak izan gaur arte
Luisek anka ta besoak,
indarrez ez dau iñon bildurrik
nok neurtu bere pausoak?
Ondo ezautzen dabe txakurrak,
iñongo solo ta auzoak,
berak diñonez; ni ba nabil ta
zuek egin errezoak!

Gizona ez da neurtzen, aixkide
berak daukon jakituriz,
eta bai bere eskuetako
frutu gozo eta guriz.
Jaunak apaindu zaizala goian
zidarrezko koro zuriz,
ondo merezi dozuz ta artu
gure ZORIONAK Luis!

26

The musical score consists of five staves. The first staff is the melody in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. The second staff is a piano accompaniment in treble clef. The third staff is a piano accompaniment in bass clef. The fourth staff is a piano accompaniment in bass clef. The fifth staff is a piano accompaniment in bass clef, starting with a 'rit.' (ritardando) marking. The score ends with a double bar line and repeat dots.

ZELAN KONPONDU MUNDUA


(Doiñua: 26)

Emen nozue bizirik
 badauka onek grazirik;
 poztu alkar ikusirik.
 Abendua da, urte azkena
 ez aal da irabazirik?
 Euki ondo ikasirik:
 ez dala bear azirik,
 kentzen ezpada sasirik!

«Au da munduaren txarra»,
 au bai esaera zaarra!
 Ta beti esan bearra...
 Mundu zati bat konpondu leike
 konponduz etxe-baztarra.
 Kendu ondolik negarra,
 ta zabaldu irribarra;
 ori da bide bakarra.

Iru euki ta zortzi nai,
 au, ori eta a be bai;
 olan ezin bizi nasai...
 Usteak uste, dozak aixkide,
 ez ibilli euren jarrai!
 Uxa aideko txoriai,
 begiratu eskukoai;
 eta bizi adi alai!

Belengo Ume txikia,
 Jainkoa gizon egia;
 ondoan Ama Birjia.
 Mundu barriko bide zuzenak
 irakasten maixu fia!
 Jarraitu bere dotria,
 egin beintzat aalegia;
 ai, gaur asiko bagia!



GURE ERRIKO «NAGUSIAK»

(Doiñua: 11)

Jubilatuak gara gu
 esan bearra daukagu.
 Irurogeitaz urtetik gora
 lepora pillatu jaku;
 «irugarren edadea» ei da,
 izen politak asmatu!

Mendian jaio ta azi,
 antxe ogia irabazi.
 Gazte denporan maite minduta
 alkar maitatuten asi;
 seme-alabak azi doguz ta
 ez aal da naikoa grazil?

Ez dogu asko zientzirik,
 bai naiko esperientzirik...
 Urteak barik, ez da erreza
 eukitea pazientzirik;
 bizitzak berak erakusten dau,
 ez da bear lizentzirik.

Badakigu zer dan eza,
 ifior ez gara markesa;
 beti izan dogu ago bete bat
 arto ezpada tremesa...
 alan be eutsi! Au ez da gero
 autzen gabeko amesa!

Bizitza ez da samurra,
 au bai egi bat ziurra!
 Baiña ogia irabazteko
 dantzatu dogu atxurra;
 ainbeste urtez ez dogu ukatu
 aal izan dogun apurra!

Zaarraren tranpak nok jakin?
 Ezetz arrapau ain arin!
 Testamentuak egin arren be
 notarioen firmakin,
 danak billatu nai dituanak
 asi bearko santuakin...

Asaben lege zaarrian,
 alan da Euskalerrian;
 Jesukristoren dotriñaz gabiltz
 ber lege ederrian;
 orain da beti auxe izango da
 lege gure baserrian.

Edadez goaz aurrera
ta ezin joan atzera.
Erri guztiko edadekuak
alkarren premiñan gera;
zergaitik gu be ez gera alkartzen
beste guztien antzera?

Umeak jaio ezifirik,
ta gu zaarrek pot egifik.
Gaurko munduak ez dau egingo
gugaitik negar zotifirik;
ez da txarrena, beteko balitz
Jesukristoren dotrifirik!

Senar-emazte lagunak,
eta bardin alargunak:
urte askoren mende gagoz ta
ondo igaro egunak;
Osasunak uts egin arren be,
lagun daiskula zentzunak!

Guk emon dogu geunkana,
osasun, bizi ta dana...
Gure Jainkoak bedeinkatu bei
emen egin dogun lana;
eta saritzat emon daiskula
danoi zeru eder bana!

Gaztetzako aolkua,
guk zaarrok emondakua:
Zuek zarena gu leen gifan ta
alkarri emon eskua;
laster izango zaree gu gaur lez,
au da txandako lekua!

ERRI-GOGOZ



AU DOK AU DEMOKRAZIA!!!

(Doiñua: 26)

Badogu demokrazia,
ai, berba onen grazia!
Artu geinke arnasia...
Txiki ta aundi, aspaldi dogu
buruz beintzat ikasia;
baiña saltzen dan azia,
ta zabaltzen dan aizia:
diktadore arrazia!

Danon garaxia-orra:
«Kendu eriotz-zigorra»!
Izan dogu naiko lorra...
Eta ondoren, gu alkar iltzen,
ori bai dala gogorra!!!
Ez, odoloren borborra,
ezta odolaren zorra
ezin lei odolez borra...

Gizona dala nagusi,
erria dogu lenbizi;
orixe da demokrazi.
Baiña gizonok berez daukogu
okerrerako minbizi;
neu naiz maixu, ta zu ixi,
neuk egingo dot justizi;
kontuz, nai badozu bizil!

Askatasuna eskatu
eta norberak ukatu,
ezin alkarri parkatu!
Berrogei urtez, eskola zarrak
diktadore egin gaitu...
Tiroz ta burlaz jokatu,
guzur ta egi naastatu;
au bai demokrazi alu!!!

Egunero albistia,
garraxika: «amnistia»!
Bardin kale, sakrastia...
Ondoren dator il bear diran
traidore danen listia.
Bata dalako izpia,
bestia, barriz, «istia»;
Au, gizona dan piztia!!!

Onela ez dau merezi,
eta ezin da igesi;
nunaitik kate ta esi.
Barrutik danok bear dogu ta
demokrazirako ezi.
Kendu ainbeste malezi,
txarra ta ona berezi;
ortik dator demokrazi!!!

KENNEDY

(Doiñua: 20)

*“Kennedy, ken adi”! Onena izanda be, ez da iñor
danen gogoko danik. Ori olan da, baiña gogoko ez
dala ta, beste barik jo ta tiro garbitu? Ori beintzat
ez da onena, gitxiagorik be. Kennediren erailketak
munduari dardar eragin eutson. Gaztea, indartsua,
txalotua, baiña jo ta beera. Arrezkero, Kennedy ta
Oswald asko izan doguz gure artean, zoritxarrez. Gi-
zonak alkar ilten eta ilten, eta iltearen ilteaz, ilteari
lotsa ta bildurra galdu!*

Milla bederatzireun
irurogei eta
irugarren urtean,
azaroak beta.
Oitairugarrenean,
zortzirak beteta:
munduak ikusi dau
Kennedyn illeta.

Jaiotzatik izan zan
kristau katoliko,
ta beti agertu zan
sifismen biziko.
Amak erakutsia
ez eban itxiko!
umeak zer ikusi
axe ikasiko.

Gaztetatik asita
gau t'egun ikasi,
ez zan iñoiz joango
lanetik igasi.
Laster zan Amerikan
guztien nagusi,
gizon orrek iltzea
ez eban merezi.

Berrogelta sei urte
sasoirik onena,
mundu-betekoa zan
Kennedy izena.
Dana zan zorlona
aintza ta omena,
onenean jatorko
betiko azkena.

Berreun milla oiuka:
«Gora bai Kennedy»,
Oswald gaiztoak diño:
«Ortikan ken adi»...
Emen iñor ez dago
bizitzeko beti,
jaio dana noiz ilgo
kontuz bizi bedi!


Ba gendun Amerikan
gizon atsegifia,
gorroto-laba ontan
bake-zale piña.
Ona gaur artu dogun
atsekabe miña,
bera iltzean munduak
egin dau zotifia.

Ai, Jakeline andrea,
gizonan bearrez,
umetxo biak orra
aitari dearrez.
Milloika gizon auspez
zotinka negarrez
tiro batek zer leiken
orra, zoritxarrez!

Jonson jarri da buru
Jon il dan orduan,
ta mundua ba dabil
betiko moduan.
Ez da bearrezkorik
iñor be munduan,
guztiok bizi gara
txandako lekuan

Danok gabiltza, ustez,
bakearen billa,
baiña nonai sortzen da
ainbat ixkanbilla.
Oswald ta olakoai
sugarrezko silla,
ta Kennedy zeruan
gertatu dedilla.

Beste Kennedy asko
munduan balego,
ez litzake izango
ainbeste eskeko.
Alkartu gaizuz, Jauna
goiko eta beeko,
ta Kennedy betiko
zeru goian bego!



(Doiñua:)

“Joseba Elosegiri”

EUSKALERRIAN EUSKERA

Guk ba dogu geure Erria
izena Euskalerrria,
Euskera maitagarria (iru)
da gure ezaugarria.

Beste errrien antzera
guk be ba dogu izkera:
Euskalerrrian euskera (iru)
leen, orain eta aurrera.

Ez gero euskera galdu
ta gitxiago zapaldu;
aal dan guztian zabaldu (iru)
ez gaitzela makaldu.


Naiz izan iru edo lau
geurea dogu beti au;
Ez da euskaldun ez kristau (iru)
euskera ukatzen badau.

Gu ez bagara jakitun,
euskera ei da errudun...
ez daijala iñok entzun; (iru)
ia zentzuna non dogun!

«Gora ta gora euskera,
gure izkuntza zu zera»
Gero jo ta su erdera (iru)
Madrillekoa berbera!

Naiz praille ta naiz abade,
bardin gotzaiña bada be;
euskera maite eypadabe, (iru)
dagoz gizontasunik gabe.

Zenbat zigor ta erbeste,
ikurrin ta euskera eske!
Maite badoguz ainbeste (iru)
non da ekintza ta beste?



ZER NAZ NI? NOR NAZ NI?


(Doiñua: 9)

ZER NAZ NI? NOR NAZ NI?
 AITA T'AMA, ESAN GARBI.
 —EUSKALDUN FEDEDUN
 GUK BOK SORTU ZINDUGUN.

Sarri entzun dot: «Euskerabako
 euskalduna da traidore»,
 Orain diñoe: «Gure euskera
 bakarrik dala folklore».
 Eskumakoak: Euskera barik
 bizi ei dira dotore;
 Ezkerrekoak: «Euskerak non dau
 gu biztuteko adore?».

Ikastoletan euskal umeok
 ikasten gabiltz Euskera,
 eta ainbeste euskerazko orri
 etorten jakuz etxera.
 Orri-artean, zeinbat asarre,
 gizonak ume-antzerak;
 batean atxe, bestean matxe...
 gu gizonagoak gara!

Ume guztiok, ondo entzun gaur
 zer difiotzuen lagunak:
 Maite daiguzan biotz-biotzez
 gure guraso kutunak.
 Maite euskera, maite Jainkoa
 euskal odola dogunak,
 orain da beti izan gaitzean:
 guk euskaldun fededunak!



«OGEI URTEKO ALABA»

(Doiñua: 1)

Ogei gizaldi dira ordutik
 Eleiz Ama sortu zala,
 zaarrago eta emonkorrago
 Ama au ez da makala!
 Milloika seme-alaba ditu
 beti sortzen sortu-ala,
 mundu beteko zabala dogu
 Amatxo onen magala;
 ez aaztu gero, au sortu dauna
 Jaungoikoa Bera dala.

Amar gizaldi baiño geiago
 eldu zan Euskal Errira;
 fruetetatik agiri danez,
 alperrikoak ez dira.
 Gizaldi zear bere frutuak
 jartzen bazara begira:
 Joan bearko dozu or zear
 Aprikara ta Indira,
 baiña batez be, Euskal Erriko
 uri eta baserriral

Euskal Erriko lurren galfean
 frutu askoren artean,
 praille ta monja pasiotarrak,
 nor ez dago jakifnean?
 Areik eun urte bete ditue,
 oneik ogei ospatzean...
 Erriko seme-alaba dira
 beste edozein bestean;
 Kristoren Barri Ona zabaltzen
 dabiltz erri t'erbestean.

«Gurutzeko Paul Daunaren Aizpak»
 ezagun dira izenez,
 Italiako lur zabaletan
 sortu ziran, diñoenez.
 Andik onuntza etorri ziran
 gogo bizi ta zuzenez;
 auzo ta etxe, jokatu dabe
 zintzo kristau-sifnismenez,
 eusko lurrean landaratxo au
 sustraitu jaku kemenez!

Ogei urtetan, nekez ta lanez,
bota dau emen sustarra,
kanpo aldetik datorren batek
euskaldun izan bearra...
Gure artean jaso izan dau
frutua ez ain kaxkarra!
Baita zabaldu munduan zear
barruan daukan indarra:
Ogei urteko Alaba baten
eun urteko «ama zarra»!

Jaínko Jaunaren Espirituak
Jesus sorrazo ebanak,
Arexek daki egiten noizna
modu onetako lanak.
Banakatxo bat esan ditut gaur
ezin esan diran danak...
Gorde daiala lirain ta sendo
Bizi Barriaren Amak!
Ogei urtek au merezi dau ta,
artu danon ZORIONAK!!!



AGUR BASERRIAI

(Doiñua: 29)

- Kale. Ona emen lagun bi
Baserri ta Kale
Baserri. Egin daigun bakotxak
norberaren alde.
K. Or konpon baserriak
naiz egon debaldel
B. Esanak esan, beti
ni baserri-zale.

- K. Nok maite izan leikez
baserri-bazterrak?
- B. Baserria ezin dau
maitatu alperrak!
- K. Nok maitatu leiz orko
zikin ta ugerrak?
- B. Orrek barik, bildurtzen
zaitu zu bierrak...

- K. Esaidazu, aixkide
zelan bizi zara?
- B. Kalean baiño obeto
neure golde t'ara.
- K. Ainbeste bear barik
gu bai bizi gara!
- B. Baiña gordeta leengo
sartain ta galdara.

- K. Zuena da basoa
gurea erria.
- B. Agaitik sortzen da emen
negar ta gerria.
- K. Ez uste danik beti
emen asarria.
- B. Emen uleak arro
ta mee gerria...

- K. Baserrian dagona:
lur, buztin ta basa
- B. Andik datoz zuk jaten
dozun porru t'aza.
- K. Olan daukozu beti
eskekoen traza
- B. Lapurrak baiño obe
eskeko-arraza!

- K. Non da zuen fede ta
edukaziñua?
- B. Or zeuk ikasi bear
dozun leziñua.
- K. Zuk zer dakizu zer dan
gure erlijijiñua?
- B. Lan gitxi t'ondo bizi
zuen erreñua.

- K. Ez dakizu zelan dan
zuk gaurko modia
- B. Zaarra ala barria,
zein ete obial
- K. Zuek beti zabize
ara ta goldia.
- B. Kalean gorputza mee
t'arima lodial

- K. Ez da gizonarena
zure erantzuna.
- B. Zuk ez dozu merezi
oberik, laguna.
- K. Ortarako nor zara
zu, abarkaduna?
- B. Baiña ez uste galdu
dodanik zentzuna.

- K. Emen gizon bakoitzak
maite dau beria.
- B. Orixe da, izan be
Jaunaren legia.
- K. Nik maite dot kale ta
bertako eria.
- B. Baita neuk be maite dot
baserri-aldia.

- K. Emen esan guztiak
parkatu bai, arren!
B. Bardin eskatzen deusut
neuk be Jainkoarren.
K. Zu bardin joango zara,
ainbat entzunarren.
B. Baita zeu be zeurean,
orixe da txarren!

- K. Agur ta bizi ondo
aixkide laztana!
B. Gogoan artuko dot
gaur emen esana.
K. Ilgo dogu txarria
aurten be erdibana?
B. Leenago ikasi ondo:
jana ez dok lana!



GURE ERRIKO LOREAK

(Doiñua: 11)

Udabarriko lorea,
ikusgarri dotorea!
Euskalerriko loretegian
lorea dozu umea;
egualdi txarra egiten dau ta
artu bear ardurea.

Bedar txarretatik zaindu
eta ingurua landu.
Koko xomorro ugari dabil,
amaikak gugandik jan du...
usaintsu, polit gareala ta
danak, nai norberagandu!

Lorea da apaingarri,
nork ez leuke nai bat jarri?
Baiña ez gara gu lore utsak,
frutu nai dogu ekarri;
gaurko umeak izango gara
geu biarko Euskalerrri!

Frutu zindoa nai dunak
zaindu loretxo bigunak!
Lore-aldian lore izaten
itxi, arren euskaldunak...
Eguzki bero, aize garbia,
orra, bear ditugunak.

Noiznai dira otz-beroak,
guretzat zer aundikoak.
Batean busti, bestean legor,
zenbat zer il-bizikoak!
Zuen eskutan gagoz gu beti
andereño, gurasoak.

Baditu milla baldintzak
loretxo baten bizitzak.
Gaurko loreak biarko frutu
biurtu daizan Aritzak,
zuen laguntza bear dogu gaur.
aintzat artu gaurko itzak.



« KRISTORENAK »

Milla ta bederatzireun urte
ta irurogeita amalau,
Jesus Belen'en jaio zanetik
ainbestegarrena da au.
Ta orren ondorena
da gure sifismena;
orregaitik gara kristau.
Gaurko munduan, kristau-izenak
zer esan gura ete dau?

Ume txikitán bateatuta
bedeinkatutako uraz,
Espiriturik ezpageunka lez
bakarrik gara itxuraz.
Mezara joan t'etorri,
bardin, kapela gorri...
beti nagi ta loguraz.
Kristorik bako kristau-bizitza
artu, ta' bizi oituraz.

Askoren lege ta jokabidea
marmarketa ta kritika,
neure bidetik ez doanari
adarka edo ostika.
Aupa gu ta gutarrak,
beste danak zantarrak!
ta zenbat erretolika.
Norbera ontzen ez dakit, baiña
bestelan bada pratika.

Beste batzuek, au ikusita,
agertzen dira samifiez,
gaurko dotriñak azaltzen jakez
prantzezez edo latifiez.
Orra ta ona dabiz
ezker-eskuma aldiz
eta nundik dan jakin ezi!
Itxaropenez jokutzen dabe
bide-billa aalegifiez.

Zein bat zein beste, bizitza barik
ustelak dira izenak,
izen-mizenak mamintzen ditu
gure bizitza zuzenak.
Kristiñau katoliku,
ta Martin katilluku?
Zenbat olan dabizenak!
Kristorenak garala esanda
gero egin «kristorenak».

Anai-arrebok zintzo jokatu
eta ez ifior baztertu,
badaukagu bai gaurko munduan
zer zuzendu ta aztertu.
Txarto dago ingurua,
ta norbere burua!
Bietan zuzen agertu.
Egiñaletan jokatu daigun,
baiña ez gero aspertu!

Neke askoren bidez ezpada,
ez dago irabazterik,
Merkeegi dan irabazteak
oi dakar naiko naasterik.
Zertako penitentzi?
Gaur dana da lizentzi...
Zer lege ta zer trasterik?
Baiña leen ta gaur, Kristo bat dago
eta ez dago besterik.

Au olan da ta bestea alan,
ai, gaur daukogun burua!
Asi orduko berez dakigu
azkenengo liburua.
Iñoren gauzak naastu
ta norberenak aaztu.
Norbera da aingerua!
Emen zerua, gero zerua
ez da gauza segurua.

Maite egizu biotz-biotzez
zure Jaun eta Jainkoa,
ta zelan dozun zeure burua
alan maitatu urkoa.
Jesukristoren gogoz
auxe ikasita gagoz
bardin klero ta laikoa.
Au barik dana dogu alperrik,
ta onegaz da naikoa.

Danok dakigu zelangoa dan
Jesukristoren dotriña,
ai, dakiguna egiz bizitzen
aaleginduko bagiña!
Ondo dago kultura,
gaurko barri-itxura;
bear dana da: egiña.
Au barik, Kristo zein akelarre
lagun, dana da bardiña!

INDARKERIRIK EZ!

Zer ete daroagu odolean? Beti alkarjoka emonalean! Umeak ixpillu: Nagusiaren jokoa: txikiagoa jo; eta txikiarena: miña atera eta aal bada azpijokoz "garbitu". Pizti geienak daukez euren adar, erpe edo ostiko. Eta gizonak? Biotz-errotan ze garau eiotean, alako uruna, alako tresnak erabilliko ditu. Nazaret'eko Jesusen dotriña ta jokabideari zer deritxozu? "Ez opa ta egin iñori zeuretzatt nai ez dozunik". "iñor neurtzen dozun neurri berberaz neurtuko zaitue", "kendu eizu zeure begiko abea, eta orduan ikusiko dozu obeto bestearen begiko samarra". Ai, lagun, au ez da berez gure lurtean erne ta azten dan landarea! Bai, bai, eskubideak eskubide eskatzeko danean; egiteko ta emoteko orduan, "ankabide"... Ekin eta eragin zuzentasunaren alde, baiña ekintzaille ta eragillerik gogorrena izan zan Nazaret'eko Jesusen bideak onartuaz.

(Doiñua:)

"Aita-semeak tabernan dagoz"

EZ DA LENGORIK, EZ DA GAURKORIK
EZ DAGO KRISTO LAKORIKI (bis)

Munduan beti izan ditugu
alkarren aurka indar bi:
ezpata edo zentzun biotza;
onetan nor dago garbi?

Gizon askoren jokoa da gaur:
«aal daunak naai dauana»...
Txandaka, baiña or jausten gara:
ori dan arri labana!

Piztiak ez dau zentzunik eta
jo bear adar ostikoz,
gizonok sarri, zentzun ta guzti
piztiago gara gaiztoz.

Okerrak zuzen jarri bear ta
nola edo ala ekin;
bide okerrez azken zuzena?
orrela ez goaz urrin...!

Zigor, espetxe ta metralletak,
petardo ta goma 2,
kostako jakuk bide ortatik
ezertan jartzea ados!

Zigorrez joka edo tiroka
lagun zintzorik ez dago;
ezti tantoaz euli geiago
upel bete ozpifuez baiña...

Iñor epaitzen jartzen ba zera
jokatu neurri zabalez,
biolentzia zeugan ikusi
ia ona dan ala ez.

«Gordeaz galdu, emonaz geitu»
au da Jesusen dotriña;
jaunak, bestelan gengokez emen
beralakoak bagaña!

«Etsaiak maite, lapurrak salbau,
iltzailleen alde erregu»;
gizon aundia nor dan neurtzeko
aukera ona or dogu!

Giza iltzaille bat il ezkerro,
biak bardin egin dabe;
bakoitzak ditu bere errazoiak,
baiña biak parez pare...


«Erri maite, neuk salbauko zaitut
jartzen banozu alkate»
Salbatzailleak morroi izan bear,
zeren zain zagoz gaur arte?

Diktadore bat iltzen da, baiña
or geratzen da azia...
legezko edo sasiko dira,
baiña «aitaren» errazia.

Ez errexena, bai zuzenena
Jesusen jokabidea;
otoi Berari, ez da ba ori
berezko abildadea!

Gora gizona, gizon dalako,
eta beera gorrotoal
orain ta beti emon daiogun
maitasunari botoa!!!

Errazoi danak dira alperrik
ezpadago sifismenik;
au ezifia da, onartu ezik
Jainko Aitaren Izenik!



«BAT BITAN BANATZEN DA»

(Doiñua: 5)

Erri baten milla zati,
zer gertatzen dan nok daki?
Guzur edo altxaki
bada ainbat estalki;
zer dabilen jakiteko,
«Aitaren» egin leenengo!

Jaunak, zenbat jira-bira
bardin ezker-eskubira.
Gernikan kalejira,
baiña, ta nortzuk dira?
Entzun euren garraxia.
«Gu gara demokrazia»!

«Demokrazia» Kantari,
baiña geu gara gidari;
lepokoak batari,
txaloak besteari...
Naiz entzun: Gora Euskadi,
txotxo, kontuz ibil adi!

«Demokraziz» lurra landu,
aal dan guztian labandu;
Erritarrak banandu,
alderdi bat laztandu...
Gu garalarik anaiak,
orreik ditugu etsaiak!

Gizonak gizonen aurka
sortu bear da burruka;
besteen egiak uka,
gure guzurrez truka.
Azkenean: «gu nagusi,
bestela, muturrak ausi».

«Bai baiña ez, ez baiña bai»,
argitan sarri dago jai.
Zer joko dan jakin nai?
Zer komeni dan, jajai...
Katua ala erbia?
—Bietatikan erdia!

«Zazpiak bat gerala ta
gurean zenbat zarata!
Milla zatitan bata,
or nun dagon ezpata:
«Bat bitan banatzen da»,
osorik arrapatzen da...»

Legetzat tranpa engaiño,
jausi gara, ta noraifio!
Eguzki ordez laifio,
ta eliz-barruraiño...
Erakutsi ezik tranpa,
txoria jausten da, zanpa!

Entzun anai euskaldunak,
oneik ditugu egunak!
Uxa laifio astunak,
eten kate, estunak;
Usoak lez izan garbi,
baiña sugeak lez argi!

ORI DA BIDEA!

(Doiñua: 8)

*Berrogeitamar urte, 400 baserritar kofradi baten
alkartuta, alkar-lanean! Au ez da gero auntzaren ga-
berdiko eztula! Baietz diño Mungi-aldeko baserri-
tarrak, eta beste ainbeste egiteko be prest dagozala.
Arazo-ardurak astun ta ugariak dira, baiña baserri-
tarren oiturari jarraituz, plaza-betean euskal meza
ederra, euskal kirol ta jolas ikusgarriak, eta oida-
nez "kristoren" bazkaria. Ainbeste gizaseme lerdan
ta zintzo alkartuta, zer ez? Baita, baita, iretargia
goldatu be! San Isidrok zaindu zaizela urte askotan
adore ta alkartasun orretantxe!*

Maiatzak amazapi
aurtengo urtian,
a izan zan eguna
Mungi-partian!
Berrogeitamar urte
alkarren artian,
lareun bat baserritar
kofradi batian.
Amaikak aldian
meza bat aidian,
lekuen faltian
an plaza-betian.
Niri ez jat aaztuko
bizi guztian!

Millaka lagun giñan
zaar ta gaztedia,
erri baten batzeko
ba zan jendia...
Alkar artu ezkeru,
urtzen da mendia!
alkarren aurka, barriz,
zer ondamendia...
Orra or bidia,
kristiñau-fedia,
Mungi'ko legia,
auxe da egia:
Gaur danontzat eskola
zara Mungia.


An dana zan laguna
ta dana anaia,
benetan izan gendun
egun alaial!
Leenen bertsolariak
eguneko gaia,
gero pelotariak
jantzi eben jaia.
Ondoren amaia:
prest egoan maia,
seireun bat ia-ia,
egin gendun naia...
Gora Mungia eta
Gora Bizkaial

Berrogeitamar urtez
zeinbat neke ta lor,
baiña aurrera beti
zintzo ta jator.
Ez ziran falta izango
zapo edo sator,
baiña alkar artuta

beti eutsi gogor.
Ez gero galdu ifior,
bai jaso edonor;
ainbat mesede or
ta ez da ezer zor.
Olako lan ederra
berez ez dator!

Nekazari maiteok,
entzun ta ikusi,
orra or Mungitarrak
zer erakutsi:
Bakarkeri zitalak
alde batera itxi
eta alkartasunari
beti gogor eutsi.
Naizta izan gitxi,
alkartu leenbizi;
bakea da pitxi,
ez tranpa, malizi...
Alkar artuta, ekin
il edo bizi!

Gaurko aurrerapenak
alkartzea dakar,
bakarrik bizi danak
lurra jo bear.
Mungi-aldetik dator
oiu ta deadar:
baserritar guztiok
jagi ta gora azkar!
Aurrera su ta gar,
ez alperrik negar;
egin milla batzar,
ez gelditu bakar;
artu eizue danok
leenbailen alkar!



«KILIKILI» EGUNEZ


(Doiñua: 29)

—Egunon, KILIKILI,
egunon Donosti!
—Ongi etorri danok
siku edo busti.
—Ekin txistu, danbolin
dantza ta abesti.
—Ondo igaro daigun
guraso ta guzti!

—KILIKILIK baditu
millaka lagunak,
—Txoriak lez pikutik
dira ezagunak.
—Euskeraz itz egiten
daben txori-kumak.
—Zuri, gorri, orlegiz
daukez euren lumak.

—Bizkai, Napar, Gipuzku
Zubero, Lapurdi
—Araba, Benabarre,
ori da Euskadi.
—Auxe da KILIKILIK
maite dauan kabi.
—Berarekin batera
zaindu daigun garbi.

—Durango'tik urtenda
ibilli ta ibilli
—Donostin batu gara
zelako familli!
—Au olan ikusita
nor egon ixili?
—Esan daigula danok:
GORA KILIKILIIII



«IÑUXENTIAK»

(Doiñua: 6)

Alkartu bertso-kantura,
alantxe dogu oitura;
eta uxatu daigun gugandik
ainbeste tristura.
Begira jarri mundura
eta zelako itxura:
komediante, iñuxentetan
bada zenbat-gura!

«Erriak auxe gura dau,
ezin leio ukatu au»;
Erria gora, Erria beera
or dabiz iru-lau...
Dana ipinten dabe lau,
botoak gura arrapau;
Euren saretan jausten da milla
iñuxente papau!!!

«Ori da diktadoria»,
ori berba dotoria;
iñuxentiak arrapatzeko
ori dok loria!
Berbetan bai adoria,
egiteta traidoria;
komeni dan lez kantatuzeko
ori dok txoria!!!

«Ez da esaten egirik,
ez dago eskubiderik»,
ezker-eskuma, danok gagoz gaur
protestaz beterik.
«Au da egia» batetik,
«au da egia» bestetik;
jaunak, badago zer sifistu gaur
balego federik!

Orra kanpaiak joala,
ez da zarata makala:
«Gure Erriaren zapaltzaille da
Eleiz ofiziala».
Geurea leenengo dala,
besteak lur jo dalala;
pekatariak ez diranentzat
or eleiz leiala!

Gaur nagusi da jokoak,
beterik dago kolkoa;
gaur igurtzika, biar adarka,
jausten da naikoa.
Amuan jarri «kokoa»,
ondo gorde «azpikoa»;
iñuxente ta erdi-lelotan
bete lapikoa!!!

Erri, Kultura, Euskera,
Euskaldunon izakera...
askatasuna, eskubideak,
auxe da aukera!
Ondoren dator jokera:
bat esan, bestea atera;
zereko zerak ta zeragaitik
zertu dabe zera...

Au olan dala ikusi,
ezin geinke tonto bizi;
ta gitxiago, oba dala-ta
or ziar igesi.
Malizia da milizi,
jokoak ondo ikasi:
ondo jokutzen dabenentzat da
Jainkoaren grazi.

Otso jantzita artzaiña,
ez gaiezala engaiña;
ondo ikasi bearko dogu
Jesusen dotriña:
Usoak lez mantso, baiña
suge lez zur, alajaiña!
Naiz zintzo jokatu, jokoak jakin
edozeiñek aña.

Jarri gaitezala tente,
ez jausi ifloren mende;
bana-banango pertsonak izan
ez moltzoko jende.
Ez sifistutu derrepente,
guzurra dabil dexente...
Kristau anaiok, argi ibilli,
ta ez ifluxentel!!!

ERRIA... HERRIA... ERRIA...

(Doiñua: 17)

Zer da erria? Nok jakin! Nok ez daki? Zeinbat buru, ainbat aburu. Dana dala, guztiok erri-zale. Ori bai gero! Bestela, orixe litzateke gaur pekaturik aundiena. Kristiñauen artean Jaungoikoaren eta santuen aurka gaur botaten diran kakazkeriak erriaren aurka bota bai, eta orduan ikusiko dozuz ikuste-koak. Laster zengokez zigorpean edo lurpean, "erri-juezak" zorrotz epaituta gero. Izan be, ateorik ez dago. Dagon eta dan Jaungoiko bakarra ukatzen dabena be, ordezkotxoren bat asmau ta gurtu bear; gizonaren berezko jokera da. Esaterako gaur ERRIA. Ortik datoz geroko ospakizunak: "Erria zurekin", "Erriak eskatzen dau", "Erriak agintzen dau", "Erriaren onerako il bear da"... Eta "erri-jainkoxoa" lepoan artuta, errogatibak edo prozesiñoak, kirieleison ta guzti! A, baiña ori guzti ori, erria norbere serbitzuan dagonean, bestelan jokoak ez dau balio. Erri ori ezi egin bear da, onez edo txarrez. Beti be, norbere alde jarri artel

Bertso-kantura nator
erriari buruz,
gaur guztiok gabiltz
beraren inguruz.
Batean txaloz eta
bestean zizpuruz,
egiz zer gura dogun
nok jakin seguruz!?

Gure erria dogu
geure sorlekua,
ta bera maitatzea
dogu legezkoa.
Nunai agertzen da gaur
ama-ordezkoa,
ama zelan maitatu
erakustekua...

Erri bakoitzak dauka
bere nortasuna;
askok galduta dauke,
ori da aztuna!
Besteak ei dakie
guk bear doguna,
euskaldunak badaki
nor dan euskalduna...

Euskalerrriak badau
bere izakera,
gizaldiñ gizaldiz
osotu da bera.
Bere oiturak ditu
ta bere Euskera;
aita-amarik ez dago,
erri-seme gera.

Erria erria da
bera dan modura,
berak daukan sinñismen,
izkuntz ta oitura.
Baifia askok emon nai
norbere itxura,
seme izan baifio leen
aita izan gura!

Erria au ta ori...
bakoitzak beria,
gaur asiko balitz lez,
au barrikeria!
Ez da erritasuna
bai errikeria;
beti da oillo-zale
luki azeria...

«Gure Euskalerrriak
gaur auxe gura dau»,
or dabiz zarataka
betiko iru-lau.
Ondo ondo esanda
botoak arrapau;
beti olan izan da,
gaur be bardin da aul

Txarrak ondo gorde ta
onak erakutsi,
olako denda baten
ez asko erosi!
Norbera beti garbi,
besteak itxusi;
Eta erria nun da?
ikusi-makusi...

Gorri, zuri ta baltzak
or milla kolore,
norbere gogokoa
beti da dotore.
Erria irabazteko
bota milla lore,
«senargai» asko ditu
zein baifio zein obe!

Erria geu gara ta
geure aldekuak,
beste guztiak dira
kontzientzi-bakuak...
Gutarrak ez diranak
edo antzekuak,
tontoak dira edo
parte txarrekuak.

Euskalerrri maitea
gure ama lurra,
zurekin egin dana
dirudi guzurral
Maitale zalakoa
bera zan lapurra...
gaurko maitaleakin
izan zaitetz zuurral

Euskalerrri maitea
badozu kredoa,
baifia zure biotza
norantz ete doa?
Gaur arte ez zara izan
ifioiz atea,
ez aaztu artu dozun
kristau-bateoa!

Euskalerrri maitea
erri bat zara zu,
nor zaran gogoratu-
bearra daukazu.
Ezker-eskuma dozuz
milla enbarazu,
baifia «zu zeu» izaten
zuk ekin jo ta su!!!

Euskalerrri maitea
orra milla jabe,
bestela bizi zifian
alakorik gabe!
Maitatzen zaituela
bai, esaten dabe,
baifia zuk ez siñistu,
onena bada be!!!

GAZI-GEZAZ



«SANTUEN PROTESTAK»

(Doiñua: 19)

SANTU TA SANTARIK EZTA
EZ DAUKANIK BERE FESTA;
GURE LEPOTIK JOKATZEN DA-TA,
EGITEN DOGU PROTESTA.

Ni naiz Pedro Aita Santu,
zer dabiz bertso ta kantu:
«Jerarki bako eleiz barri bat
gaur bear dogula landu?».

Gu gara Juan eta Andres,
kristauak, esan mesedez:
guk parkatzeko; zuek ilteko;
nor ete gagoz aldrebese?

San Lorentzo ta Sandroke,
dana emon, ta geu probe.
«Eliz probea» kantatu baiño
probe izatea obe...

Santiago ta Bartolome,
gu be «ez gaude konforme»
arma-petardo ta gogorkeriz
Kristo beti dago sobre.

San Nikolas ta Bixente,
gu ei gara ifluxente;
zertako Meza ta Sakramentu,
ainbarik dabiz dexente!

Santa Madalen ta Agate,
zer dan gaurko karidade...
gure omenez kantu ta kanta,
gero nundik zabilzate?

San Permin eta San Anton,
zehen ta txarrien Patron!
Gizonik eztan ganau-artetik
gu bagoaz ta, or konpon!

Isabel eta Luzia
guretzat begi-gauzia;
gure lepotik jan eta dantza,
ori da bixta luzia...

Esteban eta Prantzisko
ez bengantza, ez begizko;
alkar-parkatzen ikasi barik
zetan esan: Gora Kristol!

San Kristobal ta Benito,
ikusten gagoz polito:
Bide barriak egin aurretik
zaarrak apurtu ta kito!

San Blas ta San Antonio,
badatoz eske oindio;
gatxak ta latzak kentzeko baiño
ez ete dogu balio?

Mikel aingeru bikaiña,
«Nor da Jaungoikoa aiña?»
Euskalerriko eleiz-bizitzan
sartu da ateo-usaiña.

Gu gara Joxe ta Mari
—aintza Jesus Umeari!—
zelan lagundu, gure atxakiz
orrela dabillenari?

Santu ta Santa guztiak,
zer pena au ikustiak!
«Olako zibilizaziorik»
ez dogu bear, gaztiak.

Ez daukagu atrakorik
ez manifestazifiorik;
bakotxa berez etorriko da
ez da bear sekuestrorik.

Alperrik gabiz asarre,
oba bein baten gu erre;
ta ordez artu Mari Anboto
ta ospatu Akelarre...

Agur Euskaldun ta kristau,
gogoan artu gaurko au:
Santu guztiak alperrik dira,
bakotxak egin bear dau.

Norbera aalegindu leenen,
laguntzeko gagoz emen;
danok bedeinkatzen zaituegu
Kriston izenean. Amen.



GAURKO KREDOA

(Doiñua: 36)

BERTSO ANTZEKO BATZUK
moldatzera noa,
inguruan badago
zeresan naikoa.
Au da naastea, jaunak,
au da au laiñoa!
Nok igarri zein dan gaur
askoren Kredoan?

Batzutan ondo datoz
Ebanjelioak,
ezin leitekez galdu
pribilejioak...
Olakoen kredoak
a zer balioak,
asi orduko datoz
patrifilioak.

Gaur dira katoliko
ta biar ateo,
bardin artu ta itxi
komeni ezkeru.
Gaur eskuman daukazuz
aupadaka bero,
ta biar ezkerrean,
ta norantza gero?

Ez da errez bakoitza
nor dan jakitea,
ain errez aldatzen da
modaz txaketea!
Gaur agertzen jatzuna
aixkide maitea,
biar aurka daukazu
nun eingo kaltea.

Norbera ez besteak
danak diktadore,
norbera goian bada
orduan dotore.
Iñoren arlo ta lan
dana da folklore,
ai, nireak daukien
usain ta kolore!!!

Asmaualak asmatzen
millá gizon listo,
nundikan buztartuko
Mao eta Kristo.
Fede onez ez ei da
iñortxo be galzto...
«ateo fededun» da
gure Txilibristol

Orain bakoitzak dauka
norbere kredoá,
dana neurritz eginda
baita be Jainkoa.
Gaurko jentemodua
ez da ez tontoa:
Asiera ta azkena
norbere kolkoa.

Egiak egi dira
baiña ez betiko,
komeni bada artu
ezpada, ostiko...
Gaur ez dago eziñik,
ai ene mutiko:
Siñistu naiz ukatu
danok katoliko!!!

Leen baegoan lege
ta kontzientzia,
baiña gaur nausi dago
gure zientzia.
Nai bada ta aal bada,
bada lizentzia;
Kredoaren ardatza
da «komentzia».

Gaurko Kredo barri au
amaitu baiño leen.
beste egi bat esan
bear dogu emen:
Neu gora ta neu beera,
neu azken ta lenen;
beti neu, in sekula
sekulorum amen!!!

ZER... ZERA... ZEREKOA...

(Doiñua: 29)

Ordu bete luzean ekin eta jardun ondoren; Zer esan dau? Obeto esanda: Zer esan gura izan dau? Berak balekil! Zer esan daben ez, ez daki; zer esan gura izan ez daben bai, ori ondotxo daki. Orregaitik ainbesteko berba lapikokadak. Berba bakotxaren zentzuna ez da beti bat eta guztientzat bardiña. Al-dian aldiko, ai ene Periko! Jakitunak diñoenez, Bibliak zer esan gura daben jakiteko azterketa sakinak egin bear ei dira; gizaldietako azal ta molde askotara ei dagoz barruko egiak agertuta. Jas, ain urrin joan barik be, kostako jak gaur berton be entzuten eta irakurten dagonari antz emotea! Berba ta esakera bardiñak ez dauke zentzun bardiña atzo ta gaur, Bilbon eta Donostin. Orduan zer? —Orduan ordukoak! Zeiñek zertu zereko zera? —Zerak!

Alkarren lagun onak
Patxi eta Martin,
Bertso-kantuan dabiltz
sarri alkarrekin.
Leengo baten biak
ekin eta ekin:
«Zereko zera zer dan
ia zeñek jakin».

P. Zereko zera zer dan
zuk ezetz igarri.
M. Alako zer ederra
deustazu ezarri!

P. Zera zertu ezker
ibiltzen da larri...

M. A bai, zereko zera
Patxi barregarri!

P. Zenbat zer ete dago
zeretik zerera?

M. Onenbesteko zer bat
gitxi gora-beera.

P. Gaurko munduan beintzat
ez goaz zertzera.

M. Leen baiño zerago gaur?
A zelako zera!

P. Zereko zera gabiltz
ta ez dago zerik.

M. Zer zer dan gaur nok jakin
zera zertu barik?

P. Geure zerak zertzeko
ez dago besterik?


M. Zerak zertu ezean
ez dago zertzerik.

P. Ainbeste zertu barik
esaizu zeozer.

M. Onenbeste zertuta
au ez da edozer.

P. Alperrik zerak zertu,
zertzen al da ezer?

M. Zerak gertu ezker
zuri ta niri ZER?



NI BETI AURKA

(Doiñua: 16)

Txomin eta Pepanton
nekez eta lorrez,
txarri bat ezin sartu
onez, ez zigorrez.
Ango juramentuak
Kaixpar ta Meltxorrez,
iñok be galdu nai ez,
ai, burugogorrez.

Atzetik ta aurretik
tira eta bultza,
an iguruan bazan
kurrin eta putza.
Alperrik aalegiñak,
beti atzeruntza;
bakoitzak bereagaz
baeukan gurutzal

Ango otsak entzunda
an da gure Ander,
angoak ikusita
ia egin eban ler.
Orrela ez, mutillak,
orrela dok alper.
Eskutsik neuk bakarrik
baietz sartu laster.

Igurtzika jarri dau
atera begira,
gero esku biekin
buztanetik tira...
Arraioak ezpaituk!
bai arin tokira...
martxa aretan laster
ziran Errusira!

Txomin eta Pepanton
asarrez beterik:
Anderrek ez eukala
guzurra besterik.
Ez eukala zer barik
txarria zertzerik,
zera zertu eutsola
zereko zeretik.

Jakin eizue biok
txarriaren barri:
kontra egitearren
leenago il larri...
Kontu au gugan be egi
biurtzen da sarri:
A zein u esan, bardin:
BËTI KONTRA JARRI!!!

BAI TA EZ, EZ TA BAI...

Au da naastea, mutillak! Ezta bai, bai ta ez... eztabaidako auzia, badaezpadako gauzia! 70-garren urte-inguruan landutako bertsoak dituzu. Gure inguruko aize ta urak eta eurretan diran espirituak lorrintutun asi ziran egunak. Eleiz, etxe, eskola, lan-regi, komentu... danean eta danetan burruka ta eztabaida. Luzarorako izango ete zan? Kia, nire uste ta gogoia ez zan beintzat orrenbesterako. "Carrasca" adalako erdal doiñu xelebrea jarritako bertsoak jarren deutsudaz aurrean.

Lagun, munduan zer barri?
Zer dagon begira jarri:
Itxura onak bai sarri,
baiña barrutik zer larril

Zenbat burruka ta auzi
ta ezin kontuan jausi:
Danok nai dogula nausi,
bestelan musturrak ausi!

Gaiztoak onari kuku,
ondo dabillena kaiku,
egizaleari kaku,
ta guzurtiari leku.

Norbera beti da maixo,
danak buru-makur, kaixo!
Kontra dagonaren gaixo,
jo t'apurtu, ze arraixo!

Gazteak zaarari irri,
zaarrak gazteari zirri;
azkenean kaka-pirri,
alkarri deutsela tirri.

Batak diño zuri dala,
besteak baltz edo ala;
ez dala eta ba dala,
ai, zelango astrapala!!!

Neurea neuretzat dana,
ta zurea erdibana;
berbetan daukogun zana...
baiña besteentzat lanal

Norbera beti da libre
ba da milla eskubide:
Besteentzat zigor-bide
ezpada neure aixkide.

Gizon danok gara anai
orreik dirā berbak, jajai!
ezpane z diñogu: Bai, bai;
baiña egitez... tralarai!!!

Gaur dana da: Alkar maite,
baiña kontuz ibil zaitel
Milla promesa ta koipe
eurena jaritxi arte...

Besteak nai doguz txiro,
santu izateko giro;
baiña norberaz astiro,
arrapatzen jota tiro...

Fede-gauzak dira mito,
droga ta ardotan ito;
ni ateo naz ta, kito!
orduian bai ni polito!!!

Naiz iretargira ixon,
gixona beti da gixon...
Naiz Aita Santu, naiz Nixon,
il ezkeru, kirieleixon...

Esanak esanda gero,
jokatu daigula bero;
zuzen ibilli ezkeru,
errukituko da Pedro!!!

23

The musical score consists of six staves of music. The first five staves are in treble clef with a key signature of one sharp (F#). The sixth staff is in bass clef and contains two measures labeled '1.º aldiz' and '2.º aldiz'. The music is a lively, rhythmic piece with many eighth and sixteenth notes.

ERRIKO JAIETAN

Egunak joan eta etorri,
ez da poztasun makalal
gor-itsuak be igarten deutse
erriko jaiak dirala.
Dinbi-danbala,
emon jo-ala,
auzoak jakin daiala;
kanpai ta naaste zabalduen da
oillo-garraxi itzala.

Etxekoandra errukarriak
gau osoa erdilotan,
estu ta larri ames egifirik
zer zelan jarriko dotan.
Sarri askotan,
Meza bakotan
ainbeste dira auzotan.
Eta doazan geienak dagoz
lo zurrungaka sermotan.

Gizon morrosko jente guztia
Meza nagusira doia,
ez da erreza ezagutzea
zein dan jaun ta zein morroia.
Ortik orroia,
andik sermoia,
mar-mar korupe ta goia;
ikusten danez, beti daukie
euren alde errazoa.

Meza-ondoren apusturen bat
beti edo bai sarri,
daukezan diru eta geiago
jokatzen deutsez alkarri.
Estu ta larri,
iso ta arri,
zein dan asto nok igarri!
Tranpa ta tongo naiko eginda,
guztiak dira egarri.

Gizon ta mutil asiko jatzuz
kalerik kale errondan,
barritsu dabiz egurak eta
gazteak zantzo ta kantan.
Alkarren txandan,
jan eta edan,
beti etxerako plantan;
koru orretan ezin da ifior
asperfu sekula santan

Alako baten etxeratuta
apatx, jarleku nasaian,
ordu bietan jaten asita
seiterdietan be maian.
Erriko jaian,
ba da zer-naian;
ainbat sartu da sabaian...
Batek non diñon: ordua da-ta
apaldu daigun jarraian.

Etxean diran janak janda be,
damu geiago jan ezak;
zati bateko ustualdia
artu dau orko artezak.
Gero amesak,
berba errezak,
ezkontzarako promesak,
or doaz prakabako kuku ta
kuku-prakadun markesak.

Zelan edo nok barruan euki
geldi ainbat gasoliña?
Ixildu barik dauke barruan
plazara deika sorgiña.
Eup! Txakoliña,
jo tanboliña;
Ori dabil poxpoliña...
Ai, gizontxoa, biar goizean
joko dok ik biboliña!

Gaba ezkerro, plaza tabernan
egiten daben girua!
Antxen entzungo dabe goizeko
txorien txirulirua.
Bota dirua,
edo tirua,
nok-egin erretirua?
Egun bi barru dator etxera
jokuko zorren jirua.

Zaarrak tabernan, gazteak plazan
inortxo ezin da kantza,
guarda zibillak ikaratuta
asi dira etxerantza,
Onek arrantza,
arek balantza,
sekulako asto-dantza;
San Pedrok bedeinkatu daijala
arrapau daben buzkantza!

Amaikak jota oian etzunda,
ezin jaso betazalak,
tripa ta buru galduta dagoz
oneik dira karnabalak...
Orroika txalak,
gosez tripalak,
asarre andra zitalak;
baiña diñonez, ez dira izan
aurten San Pedro makalak!!!

Orra zetara datozen sarri
gure erriko jai-egunak,
olan goraltzen aal doguz emen
geure Zaindari kutunak?
Guraso jaunak,
t'arduradunak.
baserri gazte lagunak:
erriko jaiak garbitzen ekin,
gu bai gara Euskaldunak!

Zeru goietan bizi zarean
Gure San Pedro maitea,
zeure aurrean auspez gagoz-ta
gugaz erruki zaitea!
Emon bakea,
jan-edatea,
gero zabaldu atea;
au amaituta merezi daigun
zeure ondora joatea!!!

ABADIÑOKO SAN BLASETAN

(Doiñua: 36)

Santu au ezagun jaku euskaldunoi, etreko ta kortako, Abadiñoko San Blasak dirala ta, batez be. Meza ederra leenengo, ori utsik barik gero! Ondoren erroskillak, ganadu-peria (astoak nagusi!) azkenik sekulako betekadea ("urtean bein gitxienez") Eta ortik aurrera "narrua neurri". San Blas-aria, dana neurtu ta bedeinkatzeko lain ba da, luze naiz motx, bear danean koxk. Onako zortziko oneik zerbait adierazoko deuntsue.

Txanton
San Blas daukogu gure
Zaindari jarrita,
atsaldian egingo
deutsogu bixita.
Zein argalak garean
ondotxu daki-ta,
arek salbauko gaitu
oin ondo bizita.

Txomin
Askok egiten deutse
erregu San Blasi,
baiña Jainkoa dala
leenengo, ikasi.
Fede edo zentzuna
galdu dogu kasi,
ezin leike zerua
tranpaz irabazi.

Txanton
Gizonak ez dau izan
bear prestueza,
gero be an daukogu
guztion jueza.
Ez da asko galtzea
egun baten meza,
bestela salbatzea
ez da gauz erreza.

Txomin
Gaurko gizon askontzat
dana da lizentzi,
baldin izan ezkeru
euren komenentzi.
Txarra zein ona bardin
osorik irentzi,
galbai zaar bat dirudi
orren kontzientzi.

Txanton
Gizonak euki bear
dau abildadia,
norbera ondo bizi
ta karidadia.
Munduan sarri artu
lei betekadia,
eta seguru euki
eternidadia!

Txomin

Amaiak ba diñoe:

gero gerokoak,
oneik poztuten ditu
baba-lapikoak.

Nonbait oneik ez ditu
bildurtzen kredoak,
merezia emongo
deutse Jaungoikoak.

Txanton

Praille zaar bat eginda
daukogu gaur Txomin,
nire meza dala ta
ba dau naiño zotin.

Ori gaitik ez daukot
nik gibealeko min,
andre, atera eiguzu
sartain edo topin.

Txomin

Txanton, oker daukozu
jarrita burua,
obe dozu ikasi
neure liburua.

Emen zerua eta
gero be zerua,
orixe bai ez dala
gauza segurua!

Puntura:

—Amaitzeko, erantzun
eidazu puntura.

—Azkenean be jausi
al zara kontura?

—Orrek ez deust emoten
ainbeste estura.

—Zezen gaiztoak errez
ez datoz eskura.

—Zelan ikusten dozuz
aurtengo San Blasak?

—Ganau ederrak, baiña
gizonak eskasak.

—Olan zerk jarri zaitu,
porru ala azak?

—Kristiñau-dotriñako
zure kalabazak.

—Ez zaitez olan jarri
Txomin, neure lagun!

—Lagun baiño leen gaituk
gu biok euskaldun.

—Gaur arte lez aixkide
beti iraun daigun.

—Baiña izatekotan
euskaldun fededun.

—Gaurko txarto esanak,
aixkide, parkatu

—Leengo zarrak lez; ate—
ondoan sakatu.

—Bake ta osasuna
San Blasi eskatu.

—Baiña geure fedea,
Txanton, ez ukatu!



GURE «SANTOKILLUAK»

(Doiñua: 13)

Munduan ifion ez da izango
emen aifia ermitarik,
zeruan bertan ba ete dago
ainbeste santu santarik?
Zaar eta gazte, dantza ta naaste,
ez sermoi ta ez mezarik...
Jaungoiko barik biziko gara,
baifia ez gero santu barik!

Atso-agura zaarrentzat dira
bere eguneko santuak,
neska-mutillak gurago dabez
errepetiziñokuak...
Sandroketxu ta sandroketxutxu
eta ortik gorakuak,
txutxu ta txatxu guztietatik
gorde gaizala Jainkuak!

Zer penitentzi ta neke lorrak
euren bizitzan santuak!
baifia alperrik ez dira izan
ai, gure «adelantuak»...
Anai arrebok, oneik zer dira,
egiak ala kontuak?
Beste biderik ez dago emen:
eurak edo gu tontuak!!!

Orra zetara datozen sarri
santuen erromeriak,
santu-jaietan galduten ditu
lotsa onak gazteriak
Agureak be ara ezkerok
egiten ditu beriak...
Orrexek dira, garbi esanda,
kristiñauen komeriak!

Bakarrik dagoz autsez beterik
ermitan «santokilluak»,
ardo ta dantza, pilloka dabiltz
zelaian astokilluak...
Nok uste leike orreik diranik
euskaldun katolikuak?
ikusten danez, geiago gara
kristiñau katillukuak!

Geuri komeni jakun orduan
 bakarrik gara kristiñau,
 ortik kanpora, Txifia ala Japon,
 batek ba daki zer dan au!
 Ondo badator, danok kristiñau,
 eta ezpa dator, miau!
 O Euskaldunok, olan bagoaz
 gureak laster egin dau!!!

DOIÑUAK

1

2

3

4

1.º alia 2.º alia

1.º alia 2.º alia

rit.

5

6

7

8

9

10

11

12

13

Musical score for measure 13, consisting of six staves. The notation includes eighth and sixteenth notes, with several triplet markings (indicated by a '3' over a group of notes) and slurs. The piece concludes with a double bar line.

15

Musical score for measure 15, consisting of ten staves. The notation is dense with eighth and sixteenth notes, featuring various rhythmic patterns and slurs. The piece concludes with a double bar line.

14

Musical score for measure 14, consisting of five staves. The notation shows a steady rhythmic pattern of eighth notes across the staves, concluding with a double bar line.

16

Musical score for measure 16, consisting of five staves. The notation includes vocal-like markings: 'Sol' (soprano), 'RE 2' (alto), and 'Do' (tenor). The piece concludes with a double bar line.

17

18

19

RE LA7 RE
LA7 RE SOL
RE LA7 RE LA7
MIM LA7 RE SOL
RE LA7 RE

20

21

22

Musical score for exercise 22, featuring four staves with treble clef, key signature of one sharp (F#), and 3/4 time signature. The music includes triplets and various rhythmic patterns.

23

Musical score for exercise 23, featuring five staves with treble clef, key signature of one sharp (F#), and 3/4 time signature. The music includes slurs and dynamic markings.

24

Musical score for exercise 24, featuring four staves with treble clef, key signature of one sharp (F#), and 3/4 time signature. The music includes slurs and dynamic markings.

25

Musical score for exercise 25, featuring eight staves with treble clef, key signature of two sharps (F# and C#), and 3/4 time signature. The music includes slurs and dynamic markings.

26

Musical score for measures 26-31. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of six staves. The first staff contains the melody, which begins with a double bar line and a repeat sign. The second and third staves contain accompaniment. The fourth and fifth staves continue the accompaniment. The sixth staff concludes with a double bar line, a *rit.* marking, and a fermata over the final note.

27

Musical score for measures 27-29. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of three staves. The first staff contains the melody, which begins with a double bar line and a repeat sign. The second and third staves contain accompaniment.

Musical score for measures 30-32. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of four staves. The first staff contains the melody, which begins with a double bar line and a repeat sign. The second, third, and fourth staves contain accompaniment.

28

Musical score for measures 28-30. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of three staves. The first staff contains the melody, which begins with a double bar line and a repeat sign. The second and third staves contain accompaniment.

29

Musical score for measures 29-35. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of seven staves. The first staff contains the melody, which begins with a double bar line and a repeat sign. The second through seventh staves contain accompaniment.

30

Musical score for measures 30-33. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of four staves. The first staff contains the melody, which begins with a double bar line and a repeat sign. The second, third, and fourth staves contain accompaniment.

31

32

34

35

36

AURKIBIDEA

JAINKO-BIDEZ

	<u>Orr.</u>
Euskaldun eta fededun gara gu	17
Nun jaioko billa	20
Ikasi ondo sufritzen	22
Damu dot, Jauna!	25
Jainkorik ba aal dago?	28
Belengo Ikastolan	29
Kristau senitartea	33
Illeta-kanpaiak	35
Gaur gabon-gaba	38
Etxeko ikastolan	39
Billa ta billa	41
Euskal Biblia	44
Jaungoikorik ez!	46
Belengo mundu barria	48
Maite zaitugu, Jesus	51
Gabon-abestia	54
Mendietako gurutzak	57
Betiko egiak	59
Andra Mari-Erria	63
Garizuma ta Mixiñoak	66
Gabon, Mixiolariak!	70
Euki ala izan?	72
Urte Santuko gurutz-bidea	74
Erein eta erein	80
Gurutz-bidea	82

Gora Kristo Erregel	87
Garizuma-aldian	90
Begoñako Ama, Bizkaiko Zaindari	92
Geroko itxaropenez	95
Agur, Aita Patxil	97
Yon Ogeitairugarrena il da!	102
Balendin Berriotxo, bertsolarien Zaindari	105
Domusantu	108
eta	
Euskaldun edo fededun?	111
ala	

GIZA-BIDEZ

Argi-billa	117
Gaurko fariseo barriak	122
Au da karidadeal	125
Itxaropenaren itxaropenez	127
Bideko neke lorrak	132
Gora Belendiz!	135
Ardoaren lau indarrak	139
Morokil-ekkontza	142
Senide... zein bide...?	145
Pizti-ondakiñak	151
Eziña ekiñaz egina	154
Urkiola, arnas-leku	158
Aititaren urte barriak	161
Mendi-zaleak	165
Truk... truk... truk...	168
Amaika olako!	171
Oraindik ez da azkena	173
Kristau-alaitasuna	175
Itsua ta errena	180
Gizona beti gizon	186
Astoak ei dabiz...	191
Edurra! Edurra!	194
Aiene ta oiene...!	197

Anai Luisen zidarrezko ezteguak	199
Zelan konpondu mundua	202
Gure erriko «nagusia»	204

ERRI-GOGOZ

Au dok au demokrazia!	209
Kennedy	211
Euskalerrian euskera	214
Zer naz ni? Nor naz ni?	216
Ogei urteko alaba	218
Agur baserria!	221
Gure erriko loreak	225
«Kristorenak»	227
Indarkeririk ez!	230
Bat bitan banatzen da	233
Ori da bidea!	236
«Kilikili» egunez	239
«Iñuxentia»	241
Erria... Herria... Eria...	245

GAIZ-GEZAZ

«Santuen protestak»	253
Gaurko kredoa	257
Zez... zera... zerekoa...	260
Ni beti aurka	262
Bai ta ez, ez ta bai...	264
Erriko jaietan	266
Abadiñoako San Blasetan	270
Gure «santokilluak»	274